# Goienkaria

2006ko maiatzaren 12a > Egubakoitza > VI. urtea > 243. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net


"Ikasle etorkinen kopuruak ez du hezkuntza kalitatea jaisten"

**Ignasi Vila**
Psikolinguista
> 09



**G2a** **Alberto Urretxo tronboi-jotzaile arrasatearra** > 43

**ARETXABALETA** **'Eitteko prest!' leloarekin aurkeztu dute Euskararen Astea** > 33

**ARRASATE** **Obrengatik pazientzia eskatu du alkateak 'Debarri' saioan** > 18

**KIROLA** **Aramaioko ibarrean ibilbide luzeko martxa antolatu dute: AibA!** > 40

**EUSKARA** > ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGIN DAITEKE

# Errenta aitorpena espainolez egiten dute euskaldun gehienek

**BERBA EGIN, EUSKARAZ** Ogasuneko teknikariekin berba euskaraz egiten dute gehienek, baina paperak, espainolez

**BITARTEKARIAK** Aurrezki kutxen edo aholkularien bidez eginda, errazagoa da aitorpena euskaraz aurkeztea

**BALIABIDEAK** Aukera guztiak daude aitorpena euskaraz egiteko, eta Ogasun teknikariak euskaldunak dira > 02-03



**ARAZTEGIA** Esther Larrañagak, Ingurumen sailburuak, Mekolaldeko araztegiko obrak bisitatu ditu. OIHANA ELORTZA

## 2012rako Deba ibaia erabat garbi egongo dela esan du sailburuak

Esther Larrañaga Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburua Deba ibaia garbitzeko lanak nola doazen ikusten egon da astean. Atzo, eguena, Bergarako Mekolalde auzoan egiten ari diren araztegia bisitatu zuen. Hantxe esan zuen, besteak beste, Elorregi dela (San Prudentzio) Deba ibaiak duen gunerik kutsatuenetakoa. Hala ere, berreskuratze lanak ondo doazela esan zuen eta 2012rako Deba ibaia erabat garbi egongo dela iragarri zuen. Horretarako, 102 milioi euroko inbertsioa egin dute. > 34

**OSAKIDETZA** > GREBA

## Lau greba egun Osakidetzan

ELA, LAB eta SATSE sindikatuek hilaren 19, 22, 26 eta 29rako deitu dute greba > 05

**ZERBITZUAK** > GUREAK

## Eguneko zentro berria adimen urritasuna dutenendako

Gureak taldearen Gipuzkoako bosgarren eguneko zentroak ateak ireki ditu Arrasaten. Helburua da, hasieran, 24 erabiltzaileri zerbitzua ematea. Zentro berria dago taldeak herrian duen lantegiaren ondoan.

Ibarreko bigarren eguneko zentroa dute hori, Bergaran badute-eta. Eibarren ere egin nahi dute bat. > 15

**ANTZUOLA** > GIZARTE ETXEA

## Gizarte etxerako, 430.000 euro

Foru Aldundiak kopuru hori eman du proiekturako > 36

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55








**EUSKARA** > ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEA BULTZATU NAHI DUTE

# Ogasunarekin harremana euskaraz, baina aitorpena espainolez

**ELEBIDUNAK** Errenta aitorpena egiterakoan, askok euskaraz egiten dute teknikariekin berba, baina dokumentuak erdaraz nahi dituzte

**ZAILTASUNA** Bergarako bulegoko arduradunen esanetan, euskarazko hitz teknikoak ez dituzte ondo ulertzen herritar askok

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Errenta aitorpen kanpaina hasi da. Bergarako Ogasun bulegoa jendez gainezka dago egunotan, eta euskara denen ahotan dago, bai langileenetan, bai herritarrenetan… ahotan bai, baina ez idatzietan, oraindik.

Euskara badabil arlo tekniko eta konplexuago hori irabazten, baina oraindik badago non aurreratu. Bergarako bulegoko arduradunak, Miren Pozuetak, honela azaltzen du egoera: "Bulegoko teknikari guztiok dakigu euskaraz, eta jende gehienak euskara erabiltzen du harremanerako. Hala ere, dokumentuak betetzerako orduan, nahiago dute gaztelania erabiltzea, beharbada hitz teknikoekin-eta hobeto moldatzen direlako".

**Errenta aitorpena euskaraz egin nahi duenak baliabide guztiak dauzka, eta teknikari guztiak euskaldunak dira**

**Aurrezki kutxen, aholkularien... bidez tramitatuz gero, errazagoa da aitorpena euskaraz aurkeztea**

### TEKNIKARIENDAKO ESKOLAK

Ezohiko hitzei beldurrarengatik, ohitura edo ezagutza faltarengatik… kontua da errenta aitorpen gehientsuak, oraindik ere, espainolez aurkezten direla. Beldur hori kendu eta ohitura hartzen laguntzeko ahaleginak egiten ari dira, ordea, bai erakundeak, bai euskalgintza ere.

Horren adibide da, Debagoienean, Arrasateko Euskalgintzak *Errenta aitorpena ere euskaraz* egiten diharduen kanpaina. Iaz ere egin zuten, eta Arrasaten, 12.500 zergadunetik 400ek aurkeztu zuten aitorpena euskaraz. Aurten, hori gainditzea da helburua. Oraindik ez dago aurtengo ekitaldiaren gaineko daturik.

Bestetik, Foru Aldundiak berak baliabideak eman dizkie Ogasuneko langileei. Hala, Donostiako euskaltegi bateko irakasleekin saio batzuk egiten dituzte kanpaina hasi baino lehen: "Erdarakadak erabiltzen dira: *deklarazioa*, eta horrelako hitzak. Bestetik, euskara oso teknikoa barik, hizkera naturalagoa eta hurbilekoagoa erabiltzen laguntzen digute", esaten du Miren Pozuetak.

Errenta aitorpena euskaraz aurkeztu nahi duenak normaltasun osoz egin dezake, horretarako baliabide guztiak dituelako Ogasun sailak. Inoiz gertatu izan da, ordea, dokumentazioa euskaraz aurkeztu eta frogagiria espainolez jaso izatea. Miren Pozueta arduradunaren esanetan, hori gerta liteke zergadunak aurreko urteetan espainolez egin izan duelako aitorpena, eta hizkuntza aukera ordenagailuan dagoenez, hizkuntza aldaketa adierazi egin behar zaio teknikariari.



**GAINEZKA** Bergarako Ogasun bulegoan lanez gainezka dabiltza errenta aitorpenaren kanpaina

### AUTOLIKIDAZIOA, INTERNET...

Errenta aitorpena euskaraz aurkeztu gura dutenek horretarako aukera dute oraindik, kanpaina ekainaren 26an bukatuko delako. Oraingoz, dena bere erritmoan doa, eta Bergarako Ogasuneko bulegoan, Gipuzkoako beste 11 bulegoetan bezala, lanez gainezka daude. Maiatzaren 6ra arte, 2.027 lagun pasa dira handik, eta 1.977 aitorpen mekanizatu tramitatu dituzte, aurreko ekitaldien oso antzekoa.

Mekanizatuaz bestelako aitorpen modalitate batzuk hedatuz doaz: hala, Ogasun Sailak 143.058 autolikidazio proposamen bidali zituen kanpaina hasi aurretik, eta horietatik 87.642 onartu egin dituzte zergadunek. Autolikidazio proposamena da Ogasun Sailak egindа bidaltzen duen aitorpena, eta zergadunak erabakitzen du onartu edo ez. Zergadunaren errenta mota, gastuak eta kenkariak hartzen dira kontuan proposamena bidaltzeko.

Internetez ere aurkez dezake norberak aitorpena, eta hala egin dute orain arte Gipuzkoan 1.520 lagunek. Aholkulari eta banku bidez egindakoak 2.432 eta 915 izan dira, hurrenez hurren.

Ostalaritza eta Turismo Eskola



**ZIKLOAK**
- Sukaldaritza
- Pastelgintza eta okintza
- Jatetxe-teknikaria

**PRAKTIKAK**
Lehenengo egunetik praktikak egiteko aukera

**PRAKTIKAK ATZERRIAN EGITEKO AUKERA**
(Polonia, Italia..)

**HAINBAT GASTRONOMI EKITALDITAN PARTE HARTZEKO AUKERA**
- Fitur, Alimentaria, Gourmet…

**D EREDUA**
Aurten euskaraz ikasteko aukera egongo da

**AURREMATRIKULA**
Ekainaren 1etik-7ra

**MATRIKULA**
Ekainaren 30etik-Uztailaren 6ra

C.I.R-erako Errepidea, z/g 01510 Gamarra GASTEIZ Tel.: 945 258025 / 258100
www.hosteleriagamarra.com



hasi zenetik. Batik bat, debagoiendarrak doaz hara, eta horietako askok euskaraz hitz egiten dute teknikariarekin. L.K.

HIZTEGITXOA

**> PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA (PFEZ)**
(Espainolez: *impuesto general sobre la renta de las personas físicas-IRPF*).
Estatuko zerga, zuzena eta pertsona bakoitzari dagokiona. Errenta bat eskuratzen duen pertsonaren errenta guztien arabera ordaintzen da, irabazien zenbatekoa eta pertsona nahiz familiaren egoeraren arabera.

**> ZERGA-OINARRIA**
(Espainolez: *base imponible*).
Zerga-betebeharra neurtu eta zehazteko oinarritzat hartzen den diru-kopurua

**> AUTOLIKIDAZIOA**
(Espainolez: *autoliquidación*).
Ogasun Sailak eginda bidaltzen duen errenta aitorpena da, onar edo errefusa daitekeena.

**> HIGIEZINEN KAPITALA**
(Espainolez: *capital inmobiliario*).
Etxebizitza edo bestelako eraikinen balioa, jabego zein alokairu erregimenean.

**> LIKIDAZIO-OINARRIA**
(Espainolez: *base liquidable*).
Zerga-oinarriari zerga bakoitzarendako legeak ezartzen dituen kenketak egin ondoren geratzen den kopurua.

**> ZERGADUN, ZERGAPEKO**
(Espainolez: *contribuyente*).
Zergak ordaindu behar dituena. Gerta daiteke zergadun batzuk salbuetsiak egotea.

**> HIGIGARRIEN KAPITALA**
(Espainolez: *capital mobiliario*).
Norberak aurrezki-kontuetan, dirutan edo bestelako jabegotan duen ondasuna.

**> ETEKIN, ERRENDIMENDU**
(Espainolez: *rendimiento*).
Higiezinen zein higigarrien kapitalaren, lanaren... bidez lortzen diren diru-sarrerak.



Euskalgintzaren kanpainaren logoa.

Aitorpen gehienak positiboak izan dira orain arte: mekanizatuetatik 21.793 dira (%88). Orain arte, Aldundiko Ogasun Sailak 80 milioi euro itzuli ditu. Mekanizatua eginez gero, 48 bat orduan jasotzen du dirua zergadunak; aholkulariz edo bankuz eginez gero, kanpaina bukaeran jasotzen du.

**AITORPEN KONPLEXUAK**

Bistan da oraindik zergadun gehienek aitorpen mekanizatua gurago dutela: hau da, norberak behar diren paperak eramanda, bulegoan egiten dute aitorpena.

Hala egiteko, txanda hartu behar da. Bergaran, maiatzaren 22ra arte dena beteta daukate. Aitorpen sinplea bada, 10 minututan egin daiteke, baina horiek gero eta gehiago auto-likidazio moduan egiten direnez, bulegoan aitorpen konplexuagoak tramitatzen dituzte, eta ordu erdi inguru har dezakete. Txanda hartzea 902 10 00 40 telefonoan edo *www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta* webgunean egin daiteke.

HILAREN 6RA ARTEKO DATUAK

**> 2.027**
lagun atenditu dituzte Bergarako Ogasun bulegoan.

**> 1.977**
errenta aitorpen mekanizatu tramitatu dira Bergaran.

**> %5**
aitorpen gutxiago dira iazko data berberarekin alderatuta. Likidazio proposamen gehiago bidali direlako jaitsi da zerbait kopurua.

**> 24.767**
aitorpen mekanizatu aurkeztu dira Gipuzkoa osoan.

**> 21.793**
aitorpen izan dira positiboak.

**> 143.058**
likidazio proposamen bidali dira Gipuzkoan, eta 87.642 onartu egin dira.

**> 80 MILIOI EURO**
itzuli dira Gipuzkoan orain arte.

**Amaia Ormaetxea** > Arrasateko Euskalgintza

## "Aholkulariek eta banketxeek asko lagun dezakete"

**L.K.** > ARRASATE

**Aukerak lantaldea osatu du Arrasateko Euskalgintzak hainbat kanpaina egiteko; orain, *Errenta aitorpena ere euskaraz* delakoa. Horretan dihardu Amaia Ormaetxeak.**


GOIENKARIA

**Materiala banatu duzue kanpainaren barnean, ezta?**
Bai: 2.000 liburu-markatzaile Arrasateko Euskalgintzako kideei, errenta aitorpena egiteko pauso batzuk adierazten; bestetik, aholkularitzetan eta banketxe edo aurrezki kutxetan, mahai gaineko batzuk banatu ditugu, kanpainaren ikurrarekin, jendeak jakin dezan han euskaraz egin dezakeela.

**Zelako harrera izan duzue?**
Aholkulariek eta banketxeek oso ondo hartu gaituzte, eta eurek asko lagun diezaiokete kanpainari.

**Zergatik?**
Gipuzkoako zergadunen herenak horien bidez egiten duelako aitorpena, eta beste batek egiten badu, jendeari errazagoa izan dakioke aitorpena euskaraz egin diezaioten eskatzea. 20-40 urte artekoen %80k euskaraz ulertzen dute eta %60k badakite.

**Iaz zenbat aitorpen egin ziren euskaraz Arrasaten?**
12.500 aitorpenetik, 400.



**Erantzun web orrian eta eraman iPoda!**
> Lau astetan lau galdera ezberdin erantzuteko aukera izango duzu
galdera: ZEIN DA GORPUTZEKO HEZURRIK LUZEENA?
informazio gehiago: www.arizmendi.ikastola.net
Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa
Arizmendi ikastola

GARRAIOA > FORU ALDUNDIAREN DIRULAGUNTZAK ESKUALDEARI

# Gaueko autobusendako 48.160 euro eman ditu Foru Aldundiak

Autobusak berritzeko eta Lurraldebusen irudia indartzeko ere eman ditu laguntzak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.292.000 euro eman ditu bidaiarien herri arteko garraioa hobetzeko. Zapatu gauetako autobusendako izango da zati bat; ibarrean, Pesak eskaintzen du Eibar eta Eskoriatza arteko zerbitzua, eta 48.160 euro jasoko ditu.

Laguntza horrekin autobusak berritzeaz gain, zapatu gauetako zerbitzuekin jarraitzea eta Lurraldebusen irudi korporatiboa bateratzea nahi dute.

Autobus berriak ipintzeko helburua da segurtasuna eta erosotasuna hobetzea; eta ezintasunak dituzten pertsonek autobusa erabili ahal izatea. Autobus konpainiek gehienez kostuaren %55 jasoko dute autobus berriak erosteko.

**IRUDIA**

Bestalde, Lurraldebusen irudia bateratu egin nahi dute. Orain arte 35 autobus ipini dituzte eta astero bi edo hiru gehiago jarri nahi dituzte. Autobusok logotipo gorria izango dute.



Irakurri Irakurri

Aukeratzeko aukera izan nahi dut.

Erretiratzeko garaia datorkizunean, sasoi hori nola bizi nahi duzun erabakitzeko aukera izatea gustatuko litzaizuke, ez da hala? Zeure irudimena beste mugarik ez izatea duzu amets. Mundu osoan barrena bidaia zenezake, edo, besterik gabe, eguneko une guztietan etxekoengandik hurbil egon. Edo, zergatik ez? Nahi duzun moduan eta tokian atseden hartu edo irakurri.

Aukeratzen duzuna aukeratzen duzula, **Kutxaren Aurreikuspen Planak** dituzu hori erdiesteko modurik onena. Etorkizunean izango dituzun diru-sarrerak ziurtatzeaz gainera, zure aurrezkien truke nahi duzun errentagarritasuna eta segurtasuna bermatuko baitizkizute plan hauek.

KUTXA AURREIKUSPEN-PLANAK
Bihar zer egin behar duzu?

*Kutxa Aurreikuspen-Planak Kutxa Bi BGAEra daude atxikita.*

www.kutxa.net
kutxa

> LIBURUA

### 'Euskal Herria atzerritarren ahotan' lana aurkeztuko dute

Datorren martitzenean, hilaren 16an, 19:00etan, Arrasateko Kajoi tabernan aurkeztuko du Jose Felix Diaz de Tuestak bere azken liburua. *Euskal Herria atzerritarren ahotan* lanean ehunka aipamen batu ditu egileak, euskaraz, atzerritar ospetsuek eginak euskaldunen gainean. Arrasate Argitan elkarteak argitaratu du liburua. Aurrez ere Arrasate eta Oñatiko irudiekin liburu bana argitaratutakoa da Diaz de Tuesta.

> ERREPIDEAK

### AP-1 autobideko lehen harria Etxebarri Ibiña-Luku zatian

Eguenean ipini zuten, Etxabarri Ibiñan, AP-1 eraikuntza lanen Etxabarri Ibiñatik Lukura bitarteko zatiaren lehen harria. Zati hori 2007ko azarorako amaituta izatea espero dute. Zati horretako atalik garrantzitsuenak dira Etxabarri Ibiñako lotunea, A-3604 errepidearen gaineko bidezubia, ordainlekuko eremua eta zerbitzu-gunea. Gipuzkoako mugatik Lukura arteko zatiko lanak ere epe berean amaitu nahi dituzte.

> MUNDUMIRA

### Jaialdiko kamiseta solidarioak salgai ipini dituzte

Mundumirak eta Ternuak egin dituzte kamisetak eta salgai daude 24 euroren truke. Kamiseta bakoitzeko hiru euro Debagoieneko gobernuz kanpoko erakundeen proiektuak bultzatzeko erabiliko dira. Kamiseta aurrez erosteko aukera egongo da Debagoieneko kultur etxeetan; GKEen egoitzetan; Mundumirako telefono zenbakira deituta (902 18 14 71); edo *www.mundumirafesta.com* helbidean.

> ENPRESA

### Ikerlan-IK4 aukeratu dute Cenit programako proiektuak egiteko

Hainbat enpresa partzuergok Ikerlan-IK4 aukeratu dute bost proiektu egiteko. Proiektuok Espainiako Gobernuak bultzatutako Cenit programaren dirulaguntza jasoko dute. Programa horren helburua da enpresa publikoek eta pribatuek elkarlanean I+G arloa lantzea proiektu berritzaileetan. Hain zuzen, laguntza jasoko duten enpresa euskaldunak CAF, Fagor Automation, Fagor Arrasate, Ona-Pres eta Tifell dira.

**ERREPIDEAK** > LAU BIDEKO ERREPIDE ZATIA ARRASATEN

# Inauguratu dute Epele-Kaskonategi bidea

Zirkulazioa asko arinduko da lau bideko autobideari esker

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi milioi euro pasa inbertitu behar izan ditu

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE
Eguaztenean inauguratu zuten Arrasaten Epeletik Kaskonategira doan bidea. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Arrasateko alkate Inazio Lakuntza, diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Bide Azpiegituretako diputatu Javier Zuriarrain.

Arduradunek azpimarratu dute lan zailak izan direla, baina pozik daude emaitzarekin, zirkulazioa asko arindu baita lau bideko autobideari esker.


**AGINTARIAK** Inaugurazioan izan ziren Arrasateko alkatea, diputatu nagusia eta Bide Azpiegituretako diputatua. A. LASAGABASTER

**LAU HILABETEKO ATZERAPENA**
Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik inaugurazioan esan zuen obrak katramilatsuak zirela, eta obra zuzendaritzakoek egindako ahalegina azpimarratu zuen.

Zailtasun nagusiak izan dira inguruko azpiegiturak errespetatu beharra eta zirkulazioa ez etetea. Ondorioz, lau hilabeteko atzerapenarekin amaitu dituzte lanak. Arazo horiek hasierako aurrekontuan ere izan dute eragina: Foru Aldundiak bi milioi euro pasa inbertitu behar izan ditu.

Epeletik Kaskonategira bitartean 20.000 auto pasatzen dira egunero. Inauguratu berri dituzten lanekin eta etorkizunean egingo dituztenekin, diputatu nagusiak uste du Arrasateko premia nagusienak beteta geldituko direla.

**OSASUNA** > GREBA DEIALDIA 19, 22, 26 ETA 29RAKO

# Maiatzeko lau egunerako greba deia Osakidetzan

Kalitatezko osasun sistema eta langile zein baliabide gehiago exijituz egingo dute greba, ELA, SATSE eta ESK sindikatuek deituta.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
ELA, SATSE (erizainen sindikatua) eta ESK sindikatuek greba deia egin dute Osakidetzan. Maiatzean, datozen astelehenetan eta egubakoitzetan egingo dituzte lanuzteak, 19an, 22an 26an eta 29an, hain zuzen ere. Egun horietan, gauerdiko hamabietatik hurrengo gauerdira egingo dute greba. Lanuzteek eragina izango dute Osakidetzako jardun guztietan, zentroak eta unitateak kontuan hartu gabe.

Osakidetzak "negoziaziorako borondaterik azaldu ez" duela diote sindikatuek, eta horregatik egin dutela greba deia. "Kalitatezko osasun sistemaren alde" eta "langile zein baliabide gehiago" exijitzeko egingo dute greba. Helburua da sektoreko lan baldintzak negoziatzea. Osakidetzaren mahai sektorialaren %80 dute sindikatuek eta salatu nahi dute oso larria dela sektorearen egoera.

"Azken urteotan inbertsiorik apenas egin da, eta politikariek langileen eskaerei erreparatu beharrean publizitatearen eraginkortasunari ematen diote garrantzia. Beraz, sektoreko lan baldintzei ez zaie jaramonik egin azken urteotan. Pixkanaka lan baldintzak okerrera doaz eta horrek eragiten du lanaren kalitatea ere jaistea", diote greba deia egin duten sindikatuek.

**OSPITALEA ETA ANBULATORIOAK**
Oraindik zehatz ez badakite ere, egun horietan larrialdi zerbitzuak baino ez dituzte eskainiko osasun etxeetan. Ibarrean, Eskualde Ospitalean eta anbulatorioetan izango du eragina grebak lau egunotan.

Greba egunean baliteke kontzentrazioa egitea Osakidetzako langileek Donostialdean.

**OSPITALE BERRIA**
Bestalde, Eskualde Ospitalea berritzeko proiektua esku artean dutela, zenbait aldaketa egiten dihardute arduradunek. Jose Luis Angulo zuzendariak esan digunez, "hasierako asmoa zen eraikin zaharra berritzea eta honetaz gain, beste zati batean zerbitzu gehiago eskaintzea. Baina eraikin zaharra botatzea erabaki dutenez, proiektua moldatu beharra izan dugu".

Behin betiko proiektu zehatza gertu dutenean, ekainaren amaieran lehiaketara aterako dituzte ospitalea egiteko lanak. Ondoren, espero dute urte amaieran obrak hastea.

Ospitale berrian, besteak beste, Zaintza Bereziko Unitatea izango dutela aurreratu digu Jose Luis Angulo Debagoieneko Ospitaleko zuzendariak: "Horrelako unitateak eskualde ospitaleetan daude, baina arazoa larriagoa izanez gero, beste ospitale batzuetara bideratzen dira gaixoak; hala ere, oraindik zehazteke daukagu zein kasu diren horiek, eta adituekin batzarra egitekoak gara adosteko".

MAHAI SEKTORIALA

### Istiluak eta itxialdia lehen batzarrean

Osakidetzaren mahai sektorialaren aurtengo lehen bilera haserre giroan amaitu zen. Osakidetzak lan eskaintza publikoaren azterketa lehenetsi nahi zuen; ELA, ESK eta SATSE sindikatuek, ordea, aurtengo hitzarmen kolektiboa negoziatzea. Bilera gelan panfletoak bota zituzten eta oihuka hasi ziren hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren alde. Mahai sektorialaren bilkura eten ondoren, protesta gisa, Osakidetzaren egoitzan ziren langileek itxialdia ordu eta erdi luze iraun zuen itxialdia egin zuten. Osakidetzak goizean sindikatuei aurkeztu ezin izan zien proposamena arratsaldean hedabideen aurrean aurkeztu zuten.

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com



**INGURUMENA** > DEBA IBAIA GARBITZEKO PROIEKTUAK

# "Deba ibaian arrainak ikusi gurako nituzke sei urte barru"



DEBARROAN BISITARI Larrañaga sailburua eta Gonzalez ingeniaria. OIHANA ELORTZA

## Esther Larrañaga sailburuak hainbat egitasmo aurkeztu ditu Deba ibaia berreskuratzeko

## 102 milioi euroko inbertsioa egin du Jaurlaritzak, besteak beste, Mekolaldeko araztegirako

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Deba ibaia oso kaltetua dagoela esan zuen atzo, eguena, Esther Larrañaga Ingurumen sailburuak Mekolaldeko araztegian. Horregatik, eta ibaia berreskuratzeko asmoz, bi plan jarri ditu martxan bere departamentuak: araztegiak batetik, eta lur antolamendua bestetik. Deba garbi ikusi gura du sailburuak 2012rako, eta, hain zuzen ere, 102 milioi euroko inbertsioa egin dute hori lortzeko.

**ELORREGI, KUTSATUENA**

Esther Larrañaga sailburuak esan duenez, Elorregi da (San Prudentzio) Deba ibaiaren punturik kutsatuena. Hala ere, badaude gero eta garbiago dauden guneak ere. "Oñati ibaia eta Aretxabaletatik Arrasatera bitartekoa garbi daude", esan du departamentuko ingeniariak, Alberto Gonzalezek. Eta horri jarraituz, Bergara parea ere garbitu gura dute orain. Eta baita, noski, hemendik itsasorainoko tartea ere. Hala, lan horretan lagunduko du Mekolaldeko araztegiak.

**LANAK, EPE BARRUAN**

Bergarari, Antzuolari eta Elgetari emango die zerbitzua Mekolaldeko araztegiak. Joan den urteko irailean hasi zituzten lanak. Hiru metro altueran eta 24 eta 26 metroko diametroa duten lau depositu handi ari dira egiten, uraren zikinkeria handienak kenduko dituen beste ontzi erraldoi batez gain. Erreaktore biologiko bat ere egingo dute. Segundo bakoitzeko 120 litro ur sartuko dira araztegian, eta garbitu eta gero, berriro isuriko dute ibaira. Prozesu guztia kontrolatuko duten makinen jarraipena, berriz, lanokin batera eraberrituko duten Mekolaldeko dorrean egingo dute. Lanak ondo bidean doazela esan dute obretako arduradunek, eta 2007ko uztailerako bukatuko dituztela esan dute. Lanean, baina, urte bukaeran edo 2008 hasieran hasiko da. Bitarteko hilabete horietan probak egingo dituzte.

**PROIEKTUAK**

Deba ibaia berreskuratzeko helburuarekin, beste hainbat proiektu ere ditu martxan Ingurumen Sailak, Mekolaldeko araztegiaz gain. Horietako bat da, adibidez, Arrasateko Aramaio errekaren egoera. Aramaioko Santa Ageda zentrotik hasi eta Garagartza, Uribarri, Unibertsitate ingurua eta Otalora kale ingurua zeharkatu ostean, Debako kolektorearekin egiten du bat. Elgetako ur zikinak ere bildu gura dituzte, gero Mekolaldeko araztegian garbitzeko. Antzuolako errekaren proiektua da garrantzia duen beste bat.

**UHOLDERIK EZ GERTATZEKO**

Ibaiak berreskuratzeaz gain, baina, etorkizunean gerta daitezkeen uholdeak ez gertatzea da Jaurlaritzak egin dituen proiektuen beste helburua. Antzuolako errekako proiektuan, adibidez, hori ere izan dute kontuan, eta horregatik, errekari bigarren bide bat egitea erabaki dute. Plazaren atzeko aldetik, sei metroko zabalera duen beste bide bat egingo dute. Eurite gogorretan, ur asko egoten denean bakarrik egin du lan bide horrek. Ubide hori egin ostean, plaza erditik doan errekaren zati bat agerian utziko dute. Lau metro eta erdi izango du zati horrek zabaleran eta hiru zubi egingo dituzte etxebizitzetarako bidea errazteko. Oñatiko Zubillaga auzoan izaten dituzten uholdeak berriro ez gertatzeko, egun dagoen presa bat bota egingo dute. Dauden bi zubi ere kendu eta beste berri bat egingo dute. Arrasateko San Isidro zubiaren egoera ere indartu egingo dute, ur handiei hobeto eusteko. Proiektu berriak jasotzen du zubi berri bat egitea, zabaleran 12 metro izango dituena.

Baina Debarro guztian egingo dituzte obrak, besteak beste: Eibar eta Ermua artean, Ermua eta Mallabia artean, Soraluzen eta baita Mendaron ere.

**> DEBARROKO ARAZTEGIAK**

Bost araztegi egongo dira Debarroan: Epele (Arrasate), Mekolalde (Bergara), Apraitz (Elgoibar), Arronamendi (Deba) eta Mutriku. Debakoa eta Mutrikukoa martxan daude.

**> MEKOLALDE ETA EPELE**

Mekolaldekoa 2007aren bukaeran hasiko da lanean. Epelekoa Mekolaldekoa baino hiru bat aldiz handiagoa izango da. Lantegien urak ere garbituko ditu. Aurten hasiko dituzte lanak eta 2010erako bukatuko dituzte. Arrasateri, Oñatiri, Eskoriatzari eta Aretxabaletari emango die zerbitzua.

**> ARRAINAK**

Garbitutako guneetan arrainak bizi daitezke, eta Deba ibaiaren egoera horixe izatea gura dute.

Maiatzaren 15a: 087 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

**Sariak astero!**

Astelehenean, maiatzak 15, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

**086 zozketako saridunak**

**Sei gonbidapen EIBAR-VALLADOLID futbol partidurako (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Ramon Agiriano Eskibel (Eskoriatza)
- M. Karmen Agirreurreta Zeziaga (Arrasate)
- Jesus Agirre Isasmendi (Aretxabaleta)
- Kontxi Aldabe (Bergara)
- Xabier Altube Orueta (Oñati)
- Jesus Altzelai Irigoien (Antzuola)

**Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).**
- Eider Amondarain Aranaga (Arrasate)
- Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

**087 zozketako sariak**

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).



EIBAR-LLEIDA
futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.
(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio)

**Baldintzak**

- *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko: 902 36 38 51 09:00etatik 18:30era.
Harpidetza kuota: 24 euro 2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**HEZKUNTZA** > HUHEZI-KO DEKANO BERRIA

# Nekane Arratibel da HUHEZI fakultateko dekano berria

## Antzuolan bizi da eta uztailaren bukaeran hartuko du Jose Antonio Mendikuteren postua

**USOA AGIRRE** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Errektore Kontseiluak Nekane Arratibel lazkaotarra aukeratu du Jose Antonio Mendikute ordezkatzeko. Nekane Arratibel da aurten 30 urte bete dituen HUHEZIko dekano berria. Ikasturtea amaitu bitartean, Mendikuteren ondoan lan egingo du.

Nekane Arratibelek Psikologia ikasi zuen EHUn eta hantxe egin zuen doktore tesia ere, helduen euskalduntzearen inguruan. 2000ko urrian hasi zen HUHEZIko fakultatean irakasle lanetan eta hantxe jarraitzen du oraindik.

Nekanek 38 urte ditu. Lazkaokoa da berez, baina Antzuolan bizi da. Ezkonduta dago eta 7 urteko semea du.


Nekane Arratibel. GOIENKARIA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
nolako ikasketak, halako etorkizuna



GOI ESKOLA POLITEKNIKOA — Arrasate | Goierri
lehen zikloa — ikasmaila | ikasmaila
- Mekanikan Industri Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1., 2. eta 3.
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1.
- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1.
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1.
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1.
- Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1.
- Telematikan Ingeniaritza Teknikoa — 1., 2. eta 3. | 1.
bigarren zikloa
- Industri Ingeniaritza — 4. eta 5. | -
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza — 1. eta 2. | -
- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza — 1. eta 2. | -
- Informatikan Ingeniaritza — 4. eta 5. | -
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza — 4. eta 5. | -
ate irekiak:
ARRASATE:
> maiatzak 25, 2.zikloa
> ekainak 10, Biteri Ikastetxe Nagusia

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA — Oñati | Bidasoa
lehen zikloa — ikasmaila | ikasmaila
- Zuzendari Idazkaritza — 1., 2. eta 3.
- Enpresa Zientziatan Diplomatura. Ibilbideak: — | 1., 2. eta 3.
  - Nazioarteko Merkataritza
  - Enpresa Logistika eta Garraioa
ziklo luzea
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbideak: — 1., 2., 3., 4. eta 5.
  - Finantza Zuzendaritza
  - Merkataritza Zuzendaritza
  - Erakundeen Kudeaketa
bigarren zikloa
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbideak: — 3., 4. eta 5.
  - Finantza Zuzendaritza
  - Merkataritza Zuzendaritza
  - Erakundeen Kudeaketa
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbidea: — | 1. eta 2.
  - Enpresa Proiektuen Garapena
ate irekiak:
OÑATI:
maiatzak 25
BIDASOA:
maiatzak 18
maiatzak 24, 2.zikloa

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA — Eskoriatza
lehen zikloa
- Irakaslea. Haur Hezkuntza Espezialitatea
- Irakaslea. Hezkuntza Berezia Espezialitatea
- Irakaslea. Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea
- Irakaslea. Heziketa Fisikoa Espezialitatea
- Irakaslea. Entzumena eta Mintzaira Espezialitatea (2. diplomatura soilik)
- Irakaslea. Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura soilik)
ziklo luzea
- Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura
bigarren zikloa
- Psikopedagogian Lizentziatura. Ibilbideak:
  - Hizkuntzen Psikopedagogia. *On line eta aldika bertaratzekoa*
  - Esku-Hartze Psikopedagogia. *On line eta aldika bertaratzekoa*
- Giza Zientziak Lizentziatura. Ibilbideak:
  - Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta
  - Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari Aplikatuta
ate irekiak:
maiatzak 18

inskripzio epea zabalik
943 71 21 85
www.mondragon.edu

**kontsumoa**


Olioaren eta ardo beltzaren prezioak dira gehien igo direnak. GOIENKARIA

## Oliba olioaren prezioa %44 igo da urtebetean; ardo beltzarena %13

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak aditzera eman ditu jakien prezioen gorabeherak. Eta datuen arabera, apirilean %44 igo da oliba olioaren prezioa, iazko hilabete bereko prezioekin alderatuta. Olioaz gain, aipatzekoa da urteko ardo beltzaren prezioak ere gora egin duela (%13,10). Ontziratutako produktuen artean behera egin zuten arrozak (%4,07) eta muskuiluak eskabetxean (%3,70). Bestalde, urtebetean gehien garestitu diren produktu freskoen artean daude: antxoak (%21,7); izokina (%16,70); txirlak (% 10,6); amuarraina (%9,99); azenarioak (% 9,96); txekor haragia (% 8,20) eta itsas oilarrak (%7,20). Behera egin dute, ordea, letxugek (%16,30); madari mota batzuek (%15,07); entsaladarako tomateek (%12,60); oilasko haragiak (%12,40); eta sagarrek (%11,60).



### Autoen produkzioa %5,5 jaitsi da aurten Espainian

Urteko lehen hiruhilekoan autoen produkzioak %5,5 egin du gora, iazko epe berarekin alderatuta. Hala ere, datozen hilabeteotan berriz jaitsiko dela uste dute adituek. Salmentak, ordea, jaitsi egin dira. Iazko apirilarekin konparatuta, %10,5 gutxiago izan da saldutako autoen ehunekoa.



### Ogia ezinbestekoa da ikasteko gaitasun hobea lortzeko

Ikerketa baten arabera, ogiaren kontsumoa eta ikasteko ahalmena lotuta daude. Adituen esanetan, ohikoa baino maila intelektual altuagoa duten ikasleek ogi gehiago jaten dute. Beraz, ogia, bere osaeragatik, ezinbesteko jatekoa da osasun maila eta buruko gaitasun hobezina lortzeko.

### Kostu baxuko hegazkin linea sortuko du Iberiak

Iberiak kostu baxuko linea sortuko du. Hegazkin konpainiak bat egingo du ACS, Iberostar, Quercus eta Nefinsarekin hegaldi merkeen merkatuan lehiatzeko. Bartzelonako El Prat aireportutik jardungo du urritik aurrera eta hegazkin aldaketarik gabeko hegaldiak izango dira.

### Arrain txikien salmenta kontrolatuko dute

Espainiako Gobernuak kontrola areagotuko du tamaina txikiko arrainak sal ez daitezen. Bide batez, arrain freskoen etiketatzea ere kontrolatuko du. Horrela, arautakoa baino tamaina txikiagoa duten arrainak saltzea debekatu nahi dute; baita erosleak horrelakoak ez erosteko sentsibilizatu.

## gure artekoak

**GARAIA** > Ostalaritza eta zerbitzuen sektoreko bezeroei mahaiko tresneria, altzariak eta higienerako produktuak eskaintzen dizkien enpresa da Garaia. Bergaran dute egoitza eta hiru langilek dihardute beharrean.

Patxi de Andres

# "Garrantzi handiagoa ematen zaio ostalaritzan baxera finari"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

**Garaia Ostalaritza Horniketa enpresa ostalaritza eta zerbitzuen sektorean jardundako bi bazkidek osatzen dute: Arrasateko Patxi de Andresek eta Zarauzko Juan Antonio Zumeagak. Eurekin dihardu lanean Mari Carmen Gonzalez bergararrak ere.**



Mari Carmen Gonzalez eta Patxi De Andres, Martoko kaleko erakusketan. I.A.

**Noiz eta nolatan hasi zineten?**

Nire bazkidea eta biok aurrez jardundakoak ginen ostalaritza gaiak saltzen; beraz, erabaki genuen gure enpresa sortzea orain dela bi urte. Lokala Bergaran utzi ziguten lagun batzuek eta horregatik kokatu ginen bertan, baina gaur egun autobidearekin komunikazio egokia dago.

**Zer eskaintzen duzue?**

Janaria eta edaria izan ezik ostalaritzarako gainerako material guztia saltzen dugu: ontzitería, garbiketarako produktuak, lanerako arropa, altzariak... Eguneroko edalontziak saltzen dira gehien, baina orain baxera finari ematen diogu garrantzia, jendeak itxura estimatzen baitu.

**Zein dira zuen bezeroak?**

Hotelak, jatetxeak, tabernak, ikastetxeak, ospitaleak... Gipuzkoa ia osoan saltzen dugu, guztira 700 bezero dauzkagu.

**FITXA TEKNIKOA**

**> ERAKUSKETA**
Martoko kalean ikusgai dauzkate produktuak, besteak beste sukaldariek materiala ezagutzeko.

**> BEZEROAK**
"Maila ertain eta altuko ostalaritzara iritsi nahi dugu; gure bezero dira: Aiten Etxe, Kaia, Etxeberri...".

**> BLOGA**
*www.goiena.net/blogak/garaia* eta *www.garaiatts.com* helbideetan daukagu enpresaren gaineko informazioa.

**Bezeroekin harreman zuzena izatea da zuen arrakastaren sekretua?**

Ia astero joaten gara gure bezeroak bisitatzera. Gainera, gustuko dute jakitea edozer gauza behar dutenean bertan gaudela. Bezeroekin harreman estua izatea gustuko dugu.

**Produktu esklusiboak saltzen dituzue?**

Gure esku dago inguru honetan zenbait marka saltzeko ardura, baina toki guztietara iritsi ezin garenez, beste batzuek ere saltzen dituzte; baxerak, esaterako.

## etxeko leihotik



**Eneko Azkarate** > GOIENKARIAko zuzendaria

# Politikoak bisitari Debagoieneko zuloan

Bisitan izan ditugu politikoak. Epele-Kaskonategi errepide zatiaren zabaltze lanak inauguratu ditu Txabarri diputatu nagusiak; Esther Larrañaga Ingurumen sailburua Bergarako Mekolaldeko ur araztegiko lanak bisitatzera etorri da; Madrazo Etxebizitza sailburua Bergarako Urteaga kaleko etxebizitza sozialen lehenengo harria ipini du; azkenik, beste Esther Larrañaga batek, arrasatearrak ez besteak (Gizarte Politikarako diputatuak), Gureak taldeak Arrasaten duen eguneko zentroa inauguratu du. Bisita asko bi egunen bueltan. Bertako kazetariok aztoratuta eduki gaituzte harantz eta honantz.

Onak dira tokian tokikoak gainditzen dituzten erakunde publikoetako ordezkarien bisitak. Jeneralean inaugurazioetarako etorri ohi dira eta horrek erakusten du ibarra abian dela, gauzak egiten dihardutela. Gainera, oraingo diputatu nagusia sarritan etortzen da Debagoienera eta hori eskertzekoa da, aurrekoak ez gintuen-eta hainbeste bisitatzen. Gipuzkoa hiriaren kontuarekin sinistuta ei dago Txabarri eta zerbitzuak banatu nahi ditu, modu orekatuan, lurraldean, Odon haserretu arren. Ala emaztea antzuolarra duelako izango da?

**"Aurreko diputatu nagusiak ez gintuen oraingoak beste bisitatzen"**

**> Agorrosin** eta Mojategi kirolguneak; Errege Mintegiko auditorioa eta Mondragoeko kultur etxe berria; tranbia; ibarreko bidegorria; ospitale berria... inaugurantzera noiz etorriko dira? Datozela laster!

**> Obrak nonahi** eta Arrasate hankaz gora: autobidea, saihesbidea, kolektorea... Bergaran ere etxeak egin eta egin. Eta, halere, inoiz baino kartel gehiago leihoetan, laranja kolore bizikoak: *Salgai*.

## begi-bistan



**Arbolak eta lorategiak, berde-berde (Bergara)**
**2006/05/10**

**Argazkia:** Xabier Moreno.
**Testua:** Edu Mendibil.

Iparragirre eta Ramon Maria Lili kaleen arteko pasealekua ederra dago egunotan, berde-berde. Hala ere, herritar batzuk kexu dira, txakur asko eramaten dituztelako bertara egitekoak egitera.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Iñaki Jauregialtzo**
ESKULTOREA

Artisau oñatiarrak ikusgai izango ditu keramikarekin egindako zenbait lan domekara bitartean Urretxun. Juan de Lizarazu erakustokian ipini ditu. Zapatuan 17:30etik 29:30era bisitatu ahal izango da; domekan baita goizez ere, 12:00etatik 14:00etara.



**Miren Urkiola**
IRRATI ESATARIA

Oñati Irratiak 15 urte bete ditu. 1991ko maiatzaren 11n hasi zuen emisioa San Migel Txiki jaietan. Miren Urkiolak hasieratik dihardu esatari lanetan bertan. Izan da berrikuntzarik irratian; orain ordenagailu bidez emititzen dute eta egoitza berria dute azken sei urtetan.



**Unai Arantzabal**
TXIRRINDULARIA

Eguaztenean hasi zen Bidasoako Txirrindulari Itzulia. Hendaian amaitu zen lehen etapan zortzigarren tokian sailkatu zen Azpiru taldeko Unai Arantzabal txirrindulari bergararra; lehen gipuzkoarra izan zen bera. Itzulia domekan amaituko da Irunen.

Ignasi Vila Donostian jaio zen, baina urteak daramatza Katalunian. Gironako Unibertsitatean egiten du lan, Hezkuntza Zientzien Fakultatean, eta katedraduna da Psikologia Ebolutiboan eta Hezkuntzan. Europako psikolinguistarik ezagunenetakoa da, eta, beharbada, munduko aditurik ospetsuenetakoa eskola elebitasunaren inguruan. Gai horrek ekarri du HUHEZIra.

**Ignasi Vila** > Psikolinguista

# "Ez da egia ikasle etorkinen kopuruak hezkuntza kalitatea jaisten duenik"

OIHANA ELORTZA > ESKORIATZA

**Lehen, katalana eta espainola entzuten ei ziren Katalunian eta gaur egun, berriz, 200 hizkuntzatik gora. Fenomeno horrek erakarrita, etorkinak eta eleaniztasuna ikertu ditu urte askoan hezkuntza elebidunak aztertzen ari den Ignasi Vila linguistak. Euren ama-hizkuntzaz gain, katalana eta espainola ere ikasi eta hitz egiten erakutsiko duen hezkuntza sistema nola antolatu aztertzen dabil aspaldian.**



HUHEZIko fakultatean izan da astean Ignasi Vila katalana hitzaldiak egiten. O.E.

**Etxean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten duten umeengan jarri zenuen arreta. Zertaz jabetu zinen?**

Ume guztiak berdin jabetzen dira hizkuntzaz, baina prozesua amaitzean batzuek bi hizkuntza dakizkite eta beste batzuek bakarra. Hori, duda barik, abantaila da, eta asko gatoz bat horretan.

**XX. mendean ere bizi izan zuten etorkinen fenomenoa. Nolakoa da oraingoa ordukoarekin konparatuz?**

Orduko eta oraingo ezaugarriak erabat ezberdinak dira. Globalizazioa ez da bakarrik finantza-kapitalaren, diruaren, globalizazioa, baita pertsonen mugikortasunarena ere. Egun, munduko edozein bazterretako edonork pentsa dezake Euskal Herrira edo Kataluniara etortzea, adibidez. Horregatik, immigrazioa ez da berdin bizi izaten toki guztietan. Bartzelonan, adibidez, munduko hiri guztiak daude ordezkatuta, eta hortik kalkulatu zenbat hizkuntza entzun daitezkeen... Egun, guztira 35 hizkuntza nagusi hitz egiten ditu biztanleen kopuru handi batek.

**Zein da hemengo egoera?**

Euskal Herrian oraindik oso urruti zaudete Levanten, Katalunian edo Madrilen bizi duten egoeratik, eta Extremadura, Gaztela eta Leon, Galizia eta Asturias, esaterako, askoz urrutiago daude. Horrek ez du esan gura, ordea, etorkizuneko egoera oraingoaren berdina izango denik.

Katalunia eta Madrilgo egoerak ere ez dira berdinak; Madrilen etorkin gehiago izango dira, akaso, baina Katalunian aniztasuna handiagoa da.

**Nola irentsi du hezkuntza sistemak fenomeno hori? Nolakoa da digestioa?**

Digestioa txarra da. Baina ez hezkuntza sistemaren, irakasleen edo administrazio politikaren erruagatik; Espainiako Estatuan oso azkar ari da gertatzen etorkinen fenomenoa, eta hori ez da horrela izan beste herrietan. Ikastetxe batzuek, adibidez, bizpahiru ikasle etorkin zituzten duela bospasei urte, eta egun, ikasleen %80 dira etorkinak. Nahiz eta administrazioaren edo sistemaren laguntza izan, digestio intelektuala egin behar da, eta hori zaila da, denbora eskatzen du horrek.

**Nola prestatu behar dute eragileek?**

Gela batzuetan zazpi edo zortzi hizkuntza entzuten dira ikasleen artean, eta hori ez da inoiz gertatu orain arte. Ez dago aurrekaririk, fenomeno berria da. Katalunian, adibidez, LIC izeneko programa bat dago martxan; haren helburua da irakasleria prestatzea, ikastetxeetan harrera gelak prestatzea eta irakasleei aholkulari adituak eskaintzea sortzen zaizkien arazoak konpontzeko, adibidez. Gu ere hasten ari gara oraindik.

ETORKINAK

**"Euskal Herria oso urruti dago oraindik Kataluniako eta Madrilgo egoeretatik"**

HIZKUNTZA POLITIKA

**"Arazoa da zer eta nola egin behar den bertako hizkuntzak irauteko besteekin batera"**

HEZKUNTZA SISTEMA

**"Etorkinen digestioa hezkuntzan txarra da, baina ez sistemagatik, azkartasunagatik baizik"**

**Katalunia da besteek jarraitu behar duten eredua?**

Ez nago hain ziur. Immigrazioaren fenomenoari buruz hezkuntza aldetik begiratuz gero, eta zentzu orokorrean hitz eginda, esan daiteke badaudela irizpide nagusi batzuk toki guztietan aplika daitezkeenak, baina herri bakoitzak bere egoera propioa bizi du. Esate baterako, ez da gauza bera etorkinen gehiengoak jatorri hispanoa izatea edo hizkuntza aldetik oso ezberdinak diren herrietatik etorritakoak izatea. Beraz, tokian tokiko estrategiak erabili behar dira, irizpideak gaindituta.

**Ze aberastasun du egoera berri horrek?**

Europako kontseiluak bultzatzen du pertsonen eskumen eleanitza. Egun bizi garen munduan hizkuntzen aniztasuna gero eta handiagoa da baina, era berean, babestu eta defendatu behar da nork bere hizkuntzan hitz egiteko duen eskubidea; behintzat, hainbat testuingurutan: etxe barruan edo eskolan, adibidez. Beraz, egungo hizkuntza aniztasunak ematen duen aberastasuna da, Europar Batasuna osatzen dugun herritarrok dugun aukera eskumen eleanitz hori garatzeko.

Euskal Herriko ikastetxeetako irakasle guztiek, hasi haurtzaindegietatik eta unibertsitate mailaraino, ez dute beti Euskal Herrian lan egingo, egun dagoen mugikortasun fenomenoari begiratzen badiogu. Beraz, gauza izan behar dute egoera eta aukera eleanitzak garatzeko.

**Eleaniztasunak arriskuan jarriko ditu bertako hizkuntzak, euskara esaterako?**

Beti egon dira arriskuan eta egun ere badaude. Beraz, arazoa ez da arriskuan egongo diren edo ez; arazoa da nolako hizkuntza politika egingo duten hizkuntza horiek irauteko, besteekin batera. Hala ere, erabiliak diren beste hizkuntza batzuk ere arriskuan daude: Frantziak, Ingalaterrak, AEBek eta beste herrialde askok hizkuntza azterketa egiten dute nazionalizatzeko, eta hori ez da kasualitatea.

**Etorkinen inguruan, ikusi duzu ikastetxeen arteko lehia? Ze jarrera hartu dute batzuek eta besteek?**

Uste dut ikastetxeek ez dutela elkarren aurka lehiatzen. Uste dut arazoa beste bat dela: badago zabalduta dagoen uste bat, batez ere pertsona autoktonoen artean, esaten duena hezkuntzaren kalitatea jaitsi egiten dela ikasleen kopuru jakin bat baino gehiago etorkinak diren ikastetxeetan. Baina hori ez da ikastetxeen arteko borroka, hori faltsua dela erakustea da kontua. Ezin daitekeena egin da uste hori zabaltzen utzi eta ezer egin ez hezkuntza sistemaren, unibertsitatearen, administrazioaren, sindikatuen eta beste eragile batzuen aldetik. Adibide asko daude uste hori faltsua dela ikusteko. Horietako bat da: Finlandia eta Kanada eredutzat hartzen dituzte askotan. Kanadako biztanleen erdia, adibidez, atzerritarra da eta 150 hizkuntza dituzte hezkuntza sistemaren barruan.



zabalik

Inazio Arregi

# Ortura noa

Jarri nahi duzuen musika, eta izenburu hori kantatuaz joango gara jubilatutakoan Arrasateko Udalak Garagartzan jarri behar dituen ortu ekologikoetara. Onartzen bagaituzte, noski, eta bizi baldin bagara, ze martxa honetan…

Larria omen da egoera. Mundu honi hainbeste aldrebeskeria egin dizkiogu eskuetatik joan zaigula. Optimistenek petrolioaren eta deribatuen bizitza laburraz hitz egiten digute. Ez hori bakarrik, gure bizitza ereduari iraungitze data ere jarri diote. Beste batzuek, berriz, epe laburrera gertatuko den kataklismo bat iragartzen digute 2050. urte ingururako. 500 milioi lagun baino ez da libratuko.

Arrasateko Udalak esperantzarik ez du erabat galdu eta lehenengoei egin die kasu; Arrasateko jasangarritasun plana egiteari ekin dio. Badaezpada 2020ra arte, ez dadin gertatu bigarrenek arrazoia izan eta oposizioko norbaitek epai bidean jarri dirua alferrik xahutzearren. Ideia bikaina eta txalotzekoa benetan. Eragile asko sartu dira tartean eta denon artean zerbait asmatuko dutelakoan nago.

Aurrekoa indartzeko asmoz edo, ortu ekologikoen eskaintza egin die hiritarrei; jubilatu gazteei, pentsatu nik. Ze haraino tomateak landa eta garastatzera joateko denbora beharko da. Eta garraiobideak? Autoa? Ea ekologiaren alde egindako guztiak garraioan ezabatu behar ditugun! Tomate garbiak jateko CO isurketak gehitu behar. Alajaina! Autoarenak eta ortuko makinenak gainera.

**"Ortu ekologikoen eskaintza egin die hiritarrei; jubilatu gazteei, pentsatu dut nik"**

**"Hara joan nahi duenak erabil ditzala kutsatzen ez duten garraiobideak"**

Irtenbide du arazoak. Hara joan nahi duenak kutsatzen ez duten garraiobideak erabil ditzala: txirringa, astoa (honek gainera simaurra eskainiko dio), edo hankak. Seguru, tomateak askoz gozoagoak ateratzen zaizkiola. Ortura noa kantatuaz joan Garagartzara, eta ortutik nator kantatuaz, bizkarra oker-oker eginda, berriz kalera. Baina jubilatu arte itxoin behar. Luze egin ez dakigun, Arrasateko Udaleko webguneak erabakia urte batez atzeratu du. Hori ere eskertzekoa.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## OÑATITIK ZUBILLAGARA ARTEKO ERREPIDEA

**Bere burua "aspertuta dagoen Oñatiar bat" bezala aurkeztu duen irakurle batek zera galdetu digu: Oñati eta Zubillaga arteko bidean lanak hasi zituzten aspaldi eta Magdalena gasolindegi ondoko zubia konpondu zutenetik aste asko igaro dira langileak agertu ere egin gabe, eta bitartean bidea era probisionalean utzi dute (marra horiz margotuta, seinalez beteta...).**

Oscar Rekalde Gipuzkoako Foru Aldundiko prentsa arduradunak esan digu lan horiek bere bidetik doazela, hau da, epeen barruan egiten dabiltzala. Akaso, edozein obratan gerta daitekeen gorabeheraren bat gerta zitekeela, baina bestelakoan normal egiten dihardutela eta aurki amaituko dituztela.

## TXAKURREN ZAUNKAK

**Arrasateko Zarugalde kaleko bi lagunek deitu digute, kexu hau dela-eta: antza, gauero-gauero, txakur bat zaunka hasten da Zarugalde kalearen ostean dauden ortuetan (Gernika Zumardia), eta hainbat ordu ibiltzen ei da zaunka. "Hasten da 23:00ak aldera, eta ez da isiltzen, eta hori jasangaitza da ondoko bizilagunendako", dioskute.**

Arrasteko udaltzainengana jo dugu eta zera erantzun digute: esan digutenez, inguru horretan jaso dituzte lehenago beste kexu batzuk txakurren zaunkak direla eta ez direla, nahiz eta "ezin ziurta dezakegu txakur berbera den edo ez". Kontuak kontu, udaltzainek eskatzen diete bizilagunei salaketa formala egiteko udaltzainetan edo Udaleko zerbitzuetan. Behin salaketa eginda, udaltzainak hasiko dira ikerketa egiten arazoa konpontzeko.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## AGORROSINGO IGERILEKUAK

**"Noiz irekiko dituzte Bergarako igerilekuak?" galdetzen du irakurle batek.**

Kanpotik behinik behin lanak oso aurreratuta ikusi dituela dio irakurle honek eta, horregatik, udarako-edo zabalduko dituzten galdetzen du. Erantzunaren bila jo dugu orain dela aste batzuk GOIENKARIAn Agorrosingo igerilekuen gainean argitaratutako artikulura eta baita Bergarako Udalak argitaratzen duen buletinera ere. GOIENKARIAn kirol zinegotziak zioen irailaren 16an, San Martin egunean, inauguratuko dituztela igerileku estali berriak. Hortaz, udaren hondarrean zabalduko dituzte. Bigarren fase batean, kanpoko igerilekuak egiteko lanak hasiko dituzte.

marrazkiz

Unai Busturia



blog

# Euskal Herria atzerritarren ahotan

**Jose Felix Diaz de Tuesta**
www.goiena.net/blogak/argitan

Duela bi mila urte ingurukoak dira Euskal Herriari buruz ezagutzen ditugun lehenengo testigantza idatziak. Erromako geografo eta historialariek idatzi zituzten. Geroztik ezin konta ahala testu idatzi eta argitaratu da gure herriari buruz, XIX. mendetik hona, batez ere. Horietako batzuk bildu eta argitaratuko ditut laster liburu batean. Lagin txiki bat, jakina. Izan ere, ezinezkoa litzateke Euskal Herriari buruz idatzi den guztia honelako liburu batean jasotzea. Hortaz, bada, atzerritarrek idatzitako testuak aztertzera mugatu naiz. Are gehiago, atzerritarren testuetatik Euskal Herriaren irudi baikorra jasotzen dutenak baino ez ditut erabili lan hau osatzeko. Horietatik zati batzuk aukeratu ditut eta aipuen antologia moduko bat osatu.

Zalantzan egon naiz aipuok liburu moduan argitaratu edo weg gune bat sortu. Azkenean, liburu euskarria aukeratu dut, oraindik ere testuak irakurtzeko egokiagoa iruditzen baitzait liburua. Beharbada, geroago, hemendik hilabete batzuetara sarean jarriko dut. Baina oraingoz liburua baino ez dut kaleratuko.

Liburuaren izenburuarekin ere izan ditut zalantzak. Garbi dago Euskal Herria dela liburuaren ardatza eta gaia. Liburuan jasotako autore guztiak atzerritarrak ote diren ez dakit, ordea. Hainbat oso gertukoak ditugu, etxekoak ia. Bestalde, garbi dago testuak erabili

plazara

**Demokrazia parte-hartzailearen, hau da, herritarren parte-hartzearen, gainean dihardu egileak. "Gatazkaren konponbidea euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzean datza", dio. Eta politika egiterakoan, beste eredu bat posible dela dio: "Debagoiena ezkerretik eraikitzea posible eta beharrezkoa da, eredu parte-hartzailea, non instituzioak herritarren zerbitzura arituko diren, ezinbestekoa da".**

Aittor Arantzabal *

# Herritarren parte-hartzea bultzatzen

Ezkertiar izaera duen eragile politiko abertzale batentzat ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea bultzatzea, bermatzea eta aintzat hartzea. Herritarren Batasuna osatzen dugunontzako ezinbesteko premisa da demokrazia parte-hartzailea eguneroko borrokan txertatzea.

Herritarren nahia, hitza eta erabakia errespetatzea eta aurrera eramatea dugu xedea, Debagoienan, Gipuzkoan eta Euskal Herri osoan. Bazterketa eta inposiziorik gabeko markoa egituratzea nahi dugu. Marko demokratikoa eraikitzea da abian jartzera doan prozesu demokratikoaren helburua. Gatazkaren konponbidea euskal herritarren hitza eta erabakia errespetatzean datza. Mahaia osatzea lehentasunezko kontua da guretzat, eta aurre akordio on bat lortzeko lanean dihardugu. Oinarri sendoak dituen prozesu demokratikoa abian jartzea oso garrantzitsua da; izan ere, honek ahalbidetu dezakeelako akordio ona sinatzen dela. Azkenik, eta herritarren onespenarekin, herri kontsultaren bitartez, Madrileko eta Pariseko Gobernuei hemen, Euskal Herrian, eta euskal herritarrok erabakitakoa errespetatzea dagokie soilik. Ez dugu inongo *zepillatzerik* onartuko.

Baina, zein da herritarren papera? Nola parte hartu dezakegu? Herritarren aktibazioa ezinbestekoa izango da, bai gatazkaren konponbidean, bai Euskal Herria ezkerretik eraikitzen, bai eguneroko bizitza soziopolitikoan.

Baina Nazio izaera duen makropolitikaz herrietara, eskualdera, jaitsiaz baditugu hamaika eredu, adibide eta gainditu beharreko inposizio ugari. Gure ibarreko milaka herritarrek eskubide zibil eta politiken urraketa jasaten du. Apartheid edo isolamendu politikoaren aferarekin 21 zinegotzien jarlekuak ukatu, lapurtu eta bahitu dizkigute. 2003ko hauteskundetan herritarren hitza, erabakia eta bozka ez zuten errespetatu, eta egun, 3. urtemugara hurbiltzen ari garen honetan ere lapurreta ariketa honek indarrean dirau.



MIKEL ARROIABE

Ia eskualdeko herri guztietan inposaketaren adibide desberdinak ezagutzen ditugun. AHTren akordioa sinatu berri dute Gasteizko Jaurlaritzak eta Madrileko Gobernuak. Ibar honetan zein herritarri galdetu diote honen inguruko iritzia? Non eztabaidatu da? Jadanik ez omen da eztabaidatzeko unea. 19 urte igaro dira eztabaida ukatzen. Soilik instituzioen artekoa izan da eta negozioari begira, finantzaketaren inguruan zegoen desadostasunari irtenbidea bilatu diote kupoari egingo zaion kenketaren bitartez.

**"Herritarren Batasuna osatzen dugunontzako ezinbesteko premisa demokrazia parte-hartzailea eguneroko borrokan txertatzea da"**

**"Eredu berri bat posible da, Debagoiena ezkerretik eraikitzea beharrezkoa da, eredu parte-hartzailea"**

94ko Interbentzio Gune Partehartzaileetako esperientzia gogoratuz, Eibar-Gasteiz autopistaren inguruko "herritarren arteko eztabaidan" garbi geldítu zen: herritarrei nahikoa informazioa eman, eta eztabaidatu ostean, hitza eta erabakia ematen zaienean, Instituzioek bultzatzen duten eredu neoliberal atzerakoia bertan behera uzteko arrazoia nagusitzen da.

Badaude inposaketaren adibide gehiago: Arrasaten, etxebizitzen gaia…; Bergaran, Zabalotegiko kalea, zinea…; Oñatin, alkate berriaren izendapena; Antzuolan, plenoak goizez…

Eredu berri bat posible da, Debagoiena ezkerretik eraikitzea beharrezkoa da, eredu parte-hartzailea non instituzioak herritarren zerbitzura arituko diren, ezinbestekoa da. Gure helburu estrategikoa Euskal Herria independente, sozialista eta euskalduna da, horretarako nazio eraikuntza eta eraldaketa soziala dugu estrategia eta egunero hauek edukiz jantziz lan eskerga egiten dugu gatazkaren konponbidean, Euskal Herria ezkerretik eraikitzen. Beraz, aldaketa politikoaren garaia da, eta norabide honetan Ezker Abertzalearen konpromisoa berresten dugu.

* Aittor Arantzabal Batasunako mahaikidea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Irakurletzat daukazu zeure burua?

| | |
|---|---|
| BAI | %75 |
| EZ | %25 |

**> ERLAXATU EGITEN NAU**
Gustatzen zait irakurtzea, erlaxatu egiten nau. Gainera, telebistako programa gatz bako kutreek sortzen didaten asperpenari alternatiba ona dira liburuak.
**Billy**

**> ARIKETA INTELEKTUALA**
Hitzak pilatuz artea, protesta, kritika, beldurrak, emozioak, harrotasuna, maitasuna, amorrua, lilura, tristura, poza senti dezakegula konturatzen gara. Hizkuntza sortzen dugu; mundu berriak sortzen ditugu. Ametsetan jarraitzeko aukera ematen digu.
**Irakurle bat**

**> NOIZ IRAKURRI?**
Irakurri? Noiz irakurri, baina? (...) Umeak bainatu eta afaltzen eman (afaria gertatu ostean) eta gero ohera; oheratu aurretik, ordea, liburua irakurri umeei. Orduan irakurtzen dut, bestela ezer ez. Udan bai, apur bat.
**Jotajota**

**DATORREN ASTEKO GALDERA:**
**Ona izango da lan erreformaren lege berria?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

ditudala eta ez ahozko adierazpenak. Alabaina, “ahotan” aukeratu dut. Hortaz, bada, Euskal Herria atzerritarren ahotan, horixe izango da liburuaren izenburua.

## EAren zalantzak

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

Duela hiru hilabete EAko zuzendaritzan EAJrekin koalizioan gehiago ez joateko iritzia nagusi zela argitaratu genuenetik ezer gutxi aldatu da, Begoña Erraztiren adierazpen batzuek gaia berriro haizatu duten arren.

EAJrengandik bereizita aritzeko azkenaldiko ildoarekin oso pozik bide dago EAko sektore nagusia, eta zalantzarik ez dauka hurrengo hauteskundeetan Araban, Bizkaian eta Nafarroan egin beharrekoaz: bakarrik aurkeztu.

Gaur gaurkoz, zalantza bakarra erabakia hartzeko moduari buruzkoa omen da: alderdiaren kongresua udazken honetan egin eta bertan erabaki, edo kongresua hauteskunde osterako utzi eta batzar arrunt baten bidez egin. Zergatik zalantza? Aurreneko aukerari arriskatuegi irizten diote batzuek, apustua gaizki atereaz gero atzera egitea zaildu egingo lukeela kongresua egin berria eta, beraz, zuzendaritza aukeratu berria eta txosten estrategikoa onartu berria edukitzeak.

Beste aukera zuhurragoa litzateke: bakarrik joan baina, kongresuko erabaki estrategikoak, hauteskundeen emaitzak jakinda hartu.

koplak

Irati Agirreazaldegi

## Liga amaieran baloia bueltaka

Gol, falta, txartel eta penalti
amaitzear dago liga,
nahiago nuke ostikoz jota
denak galduko balira.

Salbatu dira jaitsieratik
Athletic eta Reala,
gu futbolaren gaitzetik ere
norbaitek libra gaitzala.

Baina oraindik kolokan dago
Gasteiz aldean Alaves,
Realak lagun egin ezean
nork emango dio babes.

Entrenatzaile ta zuzendari
errege dugu Piterman,
baloiarekin ez ezik beste
guztiekin dabil teman.

Sadar ertzetik begiratuta
zeinen gertu den Europa,
Nafarroako futbol taldea
osasuntsua dago ta.

Nahiz eta askok gustuko duten
nik diot buka dadila,
baina paretik zail da kentzea
baloiaren borobila.

## PNVri bost axola oinezkoak!

**Joan Antonio Iturbe, Patxi Olabarria, Andoni Azkargorta**
(Antzuolako Gertu gae)
Antzuola

Antzuolatik Bergararako errepidea 3 urtez itxita, herritarrak joan-etorri bakoitzean 7 km gehiago eginaz. Diputazioak izugarrizko dirutza publikoa gastatu du, mendiaren malda egonkortuz errepideko segurtasuna ziurtatzeko. Hori bai, nahiz eta Antzuolako Udalean sarritan eskatu, detaile txiki bat pasatu egin zaie: 40-80 metrotan, oinezkoentzako inongo bide bazter egokitu edo pasealekurik kontuan izatea.

Debagoienean egindako azpiegiturei propaganda egiteko (AHT barne) ez da diru publikorik falta, baina oinezkoek "Eskusarten" bizitza jokatu beharko dute automobila ez erabiltzeagatik.

Oinezkoen pasabidea orain!

## Ines Osinagari, eskerrona

**Inaxio Garro** (Debagoieneko II. Trikitixa Egunaren Talde Antolatzailearen izenean) > Debagoiena

Dagoeneko astebete pasatu da Aretxabaletan Debagoieneko II. Trikitixa Eguna ospatu genuenetik. Duda barik, larunbatekoa izan zen egunik emankorrena eta distiratsuena, programa bikain borobildu zuena. Goizeko 11etan hasi eta gaueko 12ak arte trikiti-maratoiaz gozatzeko aukera izan genuen.

Izan ere, Debagoieneko trikiti eskola guztietatik etorritako 300 trikitilari eta pandero-jole gaztek, txalapartariek, Trikizio musika taldeak eta Kepa Junkerak luxuzko eguna eskaini ziguten. Eguraldia ere txukun portatu zen. Sikiera, euriak erruki izan zuen, bildutakoon mesederako. Aldez aurretik, ostegun eta ostiralean, hain zuzen, Joseba Tapiak, Carles Belda trikitilari katalanak eta The Solanos taldeak beren ekarpena egina zuten programa barruan.

Batzuek zein besteek hamaika une eta oroitzapen goxo utzi dizkigute. Baina norberari berea zor zaionez, letra larriz azpimarratu nahi dugu hau guztiau diseinatzen, lotzen eta bideratzen jardun duen Ines Osinaga, Aretxabaletako trikitixa irakasle arrasatearra. Inguruan beso eta zango lagungarriak izan baditu ere, bera izen da Trikitixa Egunaren buru eta motorra. Gaueko ordu txikietan ere makina bat kontu bidali digu posta elektroniko bidez (honen aurrekontua, horren informazioa edo beste haren zirriborroa), sekretutxo hori kontatzeko lizentzia hartuta. Bere barrenak ondo hustu ditu azken hilabete hauetan. Gertutik ikusi ahal izan dugu. Trikitixak bezain hauspo sendoak ditu.

Hala ere, lerro hauen bitartez adierazi nahi diogun eskerrona egunez egun gure seme-alabekiko erakusten duen jarreran du oinarri. Bere gaztetasunari darion freskotasunak eta bere aurpegiko irribarre etengabeak gure etxeko gazteen bihotzak irabazi eta bereganatu ditu. Jokabide eta gizatasun maitagarria erakutsiz, ilusioa transmititu die. Mila esker guztiagatik. Ines, bejondeizula!

## Gipuzkoako futbolaren batzordea? Ez dut tutik ulertzen

**Iñaki Ugarteburu**
Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari nagusia
Donostia

Joan den asteburuan hiru eskutitz oparitu zizkiguten hainbat egunkaritara zuzendariari bidalitako eskutitzen sailean, Fernando Tapia diputatuaren eta neure aurka eraso eginez, eta baieztapen horiei erantzunez zenbait zehaztapen egin nahi nituzke.

Gure eredua inposatzea leporatzen digute eta guk, ordea, legealdi osoa daramagu negoziatzen eta, gainera, eskola kirolaren dekretu berrian eta Real Sociedad elkartearekin ditugun aurre-akordioetan futbolak aspaldidanik izan dituen hainbat eskakizun jaso ditugu, besteak beste, oinarrizko futbol eskolak arautzea, oporraldietan txapelketak antolatzea, eta parte hartzeko futbolean 11ko futbolean aritzeko aukera ematea. Hori dena egin arren gure jarrera inposatzailea eta erasokorra dela uste dute. Galdera bat bururatzen zait orain: zeintzuek ez dute bere jarrera batere aldatu prozesua abiatu zenetik, zeintzuek ez dute amore eman? Hori al da akordioak lortzeko bidea?

Eskutitzean diotenez, Athletic izango omen da gure politikaren onuradun bakarra; gu, berriz, Realarekin aurreakordioak lortzen ari gara Realak berak aurkeztu zigun eredua oinarritzat hartuta. Realaren ereduak Athletic al du onuradun? Batzordeak, behintzat, hori dio, baina gustatuko litzaidake gogoraraztea batzordea osatzen duten klubetako bat gaur egun Osasuna taldearekin hitzartuta dagoela eta beste bat Athleticekin hitzartuta egon dela.

Batzordearen iritziz, gure eredua baztertzailea da. Nire ustez, baztertzailea da gaur egun zenbait klubek egiten duten politika. Zer gertatzen da aukeratuen taldean sartzen ez diren mutikoekin? Kalean gelditzen dira, beste kirol batzuetara jotzen dute edo, okerrago, kirola egiteari uzten diote. Guk parte hartzeko ibilbidearen aldeko apustua egiten dugu, hala, inor ez da geldituko nahi duen kirola egin ezinda, dena dela bere gaitasun fisikoa edo, kasu honetan, futbolean aritzekoa.

Horrez gain, aurkeztutako eredu hori Foru Aldundiak eta Real Sociedad elkarteak bakarrik adostu omen dugu. Ez dute esaten, ordea, dagoeneko 31 klubek akordio horren aldeko jarrera adierazi dutela, eta idatziz adierazi ere, horien artean, SD Eibar, Real Union eta Tolosa futbol taldeek. Ez al da izango batzordeak egia absolutuaren jabetzat duela bere burua? Realak eredu hori hitzartutako klubei aurkeztuko die eta klub horiek onartu eta babesten badute bakarrik jarriko du abian.

Horregatik eta beste hainbat gauzagatik, ez dut tutik ulertzen.

## Arrasateko lantegiak, dendak eta San Juanetako egitaraua

**Jon Agirreurreta**
Arrasate

Orain dela gutxi Arrasateko Udalak herriko merkatariei laguntzeko ekintzak bultzatu behar zituela jakin genuen, badakigulako herriko hainbat eta hainbat jende hiriburuetara joaten dela erosketak egitera.

Ondo iruditzen zait herriko merkataritzari laguntzea, baina, era berean, lantegi eta dendariek jakin behar dute beraien diruarekin egindako jaietako egitaraua ez dela ez Arrasaten, ez Debagoienean, ez Euskal Herrian egiten.

Udalak herritarroi erosketak Arrasaten egiteko eskatzen digu, baina gero beraiek kontrakoa egiten dute, dendariek eta lantegiek emandako dirua kanpora bidaliz, azken bi urteetan bezala.

Nik dendariei eta lantegiei eskatuko nieke San Juan jaietako egitarauarako publizitatea jartzeko diru bila etortzen zaizkienean, galde diezaietela nork eta non egingo duen egitaraua, ezin da herritarrei gauza bat eskatu eta gero norberak beste bat egin.

## Etxafuegoak egun argiz

**Rafael Kortabarria**
Oñati

Hemendik aurrera makina bat jai eta ekitaldi ditugu herrian eta nik eskaera txiki bat egin gura nuke: etxafuegoak egun argiz botatzea, ez ilundu eta gero. Etxafuegoen zaratak hegaztiak izutzen ditu, euren habia utzi eta noraezean hasten dira hegan, aztoratuta. Horietako batzuek, ilunetan, ez dute etxerako bidea aurkitzen, sufritu egiten dute eta habian utzi dituzten arrautzak galdu egiten dira sarri.

Horregatik, etxafuegoak egun argiz botatzea eskatu eta eskertu gura diet jaietako antolatzaileei.

Eskerrik asko.

## Osakidetzari

**Jone Santos**
Bergara

Bergarako anbulatorioko emagin titularra mugagabeko baja egoeran dago eta ez dute bere ordezkorik jarri; astean behin etortzen da, eta kasu "larriez" bakarrik arduratzen da. Bergarako ama eta emakume guztien eskubidea denez, Osakidetzari eskatzen diogu lehenbailehen zerbitzu hori martxan jartzeko. Ahalik eta azkarren erantzun egoki bat jasoko dugulakoan agurtzen zaituztegu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** **943 25 05 01**
**Faxa:** **943 25 05 13**
**Posta elektronikoa:** **goienkaria@goiena.com**

**Egin zaitez harpidedun eta 2006an etxean jasoko duzu *Asteleheneko Goienkaria.* Dei bat egin eta kitto!**




24 €

**Harpidedun egiteko:**
**902 36 38 51**
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, **aste bukaera osoa**


Arrasatearium
Erdi Aroko
III. azoka
Arrasate
IIIª Feria
Medieval
Mondragón
Maiatzak 20 eta 21
Arrasate
ARRASATEKO UDALA
Laguntzailea:
ibai-arte
diseinua: www.adoxnet.com



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-alde.com

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**



## Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Eguzkitza

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

**Berezitasunak**
- Behi txuleta
- Bakailaua

**Martitzenetan itxita**

# *Jatetxe Gida*





## Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

**Berezitasunak**
- Arrainetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

**Egunero zabalik 5:30etatik aurrera**



## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

**Berezitasunak**
- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

**Martitzenetan itxita**




## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**



**> ARRASATE**
Etxebizitzen gainean berba egin zuen alkateak GOITBn **> 18**



**> BERGARA**
Erretiratuen elkarteko presidenteari elkarrizketa **> 25**



**> ESKORIATZA**
Ekainean hasiko dira botatzen Santa Marinako eraikinak **> 34**



**> ELGETA**
AYA lantegia bota dute Torrealdea urbanizatzeko helburuarekin **> 37**



**ORDEZKARIAK** Gureak Taldeko zentroko erabiltzaileek Agurra dantzatu zieten Diputazioko, Udaleko eta Gureak Taldeko agintariei. U.M.

**ARRASATE** > EGUNEKO ZENTRO ETA TXOLARTE ZENTRO BERRIAK

# Adimen urritasuna dutenen beharrak asetzeko zentroa ireki dute Arrasaten

**INAUGURAZIOA**
Diputazioko, Arrasateko Udaleko eta Gureak taldeko ordezkariak izan ziren ekitaldian

**MUSAKOLAN DAGO**
Gureak Taldearen lantegiaren ondoan ipini dituzte eguneko zentroa eta Txolarte

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Gipuzkoako bosgarren eguneko zentroa da Arrasaten atzo, eguena, inauguratu zutena. "Gureak Taldean fase berria bultzatu nahi dugu beharrei aurre eginez; beharrek eboluzionatzen badute, guk ere bai". Hala esan zuen Gureak Taldeko idazkari orokor Iñaki Alkortak.

**ADIMEN URRITASUNA ETA ADINA**

Hain justu, Arrasateko zentroa dago zuzenduta adimen urritasuna duten eta laguntza bereziaren premia izateagatik Gureak-en lantegietan eta enplegu zentro bereziietan sarrerarik ez duten pertsonei. Lantegietan lanean ibili eta adinaren eraginez atentzio berezia behar dutenak ere hartuko ditu: "Ibar honetan, ezintasun intelektuala dauzkaten pertsonendako hobetu egingo da egunéroko bizitza kalitatea. Pertsona horien beharrak aldatzen dabiltza; Gureak eta Atzegi sortu zen garaian ez zen pentsatu pertsona horiek edade handietara iritsiko zirela, baina ezintasuna duten pertsonak zahartzen dabiltza, eta iristen da momentu bat lantegi okupazional batean ez daudela behar bezala zainduta edo ez direla gai erritmo horri jarraitzeko, eta eguneko zentro bat errekurtso egokia izan daiteke", esan digu Gizarte Gaietako diputatu Esther Larrañagak. Ibarrari begiratuz, berriz, gaineratu digu eguneko zentroetan-eta sare osoa daukala Debagoienak: "Buruko paralisia dutenek dute eguneko zentroa, ezintasun intelektuala dutenek ere badituzte zentroak, Atzegiren sarea oso ondo dago aisialdiari begira eta Uliazpiri esker, Bergaran ere bada halako zentro bat. Beharbada ahalegina egin behar dugu ostatua eskaintzeko; badaudelako arazoak, batik bat, buruko paralisia dutenekin lotuta, eta hori gabiltza lantzen ASPACErekin, Arrasaten zentro bat zabaltzeko".

Arrasateko zuzendari Jose Luis Zalduak, berriz, zera uste du: "Apustu polita da eta hobekuntza izango dela uste dugu".

## Pertsonen autonomia eta garapen pertsonala landuko dituzte Arrasateko zentroan

310 metro koadro ditu Arrasateko zentro berriak: sukaldea, jantokia, bi egongela, gimnasio bat eta jarduera artistikoak egiteko gune bat. Gaur egun 12 erabiltzaile ditu, baina ekimen horren bultzatzaileen helburua da 24 erabiltzaile izatea. Erabiltzaile horiek landuko dituzte, besteak beste: heziketa arloko ekintzak, kirol ekintzak eta ekintza artistikoak. Horrez gainera, ahalegintzen dira udal instalazioen erabilera ere egin dezaten (liburutegia, kiroldegia...) eta herrian antolatzen diren ekintzetan parte har dezaten. Bestalde, eguneko zentroarekin batera, inauguratu dute Atzegik kudeatzen duen Txolarte zentroa, aisialdia lantzeko. Arrasaten zabaldu berri duten eguneko zentro horrez gainera, Debagoienean halako beste bat dago, Bergaran. Eta asmoa da Eibarren zabaltzea beste bat.

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 14 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 15 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 26 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 17 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 18 | Español | Araba etorbidea | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 19 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 14 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 15 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 16 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 17 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 18 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 19 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 14 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 15 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 16 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 17 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 18 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 19 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 13 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 14 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 15 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Martitzena, 16 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguaztena, 17 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Eguena, 18 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Egubakoitza, 19 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia).......943 46 11 11
DYA (Antzuola).......943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).......943 76 55 76
Suhiltzaileak.......943 78 28 00
Ertzaintza.......943 53 47 20
Osasun Etxeak
Arrasateko ospitala.......943 03 53 00
Antzuola.......943 76 62 23
Aramaio.......945 44 53 40
Aretxabaleta.......943 71 19 59
Bergara.......943 03 54 00
Elgeta.......943 03 54 00
Eskoriatza.......943 71 44 52
Leintz Gatzaga.......943 71 47 46
Oñati.......943 03 54 30
Udaltzaingoak
Antzuola.......943 76 62 46
Arrasate.......943 79 14 39
Aretxabaleta.......943 71 18 63
Bergara.......943 77 91 06
Eskoriatza.......943 71 44 07
Leintz Gatzaga.......943 71 47 46
Oñati.......943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA.......902 10 12 10
Taxiak
Arrasate.......943 79 12 22
Aramaio.......945 44 50 33
Aretxabaleta.......943 77 12 64
Bergara.......943 79 12 22
Eskoriatza.......943 71 40 59
Oñati.......943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.......943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).......943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.......943 76 10 15
Zerga Bulegoa.......943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
Arrasate.......943 77 11 43
Bergara.......943 76 44 42
Oñati.......943 78 36 67
Kiroldegiak
Aramaio.......945 44 53 35
Arrasate.......943 77 16 77
Aretxabaleta.......943 71 26 28
Bergara.......943 76 56 41
Elgeta.......943 76 82 84
Eskoriatza.......943 71 53 28
Oñati.......943 71 63 75
Kultura Etxeak
Antzuola.......943 76 60 65
Aramaio.......945 44 53 74
Arrasate.......943 77 01 05
Aretxabaleta.......943 71 10 27
Bergara.......943 77 91 58
Eskoriatza.......943 71 46 88
Leintz Gatzaga.......943 71 47 46
Oñati.......943 78 03 53
Udalak
Antzuola.......943 76 62 46
Aramaio.......945 44 50 16
Arrasate.......943 79 09 00
Aretxabaleta.......943 71 18 62
Bergara.......943 77 91 00
Elgeta.......943 76 80 22
Eskoriatza.......943 71 44 07
Leintz Gatzaga.......943 71 47 46
Oñati.......943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 13**
Goizean laino gutxi izango dira zeruan, baina egunak aurrera egin ahala lainoak ugaritzen joango dira. Tenperaturek gora egingo dute.



**Domeka, 14**
Okerrera egingo du domekan. Goiza lainotsu esnatuko da eta gainera, ekaitz arriskua nabarmena izango da. Arratsaldean antzera ibiliko da.

### EUSKAL HERRIAN

Asteburu nahasi samarra izango dugula diote aurreikuspenek. Zeru garbirik ez da izango, behintzat eta gainera, domekan berriro ere ilundu egingo du eta ekaitz arriskua izango da, oinaztuekin-eta. Hori bai, tenperaturak epel samarrak izango dira.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Martitzena, 9 — **4 ºC**

**MAXIMOA** Eguena, 4 — **24 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **34,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 3** | 23 ºC | 8 ºC | 0,2 l/m² |
| **Eguena, 4** | 24 ºC | 13 ºC | 0,9 l/m² |
| **Egubakoitza, 5** | 17 ºC | 14 ºC | 13,2 l/m² |
| **Zapatua, 6** | 15 ºC | 14 ºC | 0,2 l/m² |
| **Domeka, 7** | 20 ºC | 10 ºC | 19,9 l/m² |
| **Astelehena, 8** | 16 ºC | 9 ºC | - l/m² |
| **Martitzena, 9** | 22 ºC | 4 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA MAIATZEAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| **20** | **27** | **5** | **13** |

## oharrak eta deialdiak

DEBAGOIENA
**> Ondasun higiezinen gaineko zerga**
Zerga hori ordain daiteke hilaren 15etik ekainaren 30era arte.

BERGARA
**> Euskal presoen aldeko elkarretaratzea**
Bihar, zapatua, san Martin plazan, 13:00etan. Jorratzen taldeak dei egiten die herritarrei biharko ekitaldian parte hartzera.

ARAMAIO, ESKORIATZA, BERGARA
**> Postala bidaltzearen gaineko ikastaroa**
*Postal bat bidal ezazu* delako Internet ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, Eskoriatzako KZgunean, 11:00-13:00; Aramaiokoan astelehenean, hilak 15, 10:00-11:00; eta Bergarakoan martitzenean, 16, 09:00-10:00.

BERGARA
**> Artikulazioen higaduraren gainekoak**
*Nola eraman artikulazioen higadura* delako hitzaldia egingo dute astelehenean, hilak 15, San Joxepen, 17:00etan.

DEBAGOIENA
**> Fusilatuen omenezko eguneko bazkaria**
Debagoieneko fusilatu eta desagertuei omenaldia egingo diete ekainaren 11n. Egun horretako bazkarirako txartelak salgai daude Menetan eta Arrasate kristaldegian (Arrasate), Gurean (Aretxabaleta), Altuna estankoan (Oñati) eta Urkan Digitalen (Bergara).

ARRASATE
**> San Isidroak ospatzeko merendola**
San Isidroak direlaeta, merendola egingo dute Ekinekoek haur jolasetara joango diren guztiokin. Gaur, egubakoitza, izango da, San Antolinen, 18:00etan.

BERGARA
**> Euskaraz hitz egitearen gainean**
*Nola galdu beldurra euskaraz hitz egiteari* delako hitzaldia egingo du Jürgen Wolff adituak hilaren 17an, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan, Jardunek antolatuta.

ARETXABALETA
**> Gaixoekin komunikazioa, berbagai**
*Gaixoekin komunikatzeko era ezberdinak* delako hitzaldia egingo du Vicky Irigarai psikoterapeutak hilaren 17an, eguaztena, parrokiako lokaletan, 19:00etan, Osasun Pastoraltzak antolatuta.

ARRASATE
**> Osasun analisiak egiteko aukera Hiperrean**
Arizmendiko Osasungintzako ziklokoak Hiper Eroskin izango dira bihar, zapatua, 11:00-13:30, osasun analisiak egiten.

ARRASATE
**> Donostira irteera egingo dute Abaroakoek**
Donostiara egun osoko irteera egingo dute Abaroako erretiratuek hilaren 17an. Txartelak 15ean banatuko dituzte.

DEBAGOIENA
**> Euskal Herria Zuzenean jaian laguntzaile**
Euskal Herria Zuzenean jaialdira laguntzaile joan nahi dutenek izena eman dezakete Topagunean (94 621 51 16 edo 618 61 52 88 dira telefonoak). Baldintza bakarra da 16 urte beteta edukitzea ekainaren 30ean.

OÑATI
**> Emakumeenganako tratu txarren gainean**
*Emakumeek jasaten dituzten etxeko tratu txarren aurkako prebentzioa* delako hitzaldia izango da martitzenean, hilak 16, Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

BERGARA
**> Enpresako webguneen gaineko mintegia**
*Zer eduki beharko luke nire enpresaren webguneak?* delako mintegia emango du Miramon Enpresa Digitalak hilaren 16an, martitzena, Miguel Altuna ikastetxean, 18:00etan.

ARETXABALETA
**> Udalekuetan begirale lan egin daiteke**
Udaleku irekietan begirale izan gura dutenek izena eman dezakete hil osoan. Curriculuma kultura etxera bidali behar da, postaz edo e-postaz (*kultura@aretxabaleta.net*).

OÑATI
**> Inteligentzia emozionalaz berbaldia**
*Inteligentzia emozionalaren garapena nerabeengan* delako hitzaldia izango da eguenean, hilak 18, Elkar Hezi ikastetxearen Santa Marinako egoitzan, 18:30ean.

DEBAGOIENA
**> Aita Mennin aldi baterako egonaldia eska dezakete nagusi bat zaintzen duten familiek**
Aita Menni egoitzan, Arrasaten, aldi baterako egonaldia eska daiteke. Pertsona nagusiekin bizi diren eta haiek zaintzen dituzten familiei dago zuzenduta deialdia, familiak oporrak hartzeko aukera izan dezan. Maiatzaren 31 da izena emateko mugaeguna. Argibideak, Udal Gizarte Zerbitzu sailetan.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

**kale inkesta**

# Jaunartzeak gero eta 'handiagoak' dira; zer iruditzen zaizu?



**Carmen Martin**
Etxekoandrea
Arrasate

Nik neure seme-alabei eginarazi nien jaunartzea abituarekin. Gaur egungoak, nire ustez, larregikoak dira, maila altuegia hartu dute. Hori bai, egiten duenak egiten du ahal duelako.



**Gorka Clemente**
Ikaslea
Arrasate

Orain dela urte asko aldatu zen. Nik ez dut jaunartzerik izan, baina uste dut gaur egungoak ezkontzen moduko jai handiak direla. Seme-alabarik banitu, ez dakit jaunartzea egingo luketen edo ez.



**Ascension Barbero**
Langabea
Arrasate

Larregikoa egiten gabiltza. Eukaristia, Jesukristo eta hori guztia ahaztuta dago. Azkenean da gastua egitea, besteen aurrean itxura egitea. Nik bi seme ditut eta ez dute egin.



**Leire Arevalo**
Langilea
Bergara

Sinisten baduzu, ondo dago, baina umeak oso txikiak dira, oraindik ez dakitela, eta uste dut hori gurasoen kontua dela. Nik orain dela urte asko ez daukadala jaunartzerik. Orain, ezkontzak dira.



**Francisco Godoy**
Langilea
Bergara

Iruditzen zait larregikoa dela, umeak dira eta egun baterako halakoa antolatzea… Azkenean, ezkontza txikien modukoak dira. Aurten ez zait tokatu, baina laster tokatuko zait.

**txaloak eta txistuak**



UBANE MADERA

# Espaloiak behar bezala egokitu barik

Arrasateko Makatzena auzoan berritze obrak egiten dabiltza, baina zebrabide bitan, behintzat, espaloi batzuk ez dituzte egokitu gurpildun aulkiendako-eta. Hala esan digu irakurle batek. Udalean, berriz, esan digute akats hori atzemanda dutela eta konpontzeko bidean dela.

**usteak uste**

Ubane Madera

# 'Ustezko' lapurretak eta benetakoak

Aurreko batean, lagunak kafea hartzeko geratu ginen. Astebete elkar ikusi barik egon ostean, tabernan elkartu, berriketan hasi eta lehenengo atera zen gaia Forum Filatelico-aren ustezko lapurretaren gainekoa izan zen: "Ze lotsagabeak diren! Aurreratzen ibili den kaleko jendeari lapurretan egitea… Eta orain arte nora begira egon dira lehenago ez atxilotzeko? Eta zenbat ustelkeria kasu gehiago egongo diren…!". Halakoak nagusi, lagunon artean.

Gero, hortik jarraitu genuen Marbellako ustezko lapurreten gainean. Horrekin ere zeharo haserre lagun guztiak. Eta airean galdera bera: zigortuko dituzte? Baina dagokien moduan? Edo, oraingoz ustezko lapurretak diren moduan, zigorrak ere ustezkoak izango dira, bestetan moduan?

Arrasaten ere izan dira lapurretak azken asteotan. Horiek ez dira ustezkoak izan, horiek benetakoak izan dira. Sartu dira bi tabernatan eta estanko batean, ahalegindu dira sartzen beste taberna batean eta, are gehiago, gizonezko bati labana erakutsita lapurreta egin zioten maiatz hasieran, kalean.

Kontuz ibili.

**bertako berbak**

Juan Martin Elexpuru

# "Trikimaiñu"

Azpijokoa, amarrua, jukutri.
- Aspaldittik ezautzeittugu orren trikimiñuak.



**Marrazkia** > Jon Iraegi

**asteko datua**

# 400

Arrasateko Euskalgintzaren arabera, iaz, Arrasaten errenta aitorpena egin zuten 12.500 herritarren artean, 400ek egin zuten euskaraz, %3,2k. Aurtengo daturik ez dugu oraindik, ekainaren 26an bukatzen da-eta aitorpena egiteko epea.

**5 galdera...**

# Jose Felix Diaz de Tuesta

Udal teknikaria
Arrasate

**1. Badago berritasunik Erdi Aroko azokan aurreko azokarekin alderatuta?**
Udalak hobekuntza batzuk egin gura izan ditu; esaterako, herriko taldeen parte-hartzea bultzatu gura izan du eta sartuko dira Arrasate Musikal, Doke Antzerki Taldea eta Ibai Arte. Bultzatu nahi izan da, baita ere, Arrasateko artisauak egotea.

**2. Horren harira, kritika batzuk izan ziren kanpokoen partaidetzarekin lotuta; pentsatu duzue komeni dela hemengoak sartzea?**
Bai; hala, herriko artisauei deitu egin zaie eta hainbatek, behintzat, parte hartuko dute.

**3. Euskararen erabilerarik ezaren gaineko kritikak ere entzun genituen…**
Udalak hasieratik pentsatu du euskararen erabilera antolakuntzaren aldetik ez zela Udalak nahi bestekoa, eta aurten ahalegin berezia egin dugu. Eskatu zaio enpresari kartelak-eta euskaraz egoteko eta gu hasi gara itzultzen eurek bidalitako zerrendak-eta. Gainera, esan genien nahi genuela euskara agertzea duintasunez.

**4. Badirudi Erdi Aroko azoka hasieran moda izan zela, baina orain egonkortu egin dela uste duzu?**
Bai. Justu hemen inguruan ez dago halako azokarik; egiten dira beste toki askotan: Ordizian, Hondarribian… Baina ez hemen inguruan, eta jende dezente etortzen da bi egun horietan. Bestela herria hutsik egoten da, eta bi egun horietan jende dezente etortzen da. Aurten konfirmatuko da, baina nik uste dut egonkortu egin dela azoka hori.

**5. Parte-hartze aldetik ze aurreikuspen duzue aurtengo ekitaldiarekiko?**
Oso-oso ona egiten badu, seguru aski jendeak alde egingo du hondartzara-edo; oso ona egiten ez badu, jende asko geratuko da eta inguruko asko etorriko dira. Baina nik uste dut eskaintzak, behintzat, izan behar duela ona eta uste dut aurtengoa izango dela iazkoa baino hobea.



**POLITIKA** > INAZIO LAKUNTZA ANTON, ARRASATEKO ALKATEA, GOIENA TELEBISTAN

# Egiten dabiltzan obrengatik pazientzia eskatu du alkateak

Arrasaterako "autobus azkarrak" ipini barik daudela-eta, alkateak barkamena eskatu eta jakinarazi du Diputazioari aurkeztu diotela proiektua eta diruaren kontua adostea falta dela



**EGOITZAK** Alkateak esan zuen ASPACEk egoitza eta Aita Mennik eguneko zentroa zabalduko dituztela Zerrajera gunean. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Hiru urte daramatza Inazio Lakuntza alkateak Udalaren gidaritzan. 55 urte ditu eta alkate izan baino lehenago, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko errektore izan zen. Hala aurkeztu zuen Alberto Gorritibereak GOITBko *Debarri* saioan. Hortik aurrera, herriko kontuak izan zituzten hizpide.

**ETXEBIZITZAK**

Eta, zelan ez, etxebizitzen gaiak hartu zuen elkarrizketaren zati handi bat. Izan ere, Donostiaren ostean Arrasaten daude etxerik garestienak. Horren harira, alkateak zera esan zuen: "Denbora luzean eskaintza txikia izan dugu. Orain, erronka da dauzkagun baliabideekin baretzea merkatu hori, bai alokairuzko etxebizitzekin zein etxebizitza tasatuekin. Eta gertatzen den beste gauza bitxi bat da kooperatiben paradigma: oso etxe gutxi egin dituzte. Orain 20-30 urte egin zituzten piloa, baina orain bat ere ez".

Alokairuzko etxebizitzak gehiago erabiltzeko beharra ere nabarmendu zuen alkateak: "Gizartean, ohitura da etxebizitza propioa izatea; aldaketa kultural hori lortzea kosta egingo zaigu, baina, hala ere, eskaintza egon behar da, alokatzeko, behintzat gazteendako". Hala, alkateak gogorarazi zuen martxoan aurrerapauso garrantzitsua eman zutela, bi gunetan 364 etxebizitza eraikitzeko Egitamu Orokorra aldatzea onartu zutelako. Eta jakinarazi zuen oraingo astean ixten dela etxebizitza horien lehen zatia (148 etxebizitza) adjudikatzeko lehiaketaren epea. Eta hilabete gutxi barru abiaraziko dutela beste 218 etxebizitzak adjudikatzeko epea.

Eskaerari begira, berriz, esan zuen 400 bat lagunek eman dutela izena alokairuzko etxeetarako.

Bestalde, jakinarazi zuen orain 800-1.000 etxebizitza eraikitzen dabiltzala.

**PAZIENTZIA, OBRENGATIK**

Bestelako gaien artean, alkateak Bizkaia kaleko herritar baten kexuari erantzun zion; kexua zen egiten dabiltzan obrek sortzen duten kutsadurarengatik. Alkateak pazientzia eskatu zien bizilagunei: "Azkenean helburua da gauzak hobetzea. Kolektorea behar den moduan ipini behar da eta hori herri erditik pasa behar da. Ondorioz, derrigorrez itxi behar izan dugu Bizkaia etorbidea, hiru hilabeterako. Horrekin batera, aparkalekuak ere egiten dabiltza… Amaitzen denean, espero dugu leku hartan aparkalekuen arazoa zelanbait ordenatzea". Eta aparkatzeko arazoekin jarraituz, berretsi zuen alde zaharrean OTA ipiniko dutela, etxebizitza berriak egitean, etxebizitza bakoitzeko 2,5 aparkaleku eraikiko dituztela eta horrekin eta erdiguneko Biteri aparkalekuarekin egoera dezente hobetuko dela espero duela.

Joan den astean inguru hartan gertatu zen istripu larriaren gainean, berriz, esan zuen han zenbait konponketa egiteko asmoa bazutela eta hala egingo dutela.

BESTELAKOAK

## Azkenaldian alderdi sozialistak duen jarrera eskertu egin du alkateak

Ilegalizatutako alderdien gainean zera esan zuen: "Urte bakarra geratzen da eta gauza arraroak ez ditugu egingo. Egoera politikoa ikusita, badirudi gutxira indar politiko guztiak legalak izango direla eta hurrengo hauteskundeetan denak egoera berean egongo garela". Herritar baten galderari erantzunez, berriz, esan zuen Aralarrekin oso harreman onak dituztela eta Ezker Batuarekin, berriz, zera: "Gobernu taldean izan diren momentuak nahiko onak izan dira. Gero heldu zen desadostasun bat eta kanpoan geratu ziren". PSE-EErekin, berriz, hobetzen dabiltzala esan zuen: "Eskertu behar dut euren jarrera, gauza batzuk euren laguntzarekin aurrera atera ditugu".

**LAPURRETAK**

## Azkenaldian lapurreta dezente izan dira herrian

Oraingo astean bertan estanko eta taberna banatan sartu dira

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Astelehen gauean Musakola estankoan sartu ziren lapurrak. Indarra erabiliz sartu ziren, pertsianako giltzarrapoa apurtu eta kristalezko atea txikitu zuten. Estankoko arduradunak Arrasate Irratiari adierazi dionez, barruan, tabakoz betetako kaxoi asko hustu eta eraman dituzte. Horrez gainera, diru kutxan txanponetan zeuden 200 bat euro ere eraman zituzten. Musakolako arduradunak salaketa jarri zuen.

Bestalde, martitzen gauean, Hilarion tabernan lapurtzen ahalegindu ziren. Ateak apurtuta zeuden eta lapurrek zabalik utzi zuten taberna. Herrizaingo Sailetik jakinarazitakoaren arabera, barruan ez zegoen nahasmendurik eta ez zen dirurik falta.

Bukatzeko, Muskizen lapurtutako BMW auto bat Arrasaten agertu zen, Otalora eta Zarugalde artean.

> GERTAERA

### Emakume bat hilda aurkitu dute bere etxean, Ferreriasen

Eguazten eguerdian emakume bat hilda aurkitu zuten udaltzainek Ferrerias kalean. 30. zenbakiko hirugarren solairuan aurkitu zuten, eta, ustez, zenbait egun zeramatzan hilda. Herrizaingotik jakinarazi digute 63 urte zituela eta zabor artean aurkitu zutela. Dena den, gaineratu digu emakumearen heriotza naturala izan dela, eta, beraz, ez diotela gorpuari autopsiarik egingo.





**BUKATZEAR** Jose Ramon Petreñas eta Iñaki Orue, egoitzako arduradunetako bi, bukatzear dauden obrak ikusten. U.M.

**OBRAK** > MUSAKOLAKO EGOITZA BERRITUA

# Egoitza berri-berria dute Musakolakoek datozen 15 urteotarako

Auzoko San Isidro zaindariaren eguna dela-eta, maiatzaren 15a, astelehena, aukeratu dute egoitzaren inaugurazioa egiteko

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Astelehenean, 11:00etan meza esango du Arrasateko parroko Genaro Lekuonak, San Isidroko parroko Jesus Arsuagak lagunduta. Ekitaldira gonbidatu dituzte, besteak beste, Inazio Lakuntza alkatea, zinegotziak eta Musakolako alkate Anton Aranbarri, besteak beste. Mezaren ostean, Musakolako erretiratuen egoitza berria bedeinkatu egingo dute. Eta hortik aurrera, erretiratuek nahi dutenean estreinatu ahal izango dute lokala; haiek esan digutenez, materiala lokal zaharretik berrira eramango dute poliki-poliki eta guztia gertu dutenean sartuko dira egoitza berrian.

**USTE BAINO EGOERA OKERRAGOAN**

San Isidro elizaren ondoko lokala goitik behera berritzen ibili dira iaztik hona, Musakolako zaharren egoitza han kokatzeko. "Den-dena berritu dugu, kanpoko paretak kenduta. Gauza da hasieran uste baino okerrago zegoela lokala, eta azkenean, teilatua, leihoak eta ia guzti-guztia berritu egin behar izan dugula''. Hala adierazi digu obra gidatzen ibili den Xabier Berridi aparejadoreak.

Udal teknikariak esan digu lokalaren egoeraren ondorioz, lanak egiteko aurreikusitako epea luzatu egin behar izan dutela eta aurrekontua handitu egin behar izan duela Udalak. Bukaeran, guztira, 348.565,62 euro inbertitu dute Musakolako egoitzan. Lanak Bilboko Elecnor enpresak egin ditu.

**KONPONKETAREN TRUKE**

Bestalde, Berridik jakinarazi digu San Isidro, eliza eta lokala, biak ala biak direla Donostiako Elizbarrutiarenak. "Udalak hitzarmena sinatu du elizbarrutiarekin, lokalaren konponketaren truke, lokalaren erabilera Musakolako egoitzakoendako izango zela. Kontratua da hamar urterako, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin".

**EMAITZAREKIN POZIK**

Kontuak kontu, datozen hamabost urteotan Musakolako erretiratuek erabiliko dute egoitza eta esan digutenez, pozik asko daude lokal berriarekin; hala adierazi digu elkarteko diruzain Iñaki Oruek. "Ni, behintzat, oso pozik nago; hori bai, iritzi asko daude". Gainera, esan digu behar handia zutela: "Nik askotan esan dut, lokal hura nirea balitz, urte asko dela itxita izango nukeen. Txikia da, barra estua du, komunak ez dira egokiak, sukaldea txiki-txikia da, hezetasuna du… Behar handia zegoen eta nik uste dute orain eman diguten irtenbidearekin asmatu egin dutela". Oruek esan digu, gainera, Musakolakoez gainera, herriko beste batzuk ere erabiltzen dutela Musakolako egoitza, "uste dut orain gehiago etorriko direla, oinezkoen pasabideak ateraino bertaraino ekartzen dituelako".

Oso argitsua geratu zaie Musakolako egoitza, leiho zabal eta espazio handiekin. Orain, elegante ospatu ahal izango dute datorren urtean egoitzaren 25. urtemuga, izan ere, Abaroaren ostean, Musakolakoa da herrian sortu zuten zaharren lehen egoitza: 1982ko ekainean.

**DATU AIPAGARRIAK**

**> INAUGURAZIOA**
Astelehenean, 11:00etan meza esango dute, inauguratzeko.

**> 2 ARETO HANDI**
Ditu: gela bi, sukaldea, biltegia, komunak eta bulegoa.

**> ALTZARIAK**
Izango du: beheko gelan 10 mahai eta barra eta goiko gelan 6 mahai.

**> 530 BAZKIDE**
Musakolako egoitzak 530 bazkide ditu: erretiratuak eta pentsiodunak.

**> 15 URTERAKO KONTRATUA**
Elizbarrutiarena da, baina 15 urtean Arrasateko Udalak erabili ahal du.

**> 348.000 EURO**
Hasierako aurrekontua handitu eta 348.565,62 euro inbertitu dute.

**> 25 URTE**
2007an 25 urte beteko dira Musakolako egoitza sortu zutela.

**INGURUMENA** > PUNTU BERDEA

## Puntu Berde Mugikorraren egunak aldatu dituztelako zenbait arazo sortu dira

Mankomunitatetik jakinarazi digutenez, kamioia ez dagoela ikusi arren, jendeak poltsak kalean uzten ditu, zikinkeria sortuz

**U.M.** > ARRASATE

Puntu Berde Mugikorraren egunak aldatu egin ditu Mankomunitateak 2006an. Horren ondorioz, "asko dira zerbitzua tokatu ez eta olioa Laubide plazan uzten dutenak. Kamioia ez dagoela ikusi arren, jendeak poltsak bertan uzten ditu eta nahikoa da batek hori egitea atzetik datozen guztiak gauza bera egiteko". Hala adierazi digu Mankomunitateko Ingurumen teknikari Marta Garmendiak. Zera gaineratu digu: "Egoera horrek alde batetik kalean nahastea sortzen du eta bestetik, hori jaso eta garbitu beharra dago".

**DATOZEN HITZORDUAK**

Hori horrela, datozen hitzorduak zeintzuk diren gogorarazi gura ditu Mankomunitateak: maiatzean, datorren astean pasako dira Laubide plazatik, 19an, hain zuzen ere, 09:00etatik 13:00etara. Ekainean, berriz, hilaren 2an eta 30ean izango dira Mondragones kaleko azokan eta hilaren 16an, Laubide plazan. Eta uztailean, 14an izango da Puntu Berdea Laubiden eta 28an, Mondragones kalean.

Beraz, gogoan izan kamioia ez badago, ez direla olio ontziak kalean utzi behar.




**MAINDIREAK** Prentsaurrekoan erakutsi zituzten maindireak. U.M.

**PRESOAK** > MAINDIRE KANPAINA

## Presoen alde maindireak ipintzeko eskatu dute

Maindire edo bandera horiek salgai ipiniko dituzte maiatzaren 12an eta 13an, 19:00etatik 20:00ak arte, zenbait auzotan

**U.M.** > ARRASATE

"Etxeetako, baserrietako leihoetan, balkoietan… bandera bat bakoitzeko! Hori da gure asmoa, lortu beharrekoa. Gutariko bakoitzak bere konpromisoa adierazi, bere nahiaren berri eman dezala, benetan ankerra den egoera honekin behingoz amaitzea exijituz". Halaxe esplikatu zuten Portaloira Topaguneko kideek prentsaurrekoan. Halaber, jakinarazi zuten maindire horiek asteburuan eskuratu ahal izango direla: 12an eta 13an, 19:00etatik 20:00etara, Zigorrolan (Hostal kanpoan); alde zaharrean (Arbolapetan); San Andresen (plazatxoan) eta Arimazubi plazan. Horrez gain, zenbait taberna eta dendatan ere salgai ipini dituztela esan zuten.

**EGOERA KEZKAGARRIA**

Horrez gain, salatu zuten herriko presoen egoera eskasa dela: "Batez beste, etxetik 800 km-ra daude, hainbat isolamendu egoeran. Badira 3/4ak beteak dituztenak, larri gaixo daudenak, erredentzioak kendu dizkietenak… Hau da, legez kanpo bahituta dituztenak!".

**Ozen** > Musika taldea

# "Heavytik haratago joan eta bestelako doinuak lantzen ditugu"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Ozen taldeak diskoa kaleratu du astean. *Mundu perfektua* izenpean hamar kantuz osatutako disko txukuna kaleratu dute MusikHerriarekin. Zuzenean jotzeko irrikan dago laukotea; eta badute zer eskaini, indartsu datoz-eta.**



DISKOA ESKUETAN Dagoeneko salgai ipini dute diskoa Ozen taldekoek. IKER BARANDIARAN

**Diskoaren erditzea oso prozesu luzea izan da...**

Bai. 2004an Zarauzko Fidelenea estudioan grabatu genuen Mikel Anestesiarekin. Horren ostean, Danbaka eta Euskadi Gaztea lehiaketen zain egon ginen, aurrera egiteko. Ez geneukan dirurik diskoa kaleratzeko eta ganora handi barik ibili ginen.

**Eta Shot! grabazio estudioan berriro nahastu zenuten diskoa, ezta?**

Bai, diskoa grabatu eta denbora dezentera pentsatu genuen diskoaren soinua borobiltzea. Proba moduan Shot! grabazio estudioko Josemak abesti bat nahastu zuen eta emaitzarekin oso gustura gelditu ginen. Hortaz, disko guztia nahastu, detaile batzuk aldatu eta soinua argitu genuen.

**Azkenean MusikHerriarekin kaleratu duzue...**

Bai, ez genuen diskoetxeekin harreman handirik izan, eta MusikHerriaren eta copyleftaren aukera aproposa iruditu zitzaigun. Edozeinek dauka kantuak erabiltzeko aukera, baldin eta egileak aipatu eta horrekin etekinak ateratzen ez baditu.

**Diseinu lan oso txukuna egin duzue...**

Eskerrik asko. Minimalismoa landu dugu sinplifikatuz, eta azalean diskoaren izena, taldearen logotipoa eta izenburua bakarrik jarri ditugu. Gainera, merkatuan azal zuri gutxi daude eta bitxia iruditu zitzaigun.

**Diskoan hastapenetako kantu heavy batzuk sartu dituzue...**

Bai, lehen oso heavyak ginen. Su Ta Gar eta halakoak entzuten genituen eta antzeko soinua lortu gura genuen. Horren ostean zerbait pertsonalagoa egiten eta beste estilo batzuk lantzen hasi ginen: melodikoagoak, hard-rocka, pop-rocka...

**Doinuak asko landu dituzue eta giro lasaiak sartu dituzue.**

Bai. Adibidez, *Gorria* kantuan gitarra akustikoa sartu dugu eta diskoaren erdian jarri dugu, lasaitasun apur bat emateko.

**Abestiak luze samarrak dira eta gustura garatu dituzue...**

Bai, baina datorren lanerako ahalegindu behar dugu abesti laburxeagoak egiten. Konturatu gara zuzenekoetarako hobe dela abesti motzagoak eta zuzenagoak egitea.

**Eta, hasi zarete abesti berriak idazten?**

Bai, sei bat ditugu, baina zuzenekoetan ez ditugu guztiak joko, diskoa *defenditu* behar dugulako. Abesti berriak motzagoak eta zuzenagoak dira, harira doaz. Bestalde, asmoa daukagu diskoan sartu ez ditugun hiru kantu Interneten jartzeko, edonork entzun eta jaits ditzan.

**Ahaztu baino lehen, *Mundu perfektua* da diskoaren izenburua. Ironia hutsa da?**

Bai. Gaur egun gizarteak daraman garapenarekin polikipoliki guztia apurtzen gabiltza.

**"Hitzetan metaforak erabiltzen ditut, kritika zuzena egin beharrean"**

JULEN RIBAS

**"Shot! estudioan diskoa berriro nahastu genuen, soinua argitzeko"**

JOSEBA LIZARANZU

**"Talde baten jotzeak gauza asko desmitifikatzen ditu"**

BEÑAT UNZUETA

**"Copyleften bidez gure kantuak gehiago zabalduko dira"**

IKER LEIBAR

JAIAK

## Hasita daude Musakolako jaiak

Erretiratuak hasi dira ekimenekin, eta asteburuan danetatik izango da

I.B. > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, Erretiratuen Eguna ospatuko dute, baina umeendako ekintzak ere egingo dituzte: danborrada, txokolate-jana, tailerrak, bolo-boloa eta buruhandiak. Horrez gain, erretiratuek afaria egingo dute Al Andalus elkartean eta Kaixo taldearekin dantzaldia izango da.

**ASTEBURUA, BETE-BETEA**

Bihar, zapatua, denetatik izango da: puzgarriak, fanfarrea, gazteendako bazkaria Gazte Txokoaren eskutik eta gimnasia erritmiko taldearen erakustaldia, besteak beste. Horrez gain, 17:30ean, AUKEA sariak banatuko dituzte; eta 19:00etan, Donostiako Udaleko Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du Santa Teresa elizan.

Domekan, besteak beste, lore erakusketa eta salmenta egingo dituzte.

> AZOKA

## Datorren asteburuan egingo dute Erdi Aroko III. Azoka

Hilaren 20an eta 21ean egingo dute Erdi Aroko III. Azoka. Aurreko urteotan moduan Udalak bideratu du, baina enpresa batek hartu du antolaketaren ardura.

Herrikoen esku-hartzeari dagokionez, aurten Arrasateko Musika Eskola, Doke antzerki taldea eta Arrasateko bost artisau izango dira lanean.

Bestalde, Udalak azaldu du euskararen presentzia indartzeko asmoa daukala.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Garagardo ona, giro hobea

TXIRRITA
Taberna
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56




# ZIGARROLAKO JAIAK

MAIATZAK 12, 13, 14 eta 15 **2006**

ARRASATE

Musakola estankoa • Musakola Elektrizitatea • Ziorla taberna • AGR Erreformak S.L Tourline Express mensajeria • Iosu taberna • Gaindegi jatetxea • Goi Solutions • Abian fisioterapia zentrua • Argi-Plastik S.L • Estrella taberna • Jey Juliwer • Basilio taberna • Hostal Musakola • Txinato taberna • Iluna taberna • Hiper Eroski Kafetegia

ONDO PASATU JAIETAN!

**AUKEA SARIAK** > BIHAR BANATUKO DITUZTE

# Itziar 'Mallabi', Besaide ME, Luis 'Bonba' eta Cesar Diez, sarituak

San Isidroen barruan, AUKEAk kirolari onenak sarituko ditu bihar Musakolan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Urtero moduan, San Isidro jaien barruan Arrasateko gimnasia erritmikoko taldeak erakustaldia egingo du bihar Musakolan. Eta dagoeneko ohitura bilakatu da AUKEAk kirol ekitaldi hori aprobetxatzea erakundearen izena duten sariak banatzeko. Hala, 17:30ean hasita, 2005ean azpimarratzeko moduko lana egin duten kirolariak sarituko dituzte.

Itziar Mallabiabarrenarendako izango da kirolari onenaren saria. Saskibaloian, gazte mailan ibilbide oparoa izatearekin batera, Arrasatekoak askotan hartu du esku Espainiako Estatuko selekzioarekin. Gaur egun Hondarribian dabil jokatzen, Txingudiko taldean.

Kirol elkartearen saria, berriz, Besaiderendako izango da. Herrian bazkide gehien duen elkartea izanda, duen bilakaera aberatsarengatik saritu gura izan dute. Horretarako, kontuan izan dute urtean zehar Besaidek antolatzen dituen irteera guztiak. Eta, bi sari horiekin batera, aipamen bereziaren saria jasoko dute Luis Lopez *Bonba* futbol jokalari ohiak eta Cesar Diez atleta beteranoak.

## Jonathan Perezek dagoeneko 'hegan' egiten du

Neguko denboraldian bost metroko jauzia egin du Jonathan Perezek, baina Arrasateko atletak joan den astean erakutsi zuen oraindik ez dela topera iritsi. Euskadiko Kluben Arteko Txapelketan, Realeko atletak urrea erdietsi zuen 5,05 metroko jauzia eginda. Gipuzkoan inork egin duen bigarren jauzi onena da hori, Arrasatekoaren entrenatzaile Jon Karla Lizeagak du-eta marka onena (5,35). Horren ildora, dagoeneko jauzi egin beharrean *hegan* egiten duen Jonathan Espainiako Txapelketarako sailkatu da.



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

> ESKALADA

## Boulderreko Euskal Ligan, Arrasatekoak neurrian

Gazte mailako Boulder Txapelketa egin zuten joan den astean Gasteizen, eta Arrasatek lau ordezkari izan zituen. Ander Mendieta, Mikel Usobiaga eta Antxon Zabaleta lan txukuna eginda itzuli ziren. Miriam Mulas gaztetxoak, berriz, erakustaldian hartu zuen esku.

> BESAIDE ME

## Mendiko eskia eta gazte ekintzak hil honetarako

Besaidek mendi eskiko azken irteera egingo du asteburuan; Anetora joango dira urtea agurtzera. Horrekin batera, Gazte Ekintzen barruan Bisaurin-Agerri ibilbidea egingo dute maiatzaren 20ko eta 21eko asteburuan.

## futbitoa zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Pippol - THC | 5-3 |
| Berdes Bremen - AT Celaya | 5-7 |
| Dribling - AC Surcos | 4-1 |
| Tomahawk - Iriztu Taberna | 3-2 |
| Betrayer - HLB 108 | 6-4 |
| Saukelu Scream - Arrano Taberna | 5-3 |
| Billy & The Cowboys - Iluntz | 2-4 |
| Irish Pub Dublin - Abokajarro | 4-11 |

**PARTIDUAK**

**Maiatzak 13, zapatua**

| | | |
|---|---|---|
| **10:50** | Abokajarro - AC Surcos | **Irish Pub** |
| **12:00** | Betrayer - Irish Pub | **Ac Surcos** |
| **16:00** | Iriztu Taberna - Pippol | **Antolatzai.** |
| **17:00** | Abokajarro - Iluntz | **Antolatzai.** |

**Maiatzak 14, domeka**

| | | |
|---|---|---|
| **12:00** | Arrano Tab. - AC Surcos | **Lasagabast.** |
| **13:00** | Lasagabast. - Iriztu Tab. | **Arrano tab.** |
| **14:00** | Aurrera Bol. - Fuxxion | **Iriztu taber.** |

**Maiatzak 15, astelehena**

| | | |
|---|---|---|
| **19:00** | THC - At Celaya | **Antolatzaileak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Dribling | 49 | 18 |
| 2. | Betrayer | 40 | 17 |
| 3. | Lasagabaster | 40 | 17 |
| 4. | Iriztu Taberna | 35 | 17 |
| 5. | Saukelu Scream | 34 | 18 |
| 6. | Abokajarro | 30 | 17 |
| 7. | Pippol | 39 | 18 |
| 8. | Fuxxion | 28 | 17 |
| 9. | Iluntz | 28 | 18 |
| 10. | Arrano Taberna | 27 | 17 |
| 11. | Tomahawk | 27 | 18 |
| 12. | AT Celaya | 24 | 17 |
| 13. | Ac Surcos | 24 | 16 |
| 14. | Billy & Yhe cowboys | 21 | 18 |
| 15. | Irish pub Dublin | 21 | 17 |
| 16. | HLB 108 | 21 | 18 |
| 17. | Aurrera Bolie TMT | 18 | 17 |
| 18. | Berdes Bremen | 12 | 18 |
| 19. | Txoponbeixek | 6 | 18 |
| 20. | THC | 0 | 17 |



MARGA
jantzi denda

Likidazio osoa
Arrasateko dendan!
maiatzaren 12tik aurrera

Iturriotz 21 • ARRASATE • Tel.: 943 71 17 40



nire bidaia hura

## Iñaki Lamadrid eta Rakel Gartzia

Indiara > 2005eko udan

# "Indian, bertakoak baino behartsuago sentitu ginen, ondasun materialak baino ez ditugu-eta"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Iñakik eta Rakelek joan den urtean egin zuten Indiara bidaia. Senegal, Brasil eta halako lurraldeak ezagutzen dituzte, eta bidaia ezberdina gura zuten. Itxuraz, Indiatik itzultzen direnek zera esaten dute: edo sekula ere ez direla itzuliko edo maiteminduta bueltatu direla. Azken hori da Arrasateko bikotearen kasua.**



Iñaki eta Rakel.

Delhin hasi zuten Rakelek eta Iñakik bidaia: "Bidaia antolatua izan zen, eta estatuko zortzi lagun joan ginen batera. Egia esateko, Euskal Herrikoak eta Kataluniakoak ginen denak. Kontua da antolatutako bidaia hori ez zegoela horren ondo antolatuta. Hiri batetik bestera joateko autobusa genuen, baina askoz ere gehiago ez. Autobus gidariak, gainera, ez zigun tutik ere ulertzen, ez espainolez eta ezta ingelesez ere. Hala, hiri batzuetan gida hartu genuen, eta beste batzuetan hala-hola moldatu ginen".

Indiara itzuliko ote ziren galdetzerakoan, Iñakik eta Rakelek argi dute baietz: "Jendeak beldurra izaten du miseria handiak ikusten diren lekuetara joateko, baina Indian ez genuen horrelakorik ikusi. Egia da hegoaldean txiroagoak direla, eta egia da dirua eskatzera jende asko etortzen zitzaigula. Baina dirua emandakoan triste aurpegia aldatu eta gaztetxoek jolasten jarraitzen zuten. Alde horretatik, bertakoak baino behartsuago sentitu ginen, guk ondasun materialak baino ez ditugu-eta".

**TAJ MAHAL, IKUSGARRIA**

Rakelek esan digu, nahiz eta topikoa den, Taj Mahal tenplua dela Indiako gauzarik ikusgarriena. Bai eraikina bera, baita bere istorioa ere. Rakelek eman digu horren berri: "Niri izugarri gustatu zitzaidan istorioa. Maitasun istorioa da. Kontua da bertoko maharaja bati andregaia hil zitzaiola. Eta, zenbat maite zuen erakusteko, marmol zuriko eraikin ederra eraikitzea agindu zuen. Diru mordoa xahutu zuen Taj Mahal tenplua eraikitzen, eta bere asmoa zen hiltzen zenerako errekaren beste aldean marmol beltzarekin beste tenplu bat eraikitzea. Maharaja horren semeak, aitak aberastasun guztia horretan gastatu behar zuela ikusita, aita atxilotzea lortu zuen. Kontatu zigutenez, aita penaz hil omen zen, eta andregaiarekin batera hilobiratu zuten, Taj Mahalen bertan".

**"Topikoa bada ere, Taj Mahal tenplua da Indiako gauzarik ederrena"**

**"Hango hirietako behi eta txerriek saldari kolorea emateko ere ez lukete balioko"**

**ADAR JOTZE ETA GUZTI**

Ez pentsa, baina, bidaia horretan guztia izan zenik ederra, Iñakik badu-eta kontatzeko anekdota: "Tonto aurpegia geratzen zaizun kontu horietako bat da. Kontua da bidaian bisitatu genuen herrietako batean desertura joateko gameluak alokatu genituela. Han joan ginen ustezko desertura. Iritsi ginenean, 300 metro koadroko duna moduko bat baino ez zen, eta bertara sartzeko sarrera moduko bat ordaindu behar izan genuen. Gainera, desertu hartan harri artetik azaltzen ziren gizontxoak, Coca Cola saldu guran. Turista koadrilari ederto sartu ziguten ziria".

Beste herri batzuetan, baina, ederto gozatu zuten, Jodhpurren eta Hiri Urdinean, adibidez: "Etxe guztiak urdinez daude margotuta. Batetik, badirudi horrek eltxoak eta horrelakoak atzera botatzen dituela. Eta bestetik, esaten zutenez urdin kolorea ikusteak egarria asetzen du".

Amaitzeko, hiri handietan gertu egon behar da sekulako poluzioa jasateko: "Hiriak kaosa dira. Behiak, txerriak, autoak, jendea... Denak hara eta hona. Ez dakigu goserik pasatzen duten, baina txerri eta behi mordoa zebiltzan kalean. Hori bai, saldari kolorea emateko ere ez lukete balioko".



Iñaki eta Rakel, horren ezaguna den Taj Mahal tenpluaren aurrean.

bere ustez



Ander Etxeberria

## San Juak jaiak asteburuan

Denborarekin ohiturak aldatu egiten dira. San Juan jaiei dagokienez, iruditzen zait lau egun jarraian larregikoa bilakatu zaigula. Edade bateko herritarrei galdetu eta ez da zaila ondokoa bezalakoak jasotzea: "Sanjuan hirugarrena izaten zen egunik handiena". Zuribeltzeko argazki zaharrak ere horren lekuko dira. Gaur, ordea, azken egun horretan ia ez du energiarik jartzen jendeak.

Beste alde batetik, diferentzia handia dago San Juanak astean zehar izan edo asteburuan. Batean zein bestean ekitaldi gehienetan lagun asko egoten bada ere, kaleko giroa ezberdina da. Astean zeharrekoetan kaleetan bizitasun gutxi: batzuk lanean, beste batzuk kanpoan... Asteburuetan, aldiz, joan zen urtean kasu, giro polita.

**"Hau horrela, ideia izan daiteke San Juanak beti asteburuan ospatzea"**

Hau horrela, bizi dugun garaietara egokitzeko, ideia izan daiteke San Juanak beti asteburuan ospatzea. Bi asteburu izan daitezke, ekintzez beterikoak. Eta ekintza batzuk zuzenean data batekin lotuta daudenez, urteko gau motzena delako edo San Juan Bataiatzailearen eguna delako, horiek (sua, salbea) tokatzen diren egunean burutu daitezke.

A, eta ondo pasatu Zigorrolan!

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

KONTRATAK
IRVROK S. L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE




**IRABAZLEAK** 27 lan aurkeztu dituzte azal lehiaketara; Ainhoa Larrañagak eta Miren Santacruzek egindakoa da irabazlea. O.E.

**MENDEKOSTE JAIAK 2006** > HIRU ASTE BARRU HASIKO DIRA

# Moto-kros txapelketa Pazko jaietako berrikuntzen artean

Koadrilen eguna astelehena izango da aurten ere; 400 txartel jarriko dituzte salgai datorren astean Pol-Polen, Kortazarren eta San Joxepen

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Bergara Hiria lehenengo moto-kros txapelketa da aurtengo Pazko jaietako berrikuntzetako bat. Ekainaren 3an egingo dute, zapatua, Eginoko zelaietan, Candy lantegiaren ondoan. Jaiak bezperan hasiko dira, ekainaren 2an, Bitorianatxoren igoerarekin. Eta lehendabiziko egunerako, Markeliñe antzerki taldeko lan bat ekarriko dute plazara, musika taldearen ordez. Eta horixe da beste berrikuntzetako bat, aurtengo jaietako egitarauan antzezlan asko egingo dituztela, egunez batez ere.

**130.000 EUROKO AURREKONTUA**
Umeekin eta umeen gurasoekin pentsatuz, bazkal osteko orduak betetzeko hartu dute erabaki hori. Baina antzerkiaz gain, elkarteen arteko bakailao lehiaketa, sokamuturra, xake lehiaketa, euskal dantzen erakustaldia, musika kontzertuak, pilota partidak, miss eta mister jator lehiaketa eta umeendako jolas parkea ere badaude aurtengo egitarauan, besteak beste. Ekitaldiak, lau gune nagusitan egingo dituzte: Bideberrin, Munibe plazan, Espoloian eta San Martin plazan. 130.000 eurotako aurrekontua dute jaiek.

**KOADRILEN EGUNA**
Aurten ere astelehena da koadrilen eguna. Joan den urteko arrakasta ikusita, 400 txartel jarriko dituzte salgai herri bazkarirako, iaz baino 100 gehiago. Bazkaria eginda ekarriko dute aurten eta menua aukeratzen ari dira egun hauetan. Koadrilen arteko jokoak ere egingo dituzte aurten ere plazan.

**BARRAKAK, MERKEAGO**
Martitzena umeen eguna izango da. Jolas parkea eta herri trena izango dute goizean eta arratsaldean eta baita, besteak beste, gaztetxoendako dantzaldia ere Muniben iluntzean. Ekainaren 5ean, 11:00etatik 15:00etara eta ekainaren 7an egun osoz, merkeago izango dira barrakak: euro bat bi bidaiak.

**BEDERATZI TALDE TXOSNETAN**
Bederatzi taldek osatzen dute aurtengo txosnen batzordea. Karpa handi bat eta txosna bat jarriko dituzte Bideberrin eta beste txosna bat plazan. Egitarau propio bat antolatuko dute txosna gunerako eta ekitaldiak lotzen ari dira egun hauetan.
Udal egitaraua, bestalde, inprentan dago eta jaien bezperan banatuko dute, maiatzeko azken astean. 6.000 ale banatuko dituzte etxez etxe.

**ETXEBIZITZA** > 2008RAKO BUKATU NAHI DITUZTE

# Datorren urtean egingo dute San Antonioko 22 etxebizitzen zozketa

Batzuk etxebizitza berreskuratzeko eskubidea dutenendako dira eta gainerakoak alokairuan emateko

**O.E.** > BERGARA
Jabier Madrazo Etxebizitza sailburuak eta Victoriano Gallastegi alkateak atzo, eguena, jarri zuten lehen harria San Antonion egiten ari diren etxebizitza babestuetan. Lanak hasita daude eta 2007. urte bukaerarako amaitu nahi dituzte.

**22 ETXEBIZITZA**
Guztira 22 etxebizitza egingo dituzte: horietako batzuk etxea berreskuratzeko eskubidea duten herritarrendako izango dira eta gainerakoak alokatu egingo dituzte. Bergaran errolddatuta dauden 213 lagunek dute eginda alokairu eskaera Etxebiden, eta horien artean zozketatuko dituzte San Antonioko etxebizitzak. Zozketa, baina, lanak bukatzear daudela egingo dute; datorren urtean, beraz. Hiru etxebizitzak lau logela izango dituzte, bederatzik hiru, zortzik bi eta bik logela bakarra. Trastelekua dute guztiek. Etxebizitzekin batera, 14 aparkaleku ere egingo dituzte.

**BABESTUTAKO ETXE GEHIAGO**
Jabier Madrazo sailburuak esan duenez, etxebizitza horiek ez dira Bergaran egingo dituzten babestutako etxebizitza bakarrak. Momentuz, bi hitzarmen dituzte sinatuta Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eta Udalak: Algodonerako lurretan 40 etxebizitza babestu egingo dituzte eta Candy lantegiaren ondoan, beste 80. Gune horretan 128 etxebizitza egingo dituzte guztira. Proiektu horiez gain, etxebizitza hutsak betetzen eta erosteko eta eraberritzeko laguntzak ematen jarraituko dutela esan du Madrazok.



**HARRIA** Alkateak eta sailburuak jarri dute lehen harria. O.E.

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

**Alejandro Arroyo** > Erretiratuen presidentea

# "Gazte erretiratzen direnak ere animatu gura ditut bazkide egitera, merezi du-eta"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Alejandro Arroyo da erretiratuen presidentea datozen bi urteotarako. Hamar lagunek osatzen dute zuzendaritza batzordea, baina eurekin batera egiten dute lan beste sei boluntariok ere. 1.600 bat bazkide dira guztira elkartean.**



Alejandro Arroyo, San Joxepe elkarteko bolatokian. O.E.

**Zein da datozen bi urteotarako duzun erronka?**

Nahiko nuke jendea animatzea zuzendaritza batzordean sartzeko. Azken urteotan dugun arazoa da zuzendaritzako kide izateko jendea falta dela, ez direlako animatzen. Beldur hori kendu nahiko nieke. Bestalde, 20 bat boluntario ere badaude loreak zaindu, sistema informatizatu eta beste hainbat lan egiten dituztenak, eta horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

**Ze erantzun izaten dute antolatzen dituzuen ekitaldiek?**

Oso ona. Irteerek arrakasta handia izaten dute. Irailean, adibidez, Portugalera goaz. Bi autobus bete dira dagoeneko eta jendea itxarote zerrendan dago. 84 eta 85 urtekoak ere animatzen dira irteeretara. Gimnasian eta informatikako ikastaroetan ere asko dabiltza, koroan 40 bat lagun daude eta eskulanen ikastaroetara ere asko apuntatzen da.

**Zenbatean behin batzen zarete horiek antolatzeko?**

Bizpahiru bilera egiten ditugu hilean, eta abenduko musika astean eta halako ekitaldi zehatzetan, egunero.

**Lanean jarraitzeko hartu duzue erretiroa?**

Hau ez da lana. Gainera, ez dugu obligazioagatik egiten, gustura gabiltzalako baizik.

**Egia da erretiratuok ondo baino hobeto bizi zaretela?**

Ni neu, behintzat, ez naiz gaizki bizi, egia esan, eta uste dut berdin gertatzen zaiela besteei ere. Erretiratuta egoteak desabantaila batzuk ere baditu, osasun aldekoak batez ere, baina abantailak gehiago dira. Bizimodu berri honi ere etekina atera behar zaio. Garrantzitsuena da gogotsu egotea, gauzak egitea; horrek ikaragarri laguntzen du.

**"Irteerek arrakasta handia izaten dute; 84 eta 85 urtekoak ere apuntatzen dira"**

**"Dugun arazo handiena da jendeak ez duela zuzendaritza batzordeko kide izan nahi"**

**Zer duzue antolatuta orain?**

Toka, bolo-joko eta igel-toka txapelketak egingo ditugu laster, esaterako. Horrez gain, jarraituko dugu xake, billar eta karta txapelketak ere antolatzen. Bestalde, proiektu bat dugu Caritasekin batera; etorkinek gure informatika gela erabili ahal izateko proiektua da. La Caixari esker ondo egokituta dugu gela eta etorkinei ere utzi nahi diegu euren etxekoekin harremanetan jartzeko, lana aurkitzen laguntzeko edo beste edozein beharretarako.

**Zer esan gura diezu herriko erretiratuei?**

Batzuek erreparoarekin ikusten dute erretiratuen elkartea. Ez dakit zer ikusten dioten, baina nik barrutik ezagutzera gonbidatu nahi ditut; bertatik bertara ikus dezatela zer egiten dugun, nola antolatzen garen. Normalean adinean aurrera doazenean etortzen dira bazkide egitera, baina gazte erretiratzen direnak ere animatzen ditut, merezi du eta.

> GOIESKOLA

## Euskal jokoen eguna egingo dute Labegaraietan Goieskolako laugarren mailako ikasleek

Euskal jokoen eguna egingo dute maiatzaren 19an Labegaraietan Goieskolako laugarren mailako ikasleek. Guztira 9-10 urte bitarteko 300 ikasle baino gehiago etorriko dira, eskualdeko Goieskolakoak ez ezik, baita Soraluzekoak ere. Goizean zehar herri kirolak egingo dituzte: txingan, sokatiran, zaku lasterketan, harri jasotzen eta arto-buruak batzen, besteak beste. Eguerdian, etxetik ekarritako ogitartekoa jango dute bazkaltzeko eta arratsaldean, berriz, hamar joko tradizionaletan ibiliko dira: goman, diaboloekin, sokasaltoan eta boloekin, besteak beste. Elgetan antolatu zuten lehenengo aldiz egun hori duela bost urte, eta harrezkero herri ezberdin batean egiten dute urtero.

> ERREGE BEZPERA

## Fiskalak lau urte eskatu ditu gizon bati haginkadaz atzamarra moztu zion lagunarendako

Fiskalak lau urteko espetxe zigorra eskatu du haginkada batez beste bati atzamarra moztu zion lagunarendako, informazio agentzien arabera. 2004ko urtarrilaren 6an gertatu zen, goizeko seietan, datuen arabera. Bi lagun liskarrean hasi ziren taberna baten eta batek ezkerreko eskuko atzamar lodia moztu zion besteari haginkadaz. Ondorioz, zaurituari atzamarraren zati bat kendu behar izan zioten eta azal-mentua egin (injertoa). Egun, artikulazioa mugatua du, kalte estetiko arinaz gain. Horregatik, 7.000 euroko kalte-ordaina ere eskatzen du fiskaltzak. Baina akusatuak ere zauriak jasan zituen, eta fiskaltzak eskatzen du anputazioa izan duenak ordaintzeko 450 euroko isuna eta 210 euroko kalte-ordaina.

> ENPRESENDAKO MINTEGIA

## Enpresen webgune eraginkorrak nola egin erakutsiko dute martitzenean Miguel Altunan

Enpresetako webgune eraginkorrak egiten erakutsiko dute hilaren 16an Miguel Altuna Institutuan. Bi orduko mintegia antolatu dute horretarako eta autonomoei eta enpresa txikietako profesionalei dago zuzenduta. Enpresaburuaren beharretara, praktikotasunera, egokitutako mintegia da: aztertuko dute nolako enpresa den, zer egiten duen eta zer informazio eman, erakutsi edo saldu gura duen webgunearen bitartez. Miramon Enpresa Digitalak antolatu du aipatutako mintegia eta interesa dutenek izena eman behar dute telefono zenbaki honetan (943 74 73 14) edo helbide honetan (*www.miramondigital.com*). Ekainean, enpresaren baliabideak nola banatu aztertzeko egingo dute beste mintegi bat.

> TEKNOLOGIEI BURUZKO HITZALDIA

## Gurasoendako hitzaldia antolatu dute teknologia berrien onurei, kalteei eta erabilerari buruz

Gurasoek teknologia berriak hobeto ezagutzen laguntzeko hitzaldia antolatu du Udaleko Gizarte Ongizate Saileko Prebentzio Zerbitzuak. Familia barruan teknologia horiek ekar ditzaketen onurak eta kalteak, teknologia horiekiko mendekotasuna dagoen edo ez atzemateko irizpideak eta eskua hartzeko estrategiak izango dira hitzaldiko gaiak, besteak beste. Azken urteotan teknologia berriek izan duten iraultzak ezinbesteko bihurtu du euren erabilera. Gurasoek ere seme-alabek beste ezagutu behar dituzte, arriskurik ez sortzeko, eta horregatik antolatu dute hitzaldia. Maiatzaren 31n da hitzaldia, kultura etxean, 18:30ean, baina hilaren 19a baino lehen eman behar da izena ikastetxean edo udaletxean.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

**AISIALDIA** > JARDUN ELKARTEA

# Jolasleku ibiltaria jarriko dute abian gaur

Maiatzean hiru saio egingo dituzte: lehena gaur, Espoloian, 17:00etatik 19:00etara

Euskal kantuekin eta jolasekin gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek



**GAZTETXOAK** Jolaslekua 6-12 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Zazpigarren urtez, Jardun euskara elkarteak Jolasleku Ibiltaria egitasmoa jarri du abian. Bereziki 6-12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta euskal kantuen eta jolasen bidez, euskaraz gozatzeko baliabide egokiak eskaintzea eta, aldi berean, ahozkotasuna lantzea da helburua.

Jolasleku ibiltariaren lehenbiziko saioa gaur, egubakoitza, izango da Fraiskozurin, 17:00etatik 19:00etara. Hurrengo bi egubakoitzetan, ordu berean, Espoloian (hilaren 19an) eta Simon Arrietan (maiatzaren 26an) izango da jolasleku ibiltaria.

Hain zuzen ere, umeak eta gurasoak eta zaintzaileak ibiltzen diren tokietara eramango dute jolasleku ibiltaria. Esan bezala, gaztetxoei zuzendutako jolasak antolatuko dituzte: soka saltoa, zapi jolasa, tortoloxak, baloiarekin jolasak.... Eta euskal kantuak abesteko aukera izango dute baita gaztetxoek: *Lehoi baten bila*, *Epo! Itaitaie!*, *John Brown* eta beste hainbat.

Begirale lanetan Ariane Alberdi, Leire Iruin, Olatz Larrañaga, Nerea Telleria eta Lorea Ugarte arituko dira. Jarduneko dinamizatzaile den Itxaso Mendizabalek zera esan digu: "Aurreko urteotan erantzun ona jaso dugu. Iaz, esaterako, 50 ume izan ziren saio bakoitzean, eta aurten antzeko kopuru bat izatea espero dugu. Ea eguraldiarekin zortea dugun... Aukera polita da umeak elkarrekin ondo pasatzeko, askotan ez baita egoten horrelako jolasak egiteko aukera".

**OLINPIADAK BIHARTIK**

Bestalde, Jarduneko aisialdi eskaintzaren barruan, gaztetxoen Olinpiadak jokatuko dira bihartik aurrera. 9 eta 12 urte bitarteko zortzi taldek hartuko dute parte eta hurrengo bost zapatuetan (Pazkoetakoa kenduta) izango dira probak.

Lehenbizikoa bihar, zapatua, izango da Munibe plazan, 16:00etan hasita. Herri jolasak izango dituzte gaztetxoek. Hurrengo zapatuan, hilaren 20an, *Sormena landuz* izenburuko jardunaldia jokatuko da Arrizuriagan, ordu berean. Gaztetxoen Olinpiadak ekainaren 17an bukatuko dira.

**ZAPI LEHIAKETA PAZKOETARAKO**

Azkenik, Pazkoetarako zapi lehiaketa deitu du Jardunek. Bergarako jaietan aterako duten zapia apaintzeko erabiliko dute marrazki irabazlea. Bergaran erroldatuta dagoen edonork har dezake parte lehiaketan eta lanak jasotzeko epea astelehenera arte luzatu dute. Irabazleak 60 euroko saria jasoko du. Edozein argibidetarako 943 76 36 61 telefono zenbakira deitu dezakezue.

**ERAKUSKETAK** > MUSIKA, ARGAZKILARITZA ETA PINTURA

# Hiru erakusketa ikusgai daude Bergaran egunotan

Mundu guztiko musika instrumentuen erakusketa Aroztegin, hilaren 28ra arte

**E.M.** > BERGARA

Hiru erakusketa ikusgai dira herrian egunotan: Aroztegi aretoan, *Ikusteko musika, mundu guztiko instrumentuak* erakusketa zabalik izango da maiatzaren 28ra arte, aste barruan 18:30etik 21:00etara eta zapatu eta domeketan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara. Mundu zabaleko hainbat etnia eta kultura musikaleko 150 instrumentu ikusgai daude.

**IBARTZABALEN ERAKUSKETA**

Bestalde, kultura etxean, Oñatiko Natur Eskolaren eskutik, *Hegazti sarraskijaleak* argazki erakusketa egongo da zabalik maiatzaren 20ra arte.

Azkenik, Iñaki Ibartzabalek bere lehenbiziko erakusketa zabaldu berri du Nahikari tabernan. Ibartzabal Rikardo Azkargortaren ikaslea da eta lan koloretsuak ekarri ditu Nahikariko erakusketara.

**MUSIKA** > ETZI, DOMEKA, GAZTETXEAN

# Señor No eta Nitwitz taldeek kontzertua egingo dute

Nitwitz taldea Europako punk-rockaren aitzindarietako bat da

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Txapa Irratiak kontzertu ikusgarriak antolatzen dihardu. Etzi, domeka, Holandako Nitwitz eta Donostiako Señor No eramango ditu gaztetxera 20:00etan. Elkarrizketa egingo diete irratian, eta horren ostean, kontzertua irratiaren bidez jaso eta emango dute.

**PUNK-ROCKAREN AITAJAUNAK**

Señor No taldeak ez du aurkezpenik behar. Nitwitzek, ordea, bai. Amsterdamgoak dira eta Tony Slug ipurterreak gidatzen ditu. Slugek hainbat talde izan ditu: BGK (hardcorea), Loveslug (rockzaleagoa) eta Hydromatics (Hellacopters eta Sonic´s Rendezvous Bandeko lagunekin), besteak beste. Nitwitzek Turbonegroren hastapenetako punk-rock gogorra egiten du.



**LUXUZKO GONBIDATUA** Nitwitzekoek Señor No izango dute lagun. GOIENKARIA

etxalar
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

GAZTELU
BURDINKI DENDA
Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

## JANTZIDENDAK
**Bergara Piel.** Espaloia 6
**Gallastegi.** San Pedro 15
**Jauja kiroldenda.** Irizar 3
**Laket.** Barrenkalea 35
**Mujika jostundegia.** San Martin plaza
**Subijai.** Irizar 1
**Xuxu.** San Pedro 14
**Zatoia.** Barrenkalea 4
**Zubikua.** Barrenkalea 24
**Gabilondo.** Irala 5

## OINETAKOAK ETA POLTSAK
**Agirrebeña.** Urteaga 5
**Aldasoro.** Espoloia 4
**Carmen Garate.** Bidekurutzeta 15
**Galarreta.** Irizar 2
**Lazkano.** Barrenkalea 15
**Lonbide.** Bidekurutzeta 5
**Retegi.** San Pedro 18
**Egizabal.** Bidekurutzeta 13

## BURDINDEGIAK-BRIKOLAKETA LOREAK ETA PENTSUAK
**Ardatza brikolaketa.** Masterreka 4
**Gaztelu burdindegia.** Mintegi 1
**Gisasola burdindegia.** San Pedro 8
**Mujika burdindegia.** Bidekurutzeta 8
**Narbaiza pentsuak.** Masterreka 22

# Denda txikietan tratu zuzena, konfiantza eta gertutasuna!

## Bergara, zure zentro komertziala

BEDELKAR
BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

## HARATEGIAK
**Igarza J.J.** Irizar 3
**Imaz S.** Aranerreka 1
**Leturia J.M.** San Pedro 24
**Rezola L.M.** Matxiategi 7
**Urzelai P.** Ibargarai 7

## PAPERDENDAK-TINDATEGIAK-BESTE
**Elkar fotokopiadenda.** Artekalea 1
**Marcó.** Bidekurutzeta 44
**Onena tindategia.** Barrenkalea 29
**Renteri tindategia.** Ikerleku 4
**Keros markogintza.** Espaloia 4

## ELEKTRAGAILUAK
**Biltoki.** Barrenkalea 6
**Herran.** Matxiategi 3
**Radio Bergara.** San Pedro 25
**Santos RTV.** Masterreka 2

## PERFUMERIAK ETA ZERBITZUAK
**Tantana.** Irala z/g
**Goiara.** Irala 3
**Barcelo bidaiak.** Ibargarai 8
**TGB aholkularitza.** Matxiategi 36

## OPTIKAK-BITXITEGIAK-ARGAZKIAK
**Argazki.** Barrenkalea 16
**Etxeberria.** Bidekurutzeta 16
**Kiñu.** Barrenkalea 35
**Manso optika.** Irizar 2

## MERTZERIAK-LENTZERIAK
**Gantxegi.** Aranzadi 2
**Gracian Agirre.** Bidekurutzeta 6
**Igarza.** Irala 5
**Itziar.** Matxiategi 1
**Juana elgetarra.** Zubieta 28
**Mirari.** Martoko 32
**Nerea.** Simon Arrieta 1

## OIHALAK - OPARIAK
**Anezka.** Espoloia 8
**Edel tapizdenda.** Bidekurutzeta 14
**Fernandez.** Ibargarai 2
**Maher.** Bidekurutzeta 29
**Txokolate.** Barrenkale 28
**Jolas.** Barrenkale 27

## OSTALARITZA
**Arrano.** Kruz Gallastegi 5
**Azpeitxi.** Aranerreka 13
**Erreki.** Fraiskozuri 3
**Euskalduna.** Osintxu
**Guria.** Bidekurutzeta 5
**Lasa.** Ozaeta jauregia
**Miner banatzailea.** Matxiategi 23
**Pol-Pol.** Komenio kalea 11
**Sirimiri.** Barrenkalea 3
**Zabala.** Ibarra 14
**Zumelaga.** San Antonio 5

## ALTZARIAK, DEKORAZIOA
**Biltoki.** San Martin plaza 2
**Edertu.** Barrenkalea 23
**Guridi.** Artekalea 8
**Kanela.** Espoloia 10

## JANARIDENDAK
**Hurbil dietetika.** Aranzadi 2
**Itxas Eder arraindegia.** Mintegia 5
**Kabutzia arraindegia.** Fraiskozuri 6
**Larrañaga gozotegia.** San Pedro 9
**Mujika gozotegia.** Artekalea 3
**Txukun.** Fraiskozuri 6
**Zapaterikua.** Joan XXIII.a plaza.

**FUTBOLA** > AZKEN JARDUNALDIA ERREGIONALEAN

# Bergarak denboraldi osoko lana du jokoan

## Bergarak Pedruskoren kontra jokatuko du domekan Ligako azken norgehiagoka (17:30)

## Zumaiakok Bergarak beste puntu ditu, baina mahoneroena da golen abantaila

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Erregional mailako azken jardunaldia jokatuko dute asteburuan. Dagoeneko jakina da inork ez diola Urolari lekua kenduko; Zumarragakoena da Liga, eta eurena izango da Preferentera igotzeko txarteletako bat. Bergarak, baina, oraindik badu gora egiteko aukera, bigarren sailkatzen denak mailaz igotzeko fasea jokatuko du-eta.

Orain momentuan Bergara dago bigarren lekuan (62 puntu), baina golen abantaila aldeko dutelako daude mahoneroak postu horretan, Zumaiakok ere puntu kopuru bera du-eta, hirugarren sailkatuta. Aurrekari horrekin gauza bat dago argi: domekan jokatuko duela Bergarak urteko partidu garrantzitsuena. Bergarako entrenatzaile Josu Zubia ere uste berekoa da: "Urteko lana izango dugu jokoan. Denboraldi txukuna egin dugula uste dut, baina domekan irabazten ez badugu ez du baliorik izango".

**BERGARAREN ESKU**

Zumaiako gain-gainean badago ere, Bergarak gauza bat du ona, euren esku dagoela dena: "Gurago dut gu gauden moduan egotea, Zumaiakok gure emaitzaren zain egon behar du-eta. Dena dela, euren kontra jokatu izan dugunean gehiago garela erakutsi dugu, eta zelako urtea izan dugun ikusita, sailkatzea merezi dugula uste dut". Egia da Bergarak uste baino zailtasun handiagoak izan dituela: "Epaileen erabakiek ez digute batere onik egin, eta, egia esateko, zortea ere ez dugu aldeko izan". Urolaren kontra jokatzeke geratu ziren bost minutuei garrantzirik ez emateko, domekan Pedrusko talde beteranoa mendean hartzea da irtenbidea. Bergarako zaleek Agorrosinen dute hitzordua.



**AZKENA** Bergarak Agorrosinen amaituko du denboraldia. I.A.



GOIENKARIA

## Kadete mailakoak derbi erabakigarrian

Kadeetako bigarren mailan, igoera fasean dabiltza buru-belarri Bergara eta Arizmendi Aretxabaleta. Hala, asteburuan bi talde horiek derbia jokatuko dute, derbi erabakigarria. Aurreneko postuetan buru-belarri dabiltza bi talde horiek, eta asteburuan norgehiagoka irabazten duenak erdietsiko du goiko mailara igotzeko txartela. Aretxabaletan jokatu zutenean erretratuan dauden mahoneroek alde txikiagatik irabazi zuten (2-3).

> ESKUBALOIA

### Kopako lehen faseko azken jardunaldia jokatuko du Bergarak

Etxetik kanpora jokatuko dute mahoneroek norgehiagoka hori, printzipioz kategoriako kontrario makalenaren kontra, Allerruren kontra, hain zuzen. Azken jardunaldi horretan Bergarakoek dezente dute jokoan: partidu hori irabazita, asteburuan atseden hartuko duen Urolari lehenengo postua kenduko liezaiokete, eta etxeko taldeak lider moduan gainditzuko luke lehenengo fasea.

Uste baino garrantzitsuagoa da hori, oraingo fasean lehenengo sailkatzen denak etxean jokatuko du-eta Kopako hurrengo kanporaketa erabakigarria.

> FUTBOLA

### Datorren astelehena txapelketetan izena emateko azken eguna

Bergara Kirol Elkarteak hainbat futbol txapelketa jarri ditu abian, herrian kirola bultzatzeko asmoarekin. Guztira hiru txapelketa izango dira: adin mugarik gabeko futbol txapelketa batetik; beteranoen futbol zazpiko txapelketa bestetik; eta emakumeen futbol zazpiko txapelketa azkenik. Txapelketa bakoitzak egutegi propioa izango du, eta hori guztia argitzeko batzarra egingo dute maiatzaren 20an, 12:30ean Agorrosinen. Astelehena, hilak 15, da izena emateko azken eguna.

### labegaraieta

**PARTIDUAK (KOPA FINALERDIAK)**

**Maiatzak 14, domeka (barruan)**

| | | |
|---|---|---|
| 16:30 | Kalaveras - Teatekh | Makanaki |
| 17:30 | Paco Cia - Makanaki | Sailkatu dena |

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Makanaki - Niu Tim | 4-3 |
| Paco Cia - Agirrebeña | 6-5 |
| Guri Guri - Errotagain | 0-3 |
| Kalaveras - Guri Guri Errotagain | 3-3 |

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918


Ion Murgizu margoak
Margolanak orokorrean
Margo dekoratiboa
Margo industriala
Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iiion@euskalnet.net

mingainari tiraka

Gorka Elkorobarrutia > Udaltzaina

# "Dispertsioari ipiniko nioke 'stop' seinalea"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Gorka Elkorobarrutia Elorriokoa da, baina Bergaran dihardu udaltzain lanetan. Hilabete inguru baino ez du egin lantoki berrian eta oraindik Bergarako txokoak ezagutzen ari da. Bere lanari buruz jardun dugu.**

**Zure lanaren alde onena eta txarrena?**
Onena, beti gauza ezberdinak egiten ditugula eta kalean egiten dugula lan. Baina horrek badu bere alde txarra ere: euria eta hotza jasan beharra.

**Isun asko ipintzen dituzu?**
Ez, herri honetan isun gutxi ipintzen direla uste dut.

**Eta zuri ipini dizkizute?**
Bai, batzuk bai. Azkar gidatzeagatik eta autoa gaizki aparkatzeagatik jaso ditut; baina onartu eta kito.

**Nori ipiniko zenioke gustura isuna?**
Gustuz inori ere ez, baina zerbait gaizki eginez gero edo autoa traban lagatzen badute, gidari horiei ipini egin behar zaie.



**Zein egoeraren aurrean ipiniko zenuke *stop* seinalea?**
Dispertsioaren aurrean. Lehenago egin behar bazen ere, orain egoera politiko ezin aproposagoa da dispertsioa gelditzeko.

**Udaltzain izateko prestakuntza berezirik behar da?**
Ez. Oposizioetarako ikastea eta sasoi fisiko egokian egotea dira baldintzak.

**Herriko lekurik arriskutsuenak?**
Oraindik herria ezagutzen ari naiz, baina lekuak baino jendearen jarrerak dira arriskutsuagoak: gaizki aparkatzea, bidea leku okerretik gurutzatzea...

**Uniformea janztea gustuko duzu?**
Udaltzainarena bai, besterik ez dut uste jantziko nukeenik.

**Garabiarekin zein auto hartuko zenuke zuretzat balitz?**
Auto karabana bat, edozein tokitara bidaiatzeko. Gertatutako furgoneta badut, baina hobea nahi nuke.

bere ustez


Ainhoa Agirreazaldegi

## UPN-PNV: bakoitza bere bidean

Nafarroan bada Baldorbaraino iristen den kanal erraldoi bat, Canal de Navarra deitzen dutena, proiektuan zioenez nekazariei ura banatzeko omen zena. Proiektua errealitate bihurtu da, eta errealitatea gordinagoa da.

Nafarroan bada kanal erraldoi bat, nekazariei ura banatzeko balio ez duena, nekazari bakoitzari ureztatu nahi duen area bakoitzeko izugarrizko dirutza eskatzen diotelako orain. Baina UPNko buruen konstruktora gosetientzako izugarrizko pagotxa izan dena, kanala eraikitzea milaka milioi euro kostatu baita eta nafarrek kreditu hori ehun urte baino gehiagoan ordaindu beharko baitute.

**"Nafarroan bada kanal erraldoi bat, nekazariei ura banatzeko balio ez duena"**

Beraz, Nafarroan bada kanal erraldoi bat, proiektuan UPNko zenbait politikoren poltsikoentzako diru iturri izan behar zuena eta errealitatean ere halaxe dena.

EAEn ere bada proiektu bat, Abiadura Handiko Trena deitzen dutena, merkantziak eta jendea eramateko balioko omen duena...

Nafarroan, UPNren boto emaile gehienak ez ziren ohartuko beren partiduak utzi dien zorraz, ezertarako balio ez duen eraikina eginez. Eta EAEn? Pasa ezazue mezua SMS bidez, mesedez.

kanpotarrak bergaran

Ann Kathrin Losenbeck > Ikaslea
Alemaniarra da

# "Hirikoa naiz, eta herri txikiaren abantailak estimatzen ditut"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Hanburgokoa, alemaniarra, da Ann Kathrin. Orain dela bost urte Bergarako mutil bat ezagutu zuen, Montpellierren, frantsesa ikasten ari zela. Harekin harremanetan segitu eta Bergarara etorri zen urrian.**

Aurrez oporretan etorria zen Bergarara eta urrian itzuli zen, oraingoan bertan geratzeko.

Hiriarekin alderatuz Bergara txiki geratu zaio, baina "herri txikiaren abantailak estimatzen ditut", esan digu. "Nahiz eta kanpotik etorri, harremanak egitea errazagoa da; kalera irten eta beti aurkitzen da ezagunen bat".

Bergaratik gehien zer gustatzen zaion galdetuta, inguruak atsegin dituela esan digu Ann Kathrinek.

"Jende jator asko ezagutu dut. Pentsatzen nuen hizkuntza ere oztopo izango zela, baina pixkanaka ikasten ari naiz eta uste baino hobeto moldatu naiz".

**"Hizkuntza oztopo izango zela uste nuen, baina pixkanaka ikasten ari naiz eta uste baino hobeto moldatu naiz"**


Ann Kathrin Losenbeck.

Koadriletan elkartzeko dugun ohiturak harritu du: "Alemanian jendea gehiago mugitzen da eta lagun talde ezberdinekin ibiltzeko joera dago".

**LANERAKO GOGOZ**

Gaztelania ikasten dihardu eta informatika ere ikasi nahi du. Aurrerago euskara ere ikasiko du, gogorik ez zaio falta.

Ikasteko ez ezik lanerako gogoa ere badu: "Nire asmoa da hemen inguruan lanen bat aurkitzea baina horretarako gaztelania hobetu beharko dut. Enpresa ikasketak egin ditut eta horrekin lotutako zerbait egin nahi nuke hainbat hizkuntza hitz egiten ditudala baliatuz".

Lagunen eta familiakoen falta sumatzen du batik bat baina pixkanaka ohitzen ari da hemengo bizimodura eta jatekoetara. "Alemanian jatordu bero bakarra egiten dugu astegunetan, baina hemen bertako ohituretara egokitu naiz, eta hala beharko dut luzaroan geratu nahi baitut" .

GAK
Garbiketa, Administrazioa eta Konponketak
Era guztietako garbiketak
•
Zuen komunitateko administrazioa
•
Konponketa orokorrak
•
Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe.
Tel.: 653 70 45 47 OÑATI

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA
Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Osteopatia
Errehabilitazioa
Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

SONIA TRIGUERO
Psikologoa / Psikoterapeuta
Edozein kontsulta egiteko:
Zuzendu Estetika eta Errehabilitazio Zentroa.
Tel.: 943 72 52 62
Poltsikoko tel.: 616 31 84 24


Euskal herria
mendia, kultura, natura, bidaia aldizkariak
aurkezten du
Mundumira
munduko kulturen festa
Oñati-Debagoiena maiatzak 26·27·28
AMPARANOIA
MAL de OJO
TERRAFOLK
NINO GALISSA
JUSTIN VALI Madagascar
MARIEM HASSAN Rep. Saharaui
AKLISO Costa de Marfil
PAULINHO LÊMOS Angola Brasil
SAKAPATU Chile Perú
TENZIN CHOEGYAL Tibet
JUAN MARI BELTRAN EH
12 TRIBU EH
ORQUESTRADA Portugal
MAMBO TAXI Cuba
PEIO RAMIREZ EH
DÚMBALA CANALLA Catalunya
DEABRU BELTZAK EH
902 181 471
www.mundumirafesta.com
Antolatzaileak:
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
TURISMO · KULTURA
gintonic
Euskal herria
Babesleak:
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
GARAIA
TERNUA
EROSKI
ekar
Kaiku
ULMA
EROSKI bidaiak
LANA
FAGOR
Obra Social Fundación "la Caixa"
AZK
GEM
Lorpen
Kolaboratzaileak:
radioeuskadi
euskadigaztea
Goiena
mendiak eta herriak


Otala Zelai
eguna 2006
Maiatzaren 14an, domekan
Hurreratu
dadila jendea!
Aretxabaletako
Udala

140 urtetik gora dituen erromeria egiten da maiatzaren 12 osteko lehen domekan

Gura beste sagardo egongo da edateko goiz partean, kupela eramango dutelako

Udalbatzarreko kideak eta auzo alkateak autobidearen ibilbidea ikustera joango dira

**ERROMERIA** > OTALA ZELAI EGUNA

# Herritarrek paregabeko giroa sortuko dute etzi Otala Zelain



**ERROMERIA** Otala Zelai egunak ume zein nagusiak elkartzen ditu Aozaratzan dagoen zelaian, eta giro bikaina egoten da. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Domekan, maiatzak 14, Otala Zelai eguna ospatuko dute aretxabaletarrek. Garai bateko erromeria giroa sortuko dute herritarrek Aozaratzan dagoen zelaian, Kultura Sailak antolatutako ekintzei esker.

**140 URTEKO ERROMERIA**
Otala Zelai egunak 140 urtetik gora ditu, eta badaude hori adierazten duten idatziak. Domingo deunaren eguna da maiatzaren 12an eta osteko lehenengo domekan ospatzen zuten Otala Zelai eguna. Inguruko zezenik onenak aukeratzeko elkartzen ziren maiatz erdian Aretxabaletako auzoetako baserritarrak. Gero, aukeratutako zezenak basora bidaltzen zituzten behiekin ibil zitezen. Auzotarren elkartze egun hark erromeria eguna ekarri zuen ondoren eta familiak bazkaria aldean hartuta hasi ziren Aozaratzako zelaira hurreratzen.

**BERTSOLARI ETA TRIKITILARIAK**
Garai baten bezalaxe, aurten ere aretxabaletar asko joango da Otala Zelaira. Lehenengo orduan lasterketak egongo dira gazte zein nagusiendako, eta sariak banatu ostean makina bat ekitaldi antolatu dute jai giroa sortzeko: animaliekin jolasak, bertsolariak, Laja trikitilaria, dantza, eta abar; baita gura beste sagardo ere, goiz partean kupela egongo delako. Paella txapelketak usain goxoa eramango du zelaira; oinarrizko osagaiak antolatzaileek emango dizkiete parte-hartzaileei eta gainerakoak norberak eraman beharko ditu. Txapelketarako, baina, aurrez eman behar da izena eta gehienez ere hiru kideko taldeek jardungo dute; hori bai, zortzi lagunendako paella egin beharko dute. Gainerako herritarrek bazkaria aldean eramango dute. Loramendi Dantza Taldeko dantzari txikienek erakustaldia egingo dute jendaurrean. Beste ohituretako bat da, eta 5 eta 6 urteko umeekin batera gainerako dantzariak egongo dira. Hori guztiori Aozaratzako zelaian egiteko, eguraldiak lagundu egin behar du; bestela, ekitaldiok Iturrigorri frontoian egingo dituzte-eta.

**AUTOBIDEAREN IBILBIDEA**
Otala Zelai egunean udalbatzarreko kideak eta auzo alkateak elkartzen dira Udal idazkariarekin batera herriko mugarriak ikustera joateko. Ingurumen zinegotziak gertatu ohi du ibilbidea, eta autobideak Aretxabaletan izango duen ibilbidea ikustea proposatu zuen Joxe Anjel Antxiak. Isurietako auzo alkate Luis Otaduiri aipatu, eta hark gertatu die irteera gainerako kideei. Hori horrela, Arbi Zelai paretik atera eta Isurietatik bueltan Gellaorantz joko dute, eta handik Apotzaga-Etxebarrira.

Irteera egin ondoren Matikua jatetxera bazkaltzera joateko ohitura dute "adiskidetasun bazkaria" egiteko. Aurten ere gertatuko dute bazkaria Matikuan, baina Aralar alderdiko zinegotziak ez dira joango, azken hilabetean EAJrekin izan dituzten tirabiren ondorioz. Alkatea bera ere ez da egongo, bidaian delako aste guztian.

## Otala Zelaiko ekitaldiak

**Maiatzak 14, domeka**
- 10:00etan: umeendako lasterketak.
- 11:00etan: 28. Otala Zelaiko krosa, Urkulu urtegiari itzulia.
- 12:00etan: krosaren sari banaketa.
- 12:10ean: animaliekin jokoak.
- 12:30ean: Leizarra musika eskolako trikitilariak.
- 13:00etan: paella txapelketa. Izenematea: 5 euro.
- 13:30ean: bertsolariak eta sagardo kupela.
- 14:00etan: herri bazkaria norberak eramanda.
- 15:30ean: umeendako herri kirolak.
- 16:00etan: dantzaldia Txinparta taldearekin.
- 18:00etan: Loramendi Dantza Taldearen dantza saioa.
- 19:00etan: dantzaldia Txinparta taldearekin.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**POLITIKA** > BATZORDEBURU BERRIAK IZENDATUTA

# EAJ-EAren eta Aralarren arteko tirabirek ez dute bukaerarik

Sarasua kanporatu osteko lehen osoko bilkuran batzordeburu eta ordezkariak izendatu zituzten

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Kultura Saila Galo Sanchezek hartu du, Euskara Maitane Urrutiak, Segurtasuna eta Herri Antolamendua Jesus Mari Herrastik eta Ingurumena alkateak berak. Mankomunitatean Xabierren ordezkoa Maitane Urrutia izango da; Udal Euskaltegian Mikel Uribetxeberria; eta Suradesan alkatea. Egun erdiko lan jarduna ere kendu egin zioten Sarasuari zazpi aldeko botorekin.

**AZALPENAK**

EAJ-EAk azalpenak eman gura izan ditu Sarasuaren kontuaren inguruan, oharra kaleratuta. Diote udal gobernua EAJ-EAren, Aralarren eta Ezker Batuaren artean osatzea erabaki zutela, taldeari aberastasuna ekarriko ziolakoan. Baina lantaldeko desadostasunak kanpora atera izan direla modu desegokian salatzen dute, gobernu-kideen haserrea sortuta. Ekimenak positiboak izan direnean bere lana balitz bezala zabaldu dituela Sarasuak salatzen dute, eta aldrebes gertatutakoan "besteen eta bereziki alkatearen erabakien ondorio izan balira bezala kaleratu".

Aralarrek, bestalde, argi utzi gura du gezurretara jo duela EAJk "beren burua zuritzeko". Gobernu batzordea aholku emaile hutsa dela gogorarazi du, eta alkateak duela boterea. Komunikabideetan beti Aralar taldea agertu izan dela argitu du eta Sarasua bozeramailea besterik ez dela. Aralarrek egindako lanak eta herritarrak jakitun egoteak eragin diela egonezina diote. Edonola ere, oposiziotik lanean segitu eta ezkerreko aliantza baten alde egingo dutela azaldu dute.

**JAIA** > UDABERRI JAIA ARIZMENDI IKASTOLAK ANTOLATUTA

# Lehenengoz antolatu duten Udaberri Jaiak 150 lagunetik gora elkartuko ditu Basabeazpin

Kukua izango da jaiko maskota eta ardia mutilduko dute artaziekin, udaberrian egiten den legez

**M.A.** > ARETXABALETA

Udaberrian bete-betean gaudela aprobetxatuta, Udaberri Jaia antolatu du Arizmendi ikastolak Basabeazpi gunean. Ekitaldi asko eta giro ederra aurkituko dituzte ume eta nagusiek bihar, zapatua.

**IRTEERA ETA JOLASAK**

Kukua aukeratu dute jaiko maskota, kukuak iragartzen duelako gurean udaberria. Irteerarekin hasiko dute eguna; Porrukotxarako basora joango dira 10:00etan, eta ondoren jolasak egingo dituzte: zaku lasterketa, lokotx batzea… Udaberrian egiten den legez, ardia mutilduko dute gero artaziekin eta ostean buruhandiak azalduko dira. 150 lagunetik gora elkartuko dira bazkaltzera, eta bildotsa izango dute jateko. Arratsaldean eskulan tailerrak eta ipuin kontaketa izango dituzte umeek, eta antzerkia gurasoek. 17:30ean esango diote agur jaiari kukuak eta Argitxok elkarrekin.



**AURKEZPENA** Argitxok aurkeztu zien Udaberri Jaia ikastolako umeei. M.A.

> IKASTAROA

## Emakumeentzako defentsa pertsonal ikastaroa egingo du Prebentzio Sailak hil bukaeran

Udaleko Prebentzio Sailak emakumeei zuzendutako defentsa pertsonal ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 20an eta 27an egingo dituzte saioak, 09:00etatik 12:00etara bitartean, Kurtzebarri eskolako gimnasioan. Izena aurrez eman behar dute interesatuek Prebentzio Sailean bertan, 10 euro ordainduta.

"Edozein emakumerentzako ikastaroa da", argitu du Iñaki Saez de Azkunaga Ongizate Saileko zinegotziak, "eta ez da tratu txarrekin lotu behar". Erreakzionatzeko gaitasuna, defentsarako erabil daitezkeen baliabideak, babeserako teknikak, eszenatokiaren kokapena eta beste hainbat kontu erakutsiko die Rafa Carriet Eskoriatzako Kenpoko irakasleak.

> ERLIJIOA

## 'Berbarik gabeko hizkuntza gaixoarekin' berbaldia egingo dute eguaztenean parrokian

Osasun Pastoraltzak antolatuta berbaldia eskainiko du eguaztenean, maiatzak 17, Vicky Irigaraik. *Zela erabili berbarik gabeko hizkuntza gaixoekin* gaia aztertuko du, parrokian, 19:00etan. Egun horretan ez dute mezarik esango. Hilaren 21ean, ostera, Gaixoen Pazkoa ospatuko dute, eta eukaristietan gaixoak izango dituzte gogoan.

Bestalde, parrokiako kideek jakinarazi gura dute parrokiako lokalak lekuz aldatu dituztela ustekabeko arazo tekniko batzuk tarteko. Herriko plazako 8. atartean izango dute orain egoitza, bi hilabetez; hala ere, postontziak lehengo lekuan jarraituko du. Parrokiako kideek eskerrak ematen dizkiete Timoteo Bengoa eta Mari Tere Cercadillori, lokal berria utzi dietelako.

> KULTURA

## Kultur elkarteei eta musika taldeei dirulaguntzak emateko oinarriak kaleratu ditu Udalak

Herriko kultur elkarteek urterako antolatu dituzten egitarauak garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen oinarriak kaleratu ditu Udalak. Proposatutako egitarauaren ezaugarriak, eskatzailearen ibilbidea eta finantza baliabideak aztertuko dituzte, eta gutxienez 50 puntu eskatuko dizkiote talde bakoitzari laguntzak emateko. Horretarako ia 30 mila euro bideratu ditu Udalak.

Bestalde, grabazioak egiteko eta beste kultur ekoizpen batzuetarako dirulaguntzak ere arautu ditu. Kultura Sailak jasoko ditu eskaerak eta 3.000 euro bideratuko dituzte. Dirulaguntzen oinarriak maiatzaren 10eko GAOn daude argitaratuta.

> HIRIGINTZA

## Epaiketa izan dute astean Andramari auzuneko bizilagunek, etxeen berritze lanak direla eta

2002ko urtarrilean hasi eta 2004ko azaroan bukatu zituzten Andramari auzuneko etxebizitzen berritze lanak. Aurrealdea berritu zieten auzuneko etxebizitza gehienei, batez ere hezetasun arazoak konpontzeko. Gasteizko Idheco enpresa hasi zen lanok egiten, baina bukatu aurretik alde egin zuen, 2003ko urrian, hain zuzen. Hori horrela, bizilagunek salaketa jarri zioten. Garai hartan atarteko arduradun ziren hamar aretxabaletar, Udaleko Hirigintza teknikariarekin batera, joan ziren atzo (eguena) Gasteizko epaitegira. Lanok iraun bitartean bizilagunen ordezkari izan zen Lina Corcuera salaketa-jartzaile gisa aurkeztu zen, eta gainerakoek lekuko gisa egin zuten berba epaiketan. Orain, itxaron egin beharko dute epailearen erabakia kaleratu bitartean.

MAPFRE
MAPFRE INBERTSIOAK
INBERTITU BURTSAN, BERME OSOAREKIN
%105 BERMATUA + BURTSAREN %90
Etorri eta galdetu.
Galdetzeagatik bakarrik, DVD eta HOME ZINEMA baten zozketan parte hartuko duzu.
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

Iber
Loteria
Paper denda
Liburuak
Otalora 2. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

EUSKARA > OSPAKIZUNA

# 'Eitteko prest!' aginduarekin datoz Euskararen Asteko ekitaldi guztiak

## 'Laster master: Inkomunikazio ikastaro azkarra' antzerkia eta Arima Beltzaren kontzertua Loramendi EEk antolatutako ekitaldien artean



BERBALDIA Euskararen inguruan lan egiten dutenek berbaldia eskaini zuten iaz; aurten EHE eta EHBEkoek egingo dute. M.A.

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Iaz bezalaxe aurten ere *Eitteko prest!* leloa izango du Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako Euskararen Asteak. Astelehenean hasi eta zapatura bitartean gura beste ekitaldi izango ditugu herrian.

### ANTZERKIAK ETA BERBALDIA

Antzerkiarekin hasiko dute astelehena, eta Algara ludotekako artista gazteek *Jaxinto eta bere lagunak* antzezlana eskainiko diete gainerako herritarrei. 17:30ean izango da antzerkia, Kurtzebarri eskolan. Martitzenean, maiatzak 16, berbaldia egingo dute eskola bidez euskalduntzeko eskubidearen inguruan. Euskal Herrian Euskaraz eta Euskal Herriak Bere Eskola taldeetako kideak hurreratuko dira udaletxe zaharrera, 19:00etan.

Eguaztenean, hilak 17, *Laster master: Inkomunikazio ikastaro azkarra* antzerki umoretsua eskainiko dute Asisko Urmenetak, Antton Olariagak eta Kike Amonarrizek. Eta egubakoitzerako, hilak 19, bi ekitaldi antolatu dituzte: 19:00etan dantza garaikide erakustaldia Mitarte kalean eta 22:00etan Elgoibarko Arima Beltza taldearen kontzertua Ezkutu tabernan.

### BAZKARIRAKO TXARTELAK

Maiatzaren 20a, zapatua, izango da Euskararen Asteko egunik garrantzitsuena. Azken urteotan giro dotorea egoten da herriko kaleetan eta aurten ere jai bikaina antolatu dute Loramendi EEko kideek. Urtero legez babarrun jana egongo da Herriko Plazan Uratz-Alde, Urbaltz, Muru-Alde eta Batzokia gastronomi elkarteen eskutik. Bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude Loramendin eta Gurea, Urbaltz eta Orly tabernetan. 15 euro ordaindu beharko dituzte langileek eta 12 langabe eta ikasleek; egunean bertan 18 euro balioko dute.

# Udaleku irekietan izena emateko epea zabalik

Astelehenean, maiatzak 15, zabalduko du Kultura Sailak udaleku irekietan izena emateko epea. 1992 eta 2002 urte bitartean jaiotako neska-mutikoek jardungo dute udaleku irekietan uztailaren 3tik 23ra. Kultur etxean eman behar da izena maiatzaren 31 bitartean, 11:00etatik 13:00etara. Hona ekarri beharrekoak: izenemate orria beteta, Euskadiko Kutxan 37,50 euro sartu diren agiria eta lehen aldiz datozenek haurraren datuak agertzen diren famili liburuko orriaren fotokopia. Begirale lanetan jardungo duten lagunak ere behar dituzte.



M.A.

> POLITIKA

## Xabier Artzalluzek liburua aurkeztuko du eguenean

Datorren eguenean, maiatzak 18, Euzkadi Buru Batzarreko presidente izandako Xabier Artzalluz hurreratuko da udaletxeko ganbarara. Aretxabaletako EAJk gonbidatuta dator, eta Joseba Egibarren berbaldiarekin hasitako ekitaldiei bukaera emango diote eguenean. Artzalluzek *Asi fue* liburua aurkeztuko du aretxabaletarren aurrean, beste herri batzuetan egin bezala, eta bizi dugun egoera politikoaren gainean egingo du berba. Zalantza barik, izango du zeresanik asko su-etenak ekarri duen egoera berriaren gainean.

19:00etan da ekitaldia eta EAJko kideek herritar guztiak gonbidatu gura dituzte berbaldira.

ANDRA MARI
Aholkularitza

Fiskala
Kontablea
Juridiko/laborala

2005eko ondare eta errenta aitorpenenerako epea zabalik

Andra Mari auzunea 3 ARETXABALETA Tel.: 943 79 29 26

Santa Marinan 145 etxebizitza egingo dituzte; horietatik 28 tasatuak izango dira

Une honetan, lurjabeekin kalte-ordainak eta epeak adosten dabiltza

**ETXEBIZITZAK** > ETXEBIZITZA TASATUAK ETA MERKATU LIBREKOAK ERAIKIKO DITUZTE

# Ekainean hasiko dira Santa Marinako eraikinak botatzen

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Santa Marina auzoan etxebizitzak egiteko prozedurak aurrera jarraitzen du, baina Udalak eta Visesak hainbat zailtasun izan dituzte. Arrazoi horregatik, atzerapenak izan dituzte eta aurreikusitako epeak ezin izan dituzte bete.

Udalaren asmoa da auzune horretan 145 etxebizitza egitea. Horietatik 28 etxebizitza tasatuak izango dira (Udalak bultzatutakoak) eta gainontzekoak merkatu librekoak.

**LURJABEEKIN HARREMANETAN**

Udala eta Jaurlaritzako Visesa erakundea dabiltza prozedura guztia eramaten. Hain zuzen ere, orain dela gutxi, bi erakundeek eta Santa Marinako lurjabeek batzarra egin zuten. Hala, auzunean dauden eraikinak (itxitako fabrikak, etxeak, txabolak...) eraitsi aurretik, Visesak eta lurjabeek haiei eman beharreko kalte-ordainak eta eraisketak egiteko epeak zehaztu beharko dituzte.



**ERAIKIN DEZENTE** Etxebizitzak egingo dituzten lurzoruan fabrika zaharrak, etxebizitzak eta txabolak daude. I.B.

Eta zeregin horretan dihardute une honetan.

Bestalde, Visesak eta Udalak LKS enpresari eman diote urbanizazioaren zuzendaritza-lanaren ardura. Horrekin lotuta, enpresek astelehenera arte, maiatzaren 15era arte, izango dute auzuneko urbanizazio lanen gaineko eskaintzak aurkezteko aukera. Jasotako eskaintzen arabera, erakundeek enpresa bat aukeratu eta lanak abian jarriko dituzte, baldin eta arazo guztiak saihesten badituzte. Izan ere, bestelako prozedura batzuk egin beharko dituzte.

**EKAINERAKO HASTEKO ASMOA**

Udalak gurako luke, urbanizazioa egingo duen enpresa aukeratuta eta lurjabeekin guztia zehaztuta, ekainean eraikinak botatzen hastea. Hala ere, kontuan hartu behar da fabrikak eta tailerrak dauden lurzoruetan prozedura berezia ezarri beharko duela IHOBE erakundeak, han fabrikak egon izanagatik lurrek zelanbaiteko kutsadura izan dezaketelako. Eta hori aztertu behar izaten dute. Baina ez hori bakarrik, hiltegi zaharra industria hondakin moduan katalogatuta dago-eta.

**IZENEMATEA UDA AURRETIK**

Bestalde, Udalak jakinarazi du etxebizitza tasatu bakoitza batez beste 180.000 eurotan salduko dutela, eta interesatuek uda aurretik izena emateko bidea jarriko dutela. Ordurako epeak jakinaraziko dituzte.

Horrez gain, Udala dabil aztertzen 28 etxebizitza tasatu egin beharrean 30 eraikitzea. Hori lortzeko, lurjabe batzuekin harremanetan dabil aspaldian.

Aipatutako etxebizitza horiek, Udalak bultzatuko dituenak, Arbiñoste alderantz egingo dituzte. Arbiñoste eta Aranburuzabala artekoak, berriz, merkatu librekoak izango dira.

> 50EKO KINTOAK

## Hilaren 20an elkartuko dira 1950eko kintoak

Urteotako ohiturari jarraituta, 1929an jaiotako eskoriatzarrek ospakizuna egingo dute datorren zapatuan, hilaren 20an. 16-17 lagun batuko dira Otzeta jatetxeko mahaiaren bueltan. 1950eko kintoak dira eta 77 urte dituzte.

Horietako batzuek aitortu digute emakumezkoei eskertu behar dietela urtero ospakizuna antolatzea; "gugatik, gizonezkoengatik, balitz, ez dakit urtero elkartuko ginatekeen-eta".

AZKOAGA
ESTANKOA
943 71 48 77
Zure Zerbitzura



IKER BARANDIARAN

## Dorleta auzoko fatxadak berritzeko lanak hasi dituzte

Dagoeneko hasi dira Dorleta auzoko etxeetako fatxadak berritzen. Auzotarrak 2004a ezkero dabiltza asmo horrekin bueltaka, eta apirilaren bukaeran hasi zituzten lanok.

Lanek 600.240 euroko aurrekontua daukate eta Eskoriatzako Ramel enpresak hartu du ardura hori. Izan ere, lau bat enpresak aurkeztu zituzten aurrekontuak, baina Ramel iruditu zitzaien egokiena.

Lanek 136 etxebizitzatan eragingo dute, 17 ataritan, hain zuzen ere. Une honetan, garabi batekin teilatu-hodiak garbitzen dabiltza. Horrez gainera, etxeen azpiko aldeak ere aldatzen dabiltza.


**UME ETA GURASOAK** Biak hala biak pozarren egoten dira egun horretan. GOIENKARIA

**JAIAK** > SAN PEDROTAKO UMEEN DANBORRADA

# Zabaldu dute aurtengo umeen danborradako izenematea

4 eta 12 urte arteko umeek esku hartu ahal izango dute, eta gurasoen laguntza ere ezinbestekoa dute antolatzaileek

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA
San Pedro jaietako danborradetan esku-hartze oso handia izaten da, bai nagusienean eta baita umeenean ere.

Dagoeneko hasi dira umeena antolatzen, eta horien izenematea zabaldu dute. Hain zuzen ere, aurten berrikuntza moduan interesatuek ez dute derrigorrez kultura etxera joan beharrik izango. Aurreko urteetan ilara handiak sortu dira kultura etxean eta aurten erabaki dute beste modu baten egitea.

Horren ordez, herriko hainbat lekutan orri batzuk banatu dituzte, eta Luis Ezeiza eskolan, Jose Arana ikastolan eta kultura etxean jarri dituzten postontzietan utzi beharko dituzte orriok. Astelehenetik, hilaren 15etik, egubakoitzera artean izango da hori egiteko aukera.

**4 ETA 12 URTE BITARTEKOAK**
Umeen danborradan esku hartu ahal izateko, gutxienez 4 urte izan beharko dituzte. Hau da, gutxienez 2002an jaiotakoak izan beharko dute, eta gehienez 12 urte izan beharko dituzte.

Entseguak ekainean hasiko dituzte. Lehenengoa hilaren 5ean, astelehenean, izango da eta derrigorrezkoa izango da horretara joatea. Hortik aurrera, astelehenero eta eguaztenero egingo dituzte, biak hala biak 18:00etan.

**GURASOEN INPLIKAZIOA**
Horrez gain, eguaztenean, hilaren 17an, gurasoen batzarra egingo dute danborrada antolatu eta beharrezko lanak egiteko.

Urtero egiten dute horrela. Izan ere, azkeneko sei bat urteotan gurasoek hartu dute hori antolatzeko ardura nagusia, eta Udalak laguntzen die koordinazio eta azpiegiturarekin.

EGIN BEHARREKOAK

## Gurasoek egin beharrekoak

Antolatzaileen esanetan, gurasoen lan gehienak umeen entseguetan egin beharrekoak dira. Hortaz, animatu gura dituzte "euren umeen eta tradizioen alde ahalegin txikia" egiteko. Hain zuzen ere, honako hauek dira dituzten premia handienak: batailoiak zuzentzea, jantzi eta uniformeak konpontzea, entseguetan laguntzea, danborrak prestatzea, karroza berritzea eta danborrada egunean ibilbidean laguntzea, besteak beste.

**IKUSKIZUNA** > DATORREN ZAPATUAN, HILAREN 20AN

# Magia, klowna eta zirkua, hirurak bat, lan bakarrean

Datorren zapatuan, hilaren 20an, Els Flaquibutti taldeak 'Ni siquiera somos magos' ikuskizuna egingo du HUHEZIn

**I.B.**> ESKORIATZA
Udalaren asmoa zen hilaren 19an, egubakoitzean, ikuskizun hori Eskoriatzara eramatea, baina HUHEZIk egun horretan beste konpromiso batzuk dituenez, eguna aldatu egin behar izan dute. Azkenean, hilaren 20an, zapatuan, izango da ikuskizuna, 22:30ean. Antolatzaileak, Udaleko Kultura Sailak, aldaketa horren gainean ohartarazi gura izan ditu eskoriatzarrak. Izan ere, ohitura handia dago egubakoitzetan ikuskizunak ikusteko.

Valentziako Els Flaquibutti taldeak izen handia hartu du Espainian eta Hego Amerikan, eta, hala, asteburuan Euskal Herrira etorriko da.

**IKUSKIZUN SAILKAEZINA**
Els Flaquibutti taldearen *Ni siquiera somos magos* ikuskizunean hainbat diziplina lantzen dituzte: hau da, klowna, magia, zirkua eta beste alor batzuk batzen dituzte horren barruan. Arrazoi horregatik, antzerki eta ikuskizun kritikari askok aipatu dute sailkatzeko gaitza dela.

**MAGOAK IZATEKO SAIAKERA**
Valentziako taldeko Lluna Albertek eta Jesus Jarak mago batzuk ordezkatu behar izango dituzten pailazoen lana egin beharko dute.

Ikusleak engainatzen saiatuko dira, eta hori bakarrik ez: magia trikimailuen eta *gag*-en bidez ikusleak barrez lehertzen jarriko dituzte.

Taldekideek honako hau azaldu digute: "Gu ez gara pailazoak, ezta klownak, magoak ere ez, jakina. Hortaz, ez dakigu zer egiten dugun hemen".

> EUSKARA

### Datorren zapaturako, hilaren 20rako, Axtroki elkarteak euskararen gaineko mintegia deitu du

Axtrokik jakinarazi du herrian euskararen gaineko hausnarketa egiteko premia dagoela. Hala, hilaren 20an mintegia egingo du kultura etxean, 10:15ean. Mintegia Topaguneak gidatuko du eta gura duenak esku har dezake. Horren ostean, bazkaria egingo dute. Interesa dutenek lehenbailehen eman beharko dute izena 943 71 54 34 telefono zenbakian edo *axtroki@topagunea.com*-en.

> ERAKUSKETA

### Galapago Uharteetan urpean egindako argazkiak ikusgai daude Inkernu tabernan

Unai Salaberria eskoriatzarrak Galapago Uharteetara egindako bidaia bateko argazkiak ikusgai daude Inkernu tabernan, Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik. Salaberriak urpekaritza egiten du eta itsaso barruko eta han bizi den faunaren gaineko irudi ikusgarriak jaso ditu. Erakusketa eguaztenera, hilaren 17a, arte egongo da ikusgai. Ekainaren 2an, berriz, Xabier Amuritzak Lazkao Txikiren istorioa bertsotan kontatuko du Inkernun.


MAIATZAK 13 LARUNBATA
11:00etan etxafuego jaurtiketa
12:00etan txalapartariak plazan
12:00etan grafiti emanaldia plazan
12:30ean triki poteoa
13:00etan capoeira emanaldia plazan
15:00etan gazte bazkaria plazan; ondoren bertsolariak
18:30ean kale animazioa
22:00etan rock kontzertua plazan
KLINEKS ARIANROD LUKAS PREST!
GAZTE EGUNA'06
eskoriatzan
'Lokaletako Hotsak' diskoaren aurkezpena!

**DIRULAGUNTZAK** > FORU ALDUNDIAK UDALARI

# Udalak 430.000 euro jasoko ditu gizarte etxearen proiekturako

Zurratzaileen eta uhalgileen lanbidearen interpretazio zentrorako 90.000 euro emango ditu Foru Aldundiak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 639.630 euroko dirulaguntza eman dio Antzuolako Udalari Sagastiko gizarte etxearen proiektua egiteko.

Aurki sinatuko dute Foru Aldundiak eta Antzuolako Udalak lankidetza hitzarmena. Hasteko, aurten, 429.630 euroko dirulaguntza emango du Foru Aldundiak gizarte etxean egongo diren hitzaldi gelaren eta liburutegiaren proiekturako.

**ADINEKOENDAKO BALIABIDEAK**

Bestalde, gizarte etxean, udalerriko adineko pertsonei zuzendutako hainbat baliabide egongo dira: 15 plazako eguneko zentroa, zaintzapeko bost etxe eta erretiratuen etxea. Baliabideok elkarrekin Landa Eremuko Zentro Balioanizduna osatuko dute; eta Foru Aldundia ekipamendu mota hori bultzatzen ari da 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan. Beraz, zentro horrek Foru Aldundiaren dirulaguntza izango du. Datorren urterako 210.000 euro emango dituzte. Gainera, eguneko zentroa martxan jartzen denean, Foru Aldundiak erabiltzaileen plazen finantzaketan parte hartuko du.

Gizarte etxearen proiektu osoak bi milioi euroko kostua du; eta Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Antzuolako Udalak ordainduko dute.

**INTERPRETAZIO ZENTROA**

Bestalde, Foru Aldundiak berak 90.000 euro emango ditu zurratzaileen eta uhalgileen lanbideen interpretazio zentroa Antzuolan egiteko. Interes handiko proiektua da, jarduera horrek gero eta oihartzun txikiagoa duelako Gipuzkoan. Hala ere, Antzuolako Udalak zurratze lantegi bat du eta hura baliatu nahi du, lanbide horrek pisu handia izan zuelako herrian. Horrela, herriaren eta, horrenbestez, Gipuzkoako probintziaren ondare hori ez galtzea da proiektuaren helburuetako bat.



GOIENKARIA

## Ipuin egile txikiak ipuin kontalariekin

Eskolako ume guztiek parte hartu dute Patxiko Txerren ipuingintza saioan. Zapatuan aurkeztu zuten aukeratutako lanekin osatu duten liburua eta ikasle horietako asko eta asko egon ziren liburutegiko aurkezpenean gurasoekin. Urtetik urtera gero eta ikusmin handiagoa sortzen du ekimen horrek herriko umeen artean. Liburuzainak esan digunez, "denak oso gustura egon ziren saioak iraun zuen artean, batik bat Apika taldekoen ipuin kontakizuna entzuten".

**ETXEBIZITZA**

# Elkarri atxikitako zortzi etxe Sallabenten

Hiru solairu izango dituzte 190 metro koadroko etxebizitzek

**I. A.** > ANTZUOLA

Beheko auzoan etxebizitzak eraiki dituen Hirumeba enpresak elkarri atxikitako zortzi etxebizitza egingo ditu laster Sallabenten. 190 metro koadro izango ditu etxebizitza bakoitzak, hiru solairutan banatuta: lehen solairuan txokoa eta garajea egongo dira; bigarrenean terraza lorategiarekin, egongela, sukaldea eta bainugela; eta hirugarrenean hiru logela eta beste bi bainugela.

**DATORREN URTERAKO**

Lanak abuztuan hasiko dituzte eta datorren urtearen amaierarako bukatzea da asmoa. Etxebizitza horietan interesa dutenek Hirumebak beheko auzoan duen bulegora jo dezakete.

> JAIAK

## Maiatzaren 17an elkartuko dira Jai batzordekoak

Herriko jaiak antolatzeko batzarrak egiten hasiak dira jadanik. Jaietako hutsuneen hausnarketa egin ostean, ikusi dute, besteak beste, domekan giroa makaltzen dela eta egun horri bultzadatxo bat ematea beharrezkoa dela. Hurrengo bileran eragileen ekarpenak jasoko dituzte. Batzarra maiatzaren 17an egingo dute. Herriko jaietan kontuan hartuko da, bestalde, Aiherrakoekin Antzuolak duen senidetasun hitzarmena eta ekimen bateratuak egingo dituzte; baliteke Lizarrakoekin ere zerbait egitea.

**bere ustez**



Jone Lete

## Zergatik egun bat bakarrik amarentzako?

Gizarte honek baditu inoiz ulertu izan ez ditudan ohitura batzuk. Pasa den igandekoa horietako bat izan zen: Amaren eguna. Berdin gertatzen da aitaren, langileen, maiteminduen… egunekin. Baina benetan zergatik ospatzen ditugu egun horiek? Amaren eguna, nik ez nuen era berezi batean ospatu, beste egunak ospatzen ez ditudan bezala. Ez zait justua iruditzen egun batean bakarrik ospatzea. Nire ustez amen eguna egunero delako. Egunero egoten dira gure ondoan, egunero etxea aurrera ateratzen dute, egunero-egunero demostratzen digute zenbat maite gaituzten eta hor egoten dira. Berdin da guk zer egiten dugun, beti daude gure ondoan . Urtean egun bat gutxi iruditzen zait amez gogoratzeko, zuei zer iruditzen zaizue?

**"Sentimenduak adierazteko ez dago egun konkretu baten zain egon beharrik"**

Egunero maitatzen dugu ama, ez amaren egunean bakarrik. Egun batean ospatu eta faltsukeriatan ibiltzeak, ez du balio. Urte guztian zehar egoten dira aldamenean, beraz, ospa dezagun amen eguna egunero. Benetan maite baditugu zertarako itxoin egun honi opari bat egiteko. Azken finean, sentimenduak adierazteko ez dago egun konkretu baten zain egon beharrik.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1. solairua, ANTZUOLA. Tel. 943 76 60 89

**OMENALDIA** > ZAPATU ARRATSALDEAN

# Ane Miren Alberdi eta 'Lepo' omenduko dituzte zapatuan

Asentzion eta plazan egingo dituzte ekitaldi nagusiak; gauean kontzertua izango da gaztetxean

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Ane Miren Alberdi elgetarrak 30 urte egin ditu herritik kanpo: espetxean eta iheslari; eta gaur egun ere kartzelan da, Paristik 30 kilometrora dagoen Fleuryko espetxean. Hiru urte pasa daramatza bertan eta epaiketaren zain dago. Aurrez ere espetxean izandakoa da ETA-ko kide izatea leporatuta.

Hori dela eta, omenaldia egingo diote bihar, zapatua, arratsaldean. Ane Miren Alberdi ez ezik, Jabier Arantzeta *Lepo* ere omenduko dute, hil zuteneko 26. urteurrena bete den honetan.

**EKITALDIA PLAZAN**
Plazan elkartuko dira herritarrak 17:00etan eta Asentziora oinez abiatuta, hantxe, 17:30ean, *Lepo*-ri lore eskaintza egingo diote haren oroigarrian. 19:00etarako plazara bueltatuta, Ane Miren Alberdiri omenaldia egingo diote. Ondoren, 21:00etan herri afaria egongo da eta, eguna amaitzeko, 23:00etan kontzertua gaztetxean.



I.A.

## AYA lantegia bota dute Torrealdea urbanizatzeko

Errepidearen eta Torrealdearen artean zegoen AYA lantegia itxi zutela urte asko pasa dira. Biltegi moduan hainbat urtean erabili badute ere, asteon bota egin dute eraikina. Inguru horretan babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko dituzte; orain Torrealdeko etxebizitzak dauden lerro berean. Zortzi etxebizitza izango dira guztira. Horrenbestez, AYA lantegia zegoen lekua urbanizazio lanak egiteko erabiliko dute; hau da, behin etxeak eraikita kalea edo espaloia egingo dute bertan.



**TEILATUA** Teilak ez ezik, egitura ere berrituko dute. IBAN ARANTZABAL

**ELIZA**> OBRAK

# Parrokiako sakristiako teilatua konpontzen ari dira

Maiatzaren amaierarako bukatu nahi dituzte teilatuko berritze lanak

**I.A.** > ELGETA
Pazko astean hasi ziren elizan obretan. Teilatua konpontzeko lanak egingo dituzte hilaren amaierara bitartean; ordurako amaitzea da asmoa.

Orain dela 14 urte berritu zuten elizako teilatua eta orain sakristiakoa konponduko dute. Teila zaharrak kendu ondoren egitura berrituko dute eta teila berriak ipini. Berrikuntzak egingo dituzte eraikinaren balio arkitektonikoa mantentzeko eta hezetasuna saihesteko.

Berrikuntzak egiteko, besteak beste, eliztarren dirulaguntzak jaso dituzte.

**JAUNARTZEAK**
Ordurako ez dakigu teilatua guztiz konponduta egongo den, baina maiatzaren 28an sei neska-mutilek lehen jaunartzea egingo dute 12:00etako mezan.

> JAIAK

### Asentzio eguneko ospakizunak hilaren 21era aurreratu dituzte

Asentzio eguna maiatzaren amaieran edo ekainaren hasieran ospatu izan dute orain artean. Aurten, ordea, egongo da aldaketarik egunari dagokionez. Maiatzaren 28an lehen jaunartzea egingo dute herriko zenbait umek. Hori dela eta, erabaki dute Asentzio eguneko ospakizunak aurreratzea, maiatzaren 21era, hain zuzen ere. Beste urte batzuetan bezalaxe, meza, herri bazkaria eta dantza saioa egongo dira, besteak beste, Asentzioko putzuaren inguruan. Gaztetxekoek hartuko dute egun horretarako ekintzak antolatzeko ardura.

> ERAKUSKETA

### Mari Fran Ereñaren margolanak Espaloian hilaren amaierara arte

Mari Fran Ereña margolari eibartarraren lanak egongo dira ikusgai Espaloian domekatik maiatzaren 31ra bitartean. Arrate Kultura Elkarteko pintura eskolan hasi zen orain dela gutxi margolari moduan. Bertan olioa eta marrazketa landu baditu ere, akuarela du gustuko eta teknika hori bere kasa lantzen du. Aire libreko pintura lehiaketetan parte hartu izan du eta erakusketak ere egin ditu, bai taldean, eta baita bakarka ere zenbait tabernatan. Orain gertatzen dihardu abenduan Eibarko Topalekuan egingo duen erakusketa.

> DANBORRADA

### Entseguak maiatzaren 13an hasiko dira kiroldegian

Danborrak lortzeko arazoak izan dituzte eta entseguak atzeratu egin dira, baina azkenik Bergarakoek laga dizkiete danborrak. Beraz, aste honetan, maiatzaren 13an, zapatua, hasiko dira jaietako danborrada prestatzen. Umeen entsegua 17:00etan izango da eta nagusiena, berriz, 18:00etan; biak kiroldegian egingo dituzte. Ondoren, jaietara bitartean zapaturo izango dira entseguak. Lehenengo saioan ikusiko dute zenbat elgetar animatzen diren, baina antolatzaileek uste dute 200etik gora izango direla parte-hartzaileak.

Aperribay, s.l.
Marmoldegi eta granitoak
Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE
RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es
AENOR
ER
Empresa Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

**HEZKUNTZA** > SAN MARTIN ESKOLA

# Ekitaldiz ekitaldi ibiliko dira eskolakoak maiatzean

Txangoak, gurasoendako hitzaldia eta bide hezkuntzaren gaineko ikastaroak egingo dituzte

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Lehen hitzordua bihar, zapatua, dute. Papargorriko hamar bat umek kontzertua egingo dute Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioan, 12:00etan. Bestelakoen artean, Josu Elberdin musikariaren *Alami* ipuin musikala interpretatuko dute 8-10 urteko umeek.

Bestalde, hilaren 17rako iragarri digute gurasoendako hitzaldia: *Elkarbizitzen ikasi: nola konpondu elkarren arteko gatazkak?* 18:30etik 20:30era arte iraungo du, Ainara Lasuen psikologoaren eskutik. Helburuak honakoak dira: emozioen hezkuntza; gatazkak konpontzeko erantzun lagungarriak ezagutu eta kritikak eta goraipamenak egiten ikastea. Eskolakoek esan digute haurtzaindegi zerbitzua izango dela.

**TALDE MOTIBATU ETA ALAIA**

Hilaren 16an, berriz, Antoñanara txangoa egingo dute eta 19an Bergarara joango dira, euskal kirolen eta antzinako jolasen topaketara.

Bestalde, Egur Astean, Jabier Mugurutza idazlea eskolan izan zen hitzaldia egiten; hara zer idatzi zuen gero *Noticias de Gipuzkoa*-n: *Eskola batean egon naiz, Aramaion. Ez nuen herria ezagutzen, eta begiratu batean ederra iruditu zait. Eskolako ikasle-taldea, bestalde, zoragarria: bizia, atsegina, motibatua, alaia.*



**MUGURUTZA** Ikasleek prestatutako galderei gogoz erantzun zien Jabier Mugurutza idazleak. SAN MARTIN ESKOLA

**TEKNOLOGIA** > WIMAX IPINI GURAN

# Wi-Fi sistema abiarazi dute liburutegian

Orain WiMax sistema ipini gura dute, baina Diputazioak ez du dirulaguntza onartu

**U.M.** > ARAMAIO

Dagoeneko posible da nork bere ordenagailuarekin liburutegira joan eta Internet erabiltzea, kable barik. Liburuzainari eskaera egin eta hark txartela emango dio erabiltzaileari. Txartelean pasahitza dago eta ordu erdi, ordubete edo bi orduan Internet erabiltzeko baimena. Olga Jauregi liburuzainak zera esan digu: "Lehenengo urtean zerbitzua doakoa izango da, diruz lagunduta dagoelako; datorren urtetik aurrera Udalak erabaki beharko du".

Wi-Fi ipinita, orain Udalaren helburua da WiMax lortzea Aramaiorako: hau da, auzo guztietan izatea aukera ADSL eskuratzeko. Baina Diputazioak ukatu egin dio dirulaguntza, hark dioenez, Aramaion bada-eta ADSL.

> PRESOAK

## Maiatzaren 26rako egin dute hitzordua Jon Agirreren alde

Atzo, eguena, hitzordua zuten aramaioarrek Jon Agirrek 25 urte preso daramatzala salatzeko. Txalapartarien doinuekin hasi eta, besteak beste, idatzi batekin gogorarazi gura zuten Agirreren egoera. Bestelakoen artean, presoarendako tratu duina eta osasun, komunikazio, hizkuntza, hezkuntza eta aitatasun eskubideak eskatu zituzten; baita ere Euskal Herrira ekartzeko.

Bestalde, maiatzaren 26an 12:30etik 13:30era egingo duten lanuzterako eta kale agerraldirako dei egin zuten.

> BERTSOLARITZA

## Finalerako sailkapena erabakiko dute oraingo asteburuan

Joan den domekan jokatu zuten Arabako Bertsolari Txapelketako lehen finalerdia, Agurainen. Lehiakideen artean izan zen Manex Agirre eta hirugarren lekua eskuratu zuen.

Bestalde, bihar, maiatzaren 13an, jokatuko dute bigarren kanporaketa, Dulantzin. Kasu horretan, Andere Arriolabengoa bertsolariak jardungo du lehian.

Bi finalerdiotan puntu gehien lortzen dituzten seiak pasako dira finalera.

> GIZARTEA

## Mertxe Mondragon GOITBko 'Debarri' saioan izango da

Eguaztenean, hilaren 17an, da *Debarri* saioa. 21:45ean emitituko dute alkatearen elkarrizketa (errepikatu: 18an, 15:45ean; zapatuan, 15:00etan eta domekan, 19:15ean). Aurkezlearen galderez gain, alkateak erantzungo ditu herritarrenak. Interesa duenak *Goiena.net* webgunera jo dezake; han eztabaiden atalera jo beharra du eta honako galderei erantzun: *Zerk kezkatzen zaitu herrian? Zer eskatzen duzu?*

**bere ustez**



Patxi Uribarren

## "Erabiltzen ez den hizkuntza galtzen da"

Mende honetan hizkuntza asko galduko dira. Bizirik iraungo ete du ito beharrean dugun euskarak? Telebista, irrati, eta halakoek erdaraz dihardute gehienbat. Guk zelan dihardugu? Euskaraz bizi gara? Ala, erraz joten dugu erdarara?

Eten egin da euskaraz egiteko ohitura guraso eta seme-alaben artean. Geroago eta euskara gutxiago egiten da. Eta euskarak ezingo du horrela bizirik iraun. Nagusiek erabiltzen duten adinean erabiliko dute gazteek eta umeek. *Etxean zer ikusi, hura ikasi.*

**"Eten egin da euskaraz egiteko ohitura guraso eta seme-alaben artean"**

Gaur egun inoiz baino euskaldun gehiago bagara ere, kinka larrian dugu euskara. Erdarak nagusitu dira gure herrietan, bizitzan. Ala, ez? Gaitzak jo gaituen seinalea! Horrek euskara abiada bizian heriotzara doala agertzen du. Denok gara errudun, ezta? Hori horrela, izan daiteke inor euskaldun abertzale, eta erdaraz bizi?

Gogoratu:"Ez dezatela ondorengoek euskara gugatik galdu zela Euskal Herrian esateko biderik izan" (J.M.Barandiaran); "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik." (Artze)

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!

Aramaio hizpide

**DEBARRI**
Eguaztenean, maiatzaren 17an, 21:45ean
Alberto Gorritibereak aurkeztuta
Zure galderak egiteko: www.goiena.net/eztabaidak

**DEBARRI: ARKAUZ ALTZARIAK**





**AUTOBUS GELTOKIAK** Datorren astean jarriko dituzte markesinak: herriaren sarreran bata eta goiko partean bestea. M.A.

**GARRAIOA** > MARKESINAK JARTZEKO ZAIN

# Hilabete honetan erabakiko du Aldundiak zela hobetu autobus zerbitzua Gatzagan

Markesinak datorren astean jarriko dituzte: bata herriaren sarreran eta bestea irteeran

Autobus zerbitzua hobetzea onartu edo ez, taxia ez dute baztertuko, eta zerbitzua osatzeko da

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Joan zen egubakoitzean izan zen herrian Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako diputatu Koldo Azkoitia. Markesinak non jarriko dituzten erakutsi zioten; Azkoitiak, ostera, autobus zerbitzuaren gaineko erantzun garbirik ezin izan zion eman alkateari.

**LAU AUTOBUS ESKATUTA**

"Hil honetan bertan jasoko dugula erantzuna esan zigun", esan du Joxerra Perez alkateak. Izan ere, Aldundiak dagoeneko egin du berba Pesa autobus enpresarekin eta orain erantzunaren zain dago. "Pesak onartuz gero ez da bakarrik *gau-txoria* etorriko, autobus zerbitzua bera helduko litzaiguke herrira", argitu du alkateak. "Guk eskatu dugu autobus bi pasa daitezela goizean eta beste bi arratsaldean, baina ez dakigu zer eskainiko diguten". Hala ere, badaki taxi-busa ez dutela kenduko eta autobus zerbitzuak uzten dituen hutsuneak beteko dituela Eskoriatzara joan-etorriak egiten dituen taxiak.

Pesaren erantzuna ez da askorik luzatuko, hil honetarako eman behar diolako Aldundiari. "Posible da trabak jartzea, errepidea ez dela ona autobusak pasatzeko esanaz, baina Aldundiko Errepide Sailarekin egin genuen batzarra bere garaian bidea hobe zezaten eskatzeko eta ezetza jaso genuen", dio alkateak. "Herritarrek bakarrik erabiltzen duten errepidea dela izan zen ezetzaren arrazoia".

**MARKESINA BI**

Datorren astean jarriko dituzte, seguru asko, autobus geltokia osatuko duten markesinak. Bata herriaren sarreran, errepide alboan, eta bestea herriaren goiko partean. "Euskal Bizikleta datorrenerako bukatuta egon behar dute lan guztiek, ekainaren 2rako, hain zuzen, hortaz, oraingo astean ez bada hurrengoan jarriko dituzte markesinak", argitu du alkateak.

Herriaren goiko partean, hau da, Ostatu jatetxearen goialdean jarriko duten autobus geltokiak zebrabidea eskatzen du oinezkoek errepidea zeharkatzeko. Hori, baina, Aldundiko Errepide Sailaren eskuetan dago eta haraxe joko dutela markesina jarritakoan esan du alkateak: "Errepidea zeharkatzeko zer egin daitekeen erabakitzeko Errepide Sailera joko dugu".

**GARRAIO BATZORDEA**

Garraio batzordeak ere ez dauka ahaztuta gaia eta hitzordua eskatu diote alkateari aste honetan bertan batzarra egiteko. Garraioaren kontuari jarraipena egin eta azken erabakien berri izan gura dute. "Epeak jarri eta kontuak zehazten joan daitezen gura dugu; izan ere, asko luzatzen dabil gaia", diote Garraio batzordeko kideek.

> EMAKUMEAK

## Irail bukaeran egingo du irteera Sorginak taldeak

Maiatz inguruan egin izan dute asteburuko irteera Sorginak taldeko emakumeek. Aurten baina atzeratzea erabaki dute eta irailean izango da. "Gainera, Euskal Herrian geratuko gara. 80 urtetik gorako hainbat kide ditugu eta lasai-lasai egitea erabaki dugu aurten", dio Mariatxen Arantzabal kideak.

Orain dela 17 urte egin zuten lehen irteera, Parisera, eta ordutik hona ez dute hutsik egin. Londres, Madril eta beste hainbat hiri ezagutu dituzte giro ederrean.

> LANPOSTUA

## Hezitzailea hartu gura dute ludotekan lanean jarduteko

Hezitzaile barik geratu dira Gatzagako ludotekan, eta, umeak ezin joanda ez geratzeko, Gurel gurasoen elkarteak Arrasateko Txatxilipurdiri eskatu zion laguntza. Lanpostua betetzeko deialdia kaleratu du hark: egunean bi ordu eta erdiko lan kontratua –ordutegia 17:30etik 19:30era–, eta uztailean ere lan jarduna izango luke. Interesatuek Txatxilipurdi elkartera deitu behar dute: 943 79 54 46 edo *idazkaritza@txatxilipurdi.com* helbidera idatzi.

> TXIRRINDULARITZA

## Venta Fria ostatua txukunduko dute Euskal Bizikletarako

Bihar, zapatua, Gatzagainen dagoen Venta Fria ostatuaren beheko partea txukundu egingo du Txirrindularitza batzordeak Euskal Bizikleta datorrenerako. Epaile eta kazetariek izango dute egoitza ostatuan, eta gelak garbitu eta egokitu behar dituzte. Maiatzaren 31n hasiko da Euskal Bizikleta eta ekainaren 2ko etapa Gatzagainen bukatuko dute. Hurrengo eguneko etapa ere Gatzagan hasiko da.





Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko : 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU

Herrikoia
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA
1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
LAU1 MUSKARIA AIZKORAK
NUKLEAR KALABERA1 EGUZKILORE3
SORGIN POPATIK KAPUTX

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.




**UDALATX ETA ANBOTO** Mapan ikus daitekeen moduan, bi mendi horiek igotzea da ibilbide luzearen eta motzaren artean dagoen ezberdintasuna. AIBA!

**MENDI ZEHARKALDIAK** > IRTEERA

# AibA! Ibilbide luzeko martxa neurtua ekainaren 4an

Izena emateko federatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte; besteek, 25

Maiatzaren 31 izango da izena emateko azken eguna

Gehienez ere 200 lagunek hartu ahal izango dute esku

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Besaide Mendi Elkarteak ibilbide luzeko martxa neurtua antolatu du ekaineko lehenengo domekarako. AibA! izena jarri diote (Aramaio ibarrari buelta Arrasatetik), eta izenak ondo dioen moduan, Aramaioko bailarari itzulia ematea izango da helburua. Elortondo anaiak ibili dira, beste lagun batzuekin batera, proba hori antolatzeko lanean. Aitorrek eman dizkigu proba horren xehetasunak: "Sei hilabete daramatzagu hori antolatzeko lanean. Euskal Herrian horrelako hainbat proba daude, eta pentsatu genuen hemen inguruan ere paraje ederrak ditugula horrelako proba bat antolatzeko. Hasi ginen hara eta hona, Besaide Mendi Elkarteari ideiaren berri eman genion, eta aurrera jarraitzeko animatzearekin batera laguntzeko gertu azaldu ziren. Azken baten, horrelako proba bat antolatzeko beharrezkoa da kirol elkarte baten babesa izatea".

**BI IBILBIDE**

AibA! martxa neurtuaren ibilbide motzaren eta luzearen artean desberdintasun bakarra egongo da: motzekoek ez dituzte Udalatx eta Anboto igoko. Hala, 35,6 kilometro egingo dituzte motza aukeratuko dutenek, eta 43,16 kilometro luzearen alde egiten dutenek. Bistan da, baina, distantzian baino gainditu beharreko maldan dagoela bi ibilbide horien arteko aldea; kontutan hartu, ibilbide luzean ia 6.000 metroko desnibel metatua egongo dela, eta 3.000 metroko igoera metatua".

**KONTROLETAN ZORROTZAK**

AibA! mendi zeharkaldi neurtua denez, denbora kontrolatzeko hainbat postu jarriko dituzte. Ander Elortondok eman digu horren berri: "Guk jaso ditugu gutxi gorabeherako denborak, baina lehenengo aldia denez, ez dugu erreferentzia garbirik. Hala, kontroletan zorrotzak izango gara, batez ere, behar baino azkarrago datozenekin. Ez dugu gura inor min hartuta helmugaratzea. Polikiago datozenekin malgutasun handiagoa izango dugu".

Mendi zeharkaldiaren berri gehiago egin berri duten *www.aiba.besaide.org* webgunean aurkituko duzue.

**PROBAKO HAINBAT XEHETASUN**

**> 200 LAGUNENDAKO TOKIA**

Hori izango da, gehienez, probak izango duen parte-hartze kopurua. Izena emateko deitu 695 776 222 telefono zenbakira edo idatzi *aiba@besaide.org* helbidera.

**> DISTANTZIA**

Ibilbide motzak 35,6 kilometro (3.628 metroko desnibel metatua). Ibilbide luzeak 43,1 kilometro (5.978 metroko desnibel metatua).

**> KONTROLAK**

Denbora kontrolatzeko zortzi kontrol jarriko dituzte, eta ibilbidean zehar 4 jan-edan postu egongo dira. Ibilbide luzea, gehienez, 12 ordutan egin beharko da. Motza, berriz, 10 ordutan.

**> SAILKAPENA**

Lasterketa bat ez denez, antolatzaileek ez dute probaren gaineko sailkapenik egingo. Hori bai, egindako denborak kontuan hartuko dituzte.

**> MURRUKIXORENA, 18AN**

Aretxabaletako Murrukixo Mendi Elkarteak ere ekainaren 4an zeukan beste martxa bat antolatzeko asmoa. Besaide horretaz jabetu ez, eta egun berean egin zuten hitzordua. Zentzuz jokatuta, eta kointzidentzia horretan asmo txarrik ez dagoela jakinda, Murrukixok bere irteera ekainaren 18ra atzeratzea erabaki du.

**> IBILBIDEA GPS-AN**

Antolatzaileek AibA!-ko webgunean sartu dituzte zeharkaldia egiterakoan eurek GPS aparailuan jaso dituzten datuak. Datu horiek zuen ordenagailura jaitsi ahal dituzue, gero GPSra pasatzeko. Horrela, proba hasi aurretik erreferentzia guztiak izango dituzue eskura. Datu horiek beti dira eskertzekoak.



GPSrako datuak AibA!-ko webgunean.



LASA jatetxea

*Guztion eskura dagoen luxua*

Ozaeta jauregia Tel.: 943 76 10 55 **BERGARA**





**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO SENIOR MAILARAKO IGOERA FASEA

# El Pilarren kontra agintea erakustera

Ford Mugarrik lehenengo jarraitzen du, baina Urdulizen galdu izanak azken partiduak lasaiago jokatzea eragotzi du; azken kolpea falta da

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Igoera fasean, Arrasateren asmoa ez da goiko mailara igotzea soilik. Euren esku balego, gurago lukete eurekin batera Donibane taldea ere igotzea. Horretarako, baina, atzean utzi behar dute Urdaneta. Joan den astean Urdulizen irabazi izan balute, Arrasatekoek emaitzekin jolasteko aukera handiagoa izango lukete. Orain, berriz, mesedea nori egin pentsatzen ibili baino lehen, azkeneko agintaritza kolpea eman behar dute, Gasteizko El Pilar taldearen kontra.

**TALDE BETERANOA**

Sailkapenari begiratuta, Marianisten taldeak ezer gutxi du jokoan. Bosgarren lekuan daude sailkapenean, eta etxetik kanpo ez dira etxean bezain indartsuak. Dena dela, Ford Mugarriko Andoni Arando entrenatzailearendako ez da arerio erraza: "Gu gara euren etxean irabazi dugun bakarrak, baina egia da kanpoan ez dela talde bera. Beteranotasun handiko jokalariak dira, gogorrak, handiak. Hori bai, erasorako sei jokalari inguru dituzte, eta ondo ezagutzen ditugu denak. Alde horretatik, El Pilar baino talde osotuagoa gara, eta partidua irabazi egin beharko genuke. Entseatutako hainbat jokaldi dituzte, baina guk hobeto lantzen ditugu erasoko jokaldiak".

**DEFENTSAN LANA EGITEKO**

Talde erasokorra da Ford Mugarri, kontrarioaren atera gertutzeko aukera mordoa dituena. Arazoak, baina, defendatzerakoan datoz: "Asier eta Igor atezainak sekulako igoera fasea egiten dabiltza, baina defentsan gehiago lagundu behar diegu. Alde horretatik behar baino gol gehiago jasotzen ditugu". Joan den astean Urdulizen kontra gertatutakoa ez errepikatzea da gura duena: "Hasteko, neure hankasartzeek ez zuten batere lagundu. Lehenengo zatia gurea izan zen, baina baloia azkarrago ateratzeko asmoarekin hainbat aldaketa egin nituen, eta ez nuen asmatu. Kontrarioa horretaz baliatu zen partidua berdindu eta markagailuan aurrera egiteko. Akaso, joan den astean galdu izanagatik jokalariak normalean baino urduriago kantxaratuko dira, eta horren kontra egin beharko dugu".

Bihar, 18:00etan jokatuko dute partidua Iturripen, eta lehenago hasiko da Donibaneren eta Urdanetaren arteko partidua. Arrasatek irabazi egiten badu, eta baita Donibanek ere, matematikek diote Ford Mugarri Euskadiko Senior mailara igoko dela.



**ERASOAN** Arrasatekoak trebeagoak dira golak egiten, ekiditen baino. GOIENKARIA





**BIGARREN PROBA** Txapelketako lehen proba Altzan jokatu zen, martxoaren 18an. Bigarrena Bergaran izango da.

**MOTORRA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Motokros proba jokatuko da Bergaran ekainaren 3an

## Euskadiko Motokros Txapelketarako bigarren proba puntuagarria izango da eta Debagoieneko hainbat pilotu arituko dira lehian

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Euskadiko Motokros Txapelketarako proba puntuagarria jokatuko da Bergaran ekainaren 3an. Azken urteotan Arrasaten antolatu duten proba Bergarara ekarriko dute aurten, Arrasateko Musakolako kiroldegi berriko lanengatik han ezin izango baita jokatu. Bergarako zale batzuk ari dira antolaketa lanetan, Arrasateko Motozale Elkartearen laguntzarekin. Hainbat urte dira Bergaran azken motokros proba jokatu zenetik.

**PISTA, MAYC-CANDY ONDOAN**

Motokros pista Mayc-Candy lantegiaren inguruko lursailetan egokitzen ari dira, eta, antolatzaileen arabera, 160 pilotu inguruk hartuko dute parte. Alebin, gazte-kadete, MX1 eta MX2 mailetako probak jokatuko dira, goizez eta arratsaldez.Entrenamenduak 11:45ean hasiko dira eta ondoren hiru txanda jokatuko dira. Arratsaldeko saioa 16:00etan hasiko da. Bailarako hainbat pilotu arituko dira lehian. Maila klasikoko proban, motor zaharrak eta pilotu beteranoak ikusteko aukera izango da. Sarrerak 5 euro eta 3 eurotan (12 urtetik 16 urtera arte) salduko dira.

Zazpi probak osatzen dute Euskadiko Txapelketa. Lehenbizikoa Altzan jokatu zen eta bigarrena Bergarakoa izango da.

**ULMA**

ULMA C y E, Koop. E. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

**DEIA**
Eguna: 2006ko maiatzaren 19a
Ordua: 12:00etan lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena
Tokia: KURSAAL Elkarguneko Auditorioa - Donostia

**GAI ZERRENDA**
1. AURREKO AKTAK ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BATZAR NAGUSI HONEN AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEA.
2. 2005EKO EKITALDIKO MEMORIA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA, ETA 2006KO GESTIO PLANA BERRESTEA.
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA.
4. 2005EKO EKITALDIKO KONTUAK ETA BALANTZEA AZTERTZEA ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.
5. SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA.
6. HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA-SUSTAPENEKO FONDOEN (HKSF) ERABILERA.
7. EKONOMIA ARAUBIDEKO ESTATUTU-XEDAPENAK.
8. EGITURAZ GAINDIKO ERAKUNDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN GAIAK.
9. ESTATUTU SOZIALETAKO 31-BI N), 56-BI ETA 64-BI D) ARTIKULUAK ALDATZEA ETA LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA GEHITZEA.
10. MENDEKO EKARPEN FINANTZARIOEN JAULKIPENA.
11. ZAINTZA BATZORDEKO KIDE BAT BERRITZEA.
12. KONTSEILU SOZIALEKO KIDEAK BERRITZEA.
13. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Oñati, 2006ko maiatza

OHARRA: Bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuzko aldaketen testua eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

**TRIATLOIA**

# Debagoieneko triatloia: izenematea zabalik

**E.M.** > ARRASATE

Debagoieneko triatloia ekainaren 3an jokatuko da. Antxintxika Triatloi Taldekoak ari dira antolaketa lanetan eta bosgarren ekitaldian aurreko urteotako ibilbide berari eutsiko diote: igerian 1.500 metro, bizikletan 40 kilometro eta, azkenik, korrika beste 10 kilometro egin beharko dituzte parte-hartzaileek. Iaz bezala, Olatz Rementeria Memoriala izena eramango du probak.

Proba Urkulun hasiko da 16:00etan eta Arrasateko kaleetan amaituko da.

Izenematea zabalik dago dagoeneko. Gehienez, 250 partaide izango dira. Izenematea Arrasateko Musakola kiroldegian edo *www.antxintxika.org* webgunean egin daiteke.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Preferente maila**
Anaitasuna - Mondra
Zapatua. 16:30. Txerloia.

Hernani - Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zubipe.

Beti Gazte - Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Lesaka.

**Lehen erregionala**
Bergara - Pedrusko
Domeka. 17:30. Agorrosin.

**Bigarren erregionala, igoera fasea**
Aretxabaleta - Dunboa
Zapatua. 17:30. Ibarra.

Beti Ona - Antzuola
Zapatua. 16:00. Errenteria.

**Ohorezko mailako gazteak**
Aretxabaleta - Martutene
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Bergara - Mondra
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**Lehen mailako gazteak**
Antzuola - San Inazio
Zapatua. 15:30. Antzuola.

Antoniano - Bergara
Zapatua. 18:30. Zarautz.

Intxurre - Arizmendi Aretxab.
Zapatua. 15:30. Alegia.

**Bigarren mailako gazteak**
Arrasate - Beti Ona
Zapatua. 17:30. Atxabalpe.

**Kadeteen ohorezko maila**
Kostkas - Bergara
Zapatua. 10:30. Matigoxote.

Vasconia - Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Martutene.

**Kadeteen lehenenego maila**
Arizmendi Ar. - Eibartarrak
Zapatua. 11:30. Ibarra.

Arrasate - Martutene
Zapatua. 15:30. Atxabalpe.

**Kadeteen bigarren maila, igoera fasea**
Bergara - Arizmendi Aretx.
Domeka. 12:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako infantilak**
Reala - Arizmendi Aretxaba.
Zapatua. 12:15. Ibarra.

Aloña Mendi - Lengokoak
Domeka. 11:00. Azkoagain.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea**
Arizmendi Aretx.- Luberri
Zapatua. 12:00. Almen.

Añorga - Bergara
Domeka. 17:00. Donostia.

Mondra - Tolosa
Domeka. 12:00. Atxabalpe.

**ARETO FUTBOLA**

**Nazional B maila**
Eskoriatza - Allerru Algepo.
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gipuzkoako liga**
Koxka Tab. - Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Zestoa.

**SASKIBALOIA**

**Gipuzkoako ligako junior maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Easo A
Domeka. 12:00. Musakola.

**Gipuzkoako ligako junior maila (emakumezkoak)**
Aloña Mendi - San Inazio
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Eskoriatza - Litaphar
Zapatua. 16:00. Eskoriatza.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (gizonezkoak)**
Mugarri Alkesa - Ordizia
Zapatua. 10:00. Musakola.

Aloña Mendi - Lacor BKE
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako ligako kadete maila (emakumezkoak)**
Bergara - Atco. Axular
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Antigua Luberri. - Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketara, igoera fasea**
Ford Mugarri - El Pilar
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Lehenengo eta bigarren territorial maila, Kopa**
Allerru - Bergara
Zapatua. 18:15. Lezo.

Arrikrutz Oñati - Donibane
Gaur. 20:15. Zubikoa.

Arrasate - Hegialde Auto
Domeka. 11:30. Iturripe.

**Gazte mailako Gipuzkoako Txapelketa**
Aloña Mendi - Aldaketa Ha.
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Kadete mailako Udaberri Txapelketa**
Ereintza Ag. - Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Pasai Don.

Groseko - Gatz Museoa
Domeka. 11:00. Donostia.

**Gipuzkoako gazte maila (emakumezkoak)**
Verkol Aloña - Cometel Elg.
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Bergara - Eharialdea
Domeka. 12:15. Labegaraieta

**Gipuzkoako kadete maila (emakumezkoak)**
Verkol Aloña - La Salle Gip.
Domeka. 10:30. Zubikoa.

**PILOTA**

**Elgetako 4t'erdiko ETB Kantxa saria.**
Gaur. 21:00. Elgeta. 23 urtez azpikoak:
Urrutia - Jauregi
X. Arrastoa - Azagirre
Ollo - Olaetxea

Gaur. 21:00. Aramaio: 23 urtez azpikoak:
Iraola - Moran
Errarte - Landilibar
Beobide - Armendariz

Zapatua. 16:00. Elgeta.
Kadeteak:
Iraola - Gartzia
23 urtez azpikoak:
Iza - Arrastoa
Alvaro - Yoloi

Domeka. 10:45. Elgeta.
Kadeteak:
Epelde - Lana
Perosanz - Bergera
Ansotegi - Alberdi
Gonzalez - Vicente (23 urte).

**Debagoieneko eskola mailako partiduak.**
Zapatua. 15:30. Uarkape.

**Debarro Txapelketa**
Gaur. 19:00. Eskoriatzan.
Kadete mailako bi partidu:
Eskoriatza - Aretxabaleta.

Gaur. 20:00. Elgetan.
Senior mailako partidua:
Elgeta - Aretxabaleta

**TXIRRINDULARITZA**

**37. Arantzazura igoera**
Zapatua. 16:30. Oñati.

**GIMNASIA ERRITMI.**

**Erakustaldia**
Arrasateko Dragoi Taldea.
Zapatua. 17:00. Musakola.

**AUKEA SARIAK**

**2005eko sarien banaketa**
Zapatua. 17:30. Musakola.
Sarituak:
Itziar Mallabiabarrena.
Besaide Mendi Elkartea.
Luis Lopez *Bonba*.
Cesar Diez.



**Ehun ziklista espero dituzte Arantzazuko igoeran**
Bihar egingo dute, arratsaldeko 16:30ean hasita, Arantzazuko 37. igoera. Gazte mailako ehun ziklista inguru espero dituzte proban; joan den astean kadete mailan Xabier Arnaiz gaztearen garaipenak arrera piztu du oñatiarren artean. Lehenengo helmugatzearekin batera, Unai Osak duen errekorra gainditzea izango dute ziklistek helburu (22 minutu eta 27 segundo).



**> DOCTOR DESEO** Bere azken diskoa aurkeztuko du gaur Arrasateko 3.60 aretoan **> 45**




**> MERKATARITZA** Euskararen presentziak gora egin du komertzio alorrean **> 51**

**> ANDER RODRIGUEZ** Saltsa askotan dabil Arrasateko EBko zinegotzia. Gitarra jotzeko eta Historia ikasteko nahi baino denbora gutxiago dauka. **> 50**





**MUSIKARI BIKAINAK** Estudioan zuzenean grabatutako lana izan da eta horretarako klubeko jazz banda dotore baten laguntza izan du Juan Carlos Perezek. ELKAR

# Alberto Urretxo
## Juan Carlos Perezekin

Tronboi-jotzaile arrasatearrak *Hiriko istorioak* diskoaren grabaketan hartu du parte eta aurkezpen emanaldietan ari da Itoiz taldeko lider ohiarekin

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Hiriko istorioak* izenburuko diskoa kaleratu berri du Juan Carlos Perezek. Estudioan zuzenean grabatutako lana izan da eta horretarako klubeko jazz banda dotore baten laguntza izan du. Itoiz taldeko lider ohiarekin batera, Gonzalo Tejada (kontrabaxua), Andrzej Olejniczak (saxoa), Chris Kase (tronpeta), Fernan Irazoki (bateria) eta Alberto Urretxo tronboi-jotzaile arrasatearrak grabatu dute diskoa Donostian, Elkar argitaletxearen estudioetan. Diskoaren aurkezpeneko emanaldietan murgildurik daude orain. Usurbilen joko dute gaur. Debagoienean jotzeko hitzordurik ez daukate oraingoz.



Alberto Urretxo.

Juan Carlos Perezen lan berri honetan hamabost pieza aurki daitezke, tartean *Atlantic River*, *Hau berua* eta *Ikaro* Perezen aurreko diskoetako zenbait abesti eta inoiz argitara eman gabeko hiruzpalau kantu. Itoizen garaiko *Astelehen urdin baten* kantuaren birmoldaketa ere egin dute. Urretxoren tronboia diskoko kantu gehienetan entzun daiteke. Albertoren esanetan, alboan kalitatezko musikariak izan ditu eta horrelako gauzak erraz egiten dira. "Diskoak estilo askotariko pintzeladak dauzka eta musika oso lasaia da, Juan Carlos Perezen estiloan. Beharbada, jazz ukitua nabariagoa da, lehenengo aldiz tronpeta eta tronboia erabili dituelako" dio arrasatearrak.

Alberto Urretxok ibilbide bikaina egin du musikan azken urteotan. Hamar urterekin hasi zen tronboia jotzen Arrasate Musikalen (Unai bere anaiak ere tronboia aukeratu zuen eta Korean ari da), eta tronboi-jotzaile profesionala izatera iritsi da. Leioan eta Donostian eskolak ematen ditu eta Bilboko Orkestra Sinfonikoko tronboi-jotzaile bakarlaria da gaur egun. Hain zuzen ere, Orkestrako kide duen Foisis jaunak aurkeztu zion Perezi. Eta kolaborazio honen ostean, Perezek obra bat konposatuko diola agindu dio Urretxori. Hori heldu bitartean, *Hiriko istorioak* entzuteko proposatzen digu Albertok. > 05



Alberto Urretxo tronboi-jotzaile arrasatearra. Urdulizen bizi da. GOIENKARIA

**Alberto Urretxo** > Tronboi jotzailea 'Hiriko istorioak' diskoan

# "Oso erraz grabatu genuen Juan Carlos Perezen azken diskoa"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Musikan ibilbide luzea darama Alberto Urretxo arrasatearrak. Besteak beste, Bilboko Orkestra Sinfonikoan tronboi-jotzaile bakarlari gisa ari da gaur egun, eta Juan Carlos Perezek kaleratutako *Hiriko istorioak* diskoan parte hartu du.**

**Zelan sortu zitzaizun Juan Carlos Perezekin lan egiteko aukera?**

Itoiz taldearen garaian Juan Carlos Perezekin ibilitako Foisisek kontrabaxua jotzen du Bilboko Orkestran, elkarrekin gabiltza. Eta haren bitartez izan nuen Juan Carlos ezagutzeko aukera: Durangoko txistu elkarte batendako konposizio bat egin zuen eta hiru metal behar zituzten, tronboia tartean. Haiekin jotzeko deitu zidaten, eta orduan sortu zen harremana. Eta orain elkarrekin ari gara proiektu batean: niretako konposizio bat egingo zuela agindu zidan, orkestra eta tronboiarendako. Estreinaldia nik egingo nuke, ez dakit norekin oraindik. Eta datarik ere ez dugu jarri, baina hurrengo denboraldian izango da, ziurrenik.

**Eta pistarik eman diozu Perezi, obra nolakoa nahiko zenukeen?**

Ez dakit Juan Carlosek nondik bideratuko duen, baina ezagutzen nau eta pentsatzen dut Bilboko Orkestrarekin bakarlari gisa egindako kontzertu bateko grabazioa ere lagungarri izango zaiola... Proiektua aurreratuago dagoenean izango dugu elkartu eta ukituren batzuk egiteko aukera.

**Diskoarena zer moduko esperientzia izan da?**

Gauza berria zen niretako eta esperientzia polita izan da. Musikari oso onekin jotzeko aukera izan dut eta horrek gauzak asko errazten ditu. Kalitatezko lana izan da eta Juan Carlosek oso ondo eraman du dena: oso tipo interesgarri eta jatorra da. Eta musikari bikaina. Euskal musikan aurkezpenik behar ez duen musikaria da, erreferentzietako bat, zalantzarik gabe.

**Zuzenean grabaturiko diskoa izan da...**

Bai, disko osoa jarraian grabatu genuen, Juan Carlosek zuzeneko bizitasuna lortu nahi zuelako, diskoa hotza ez izatea, alegia. Eta nahiko erraz atera zitzaigun; entsegu pare bat egin genituen, eta aurrera. Hain musikari kalitatezkoekin horrelako gauzak egin daitezke, eta *di-da* batean egin genuen grabaketa Donostiako Elkarreko estudioetan. Gustura gaude emaitzarekin.

**Zelan definituko zenuke *Hiriko istorioak* diskoa?**

**"Musikari oso onekin jotzeko aukera izan dut eta horrek gauzak errazten ditu"**

**"Juan Carlos Perezek niretako konposizio bat agindu zidan, orkestra eta tronboiarendako"**

Oso disko interesgarria eta erakargarria da, jendearendako entzungarria. Jazz, blues eta horrelakoak entzutean jende batek atzera egiten du... Baina estilo askotariko pintzeladak dauzka diskoak eta musika oso lasaia, Juan Carlosen estiloan. Beharbada, jazz ukitua nabariagoa da, lehenengo aldiz tronpeta eta tronboia erabili dituelako Juan Carlosek.

**Zer-nolako harrera izan duzue zuzeneko emanaldietan?**

Oso ona. Hainbat emanaldi egin ditugu dagoeneko: Getxon, Agurainen, Bilboko Arriagan, Usurbilen izango gara gaur, egubakoitza, eta hilaren bukaeran Azkoitian. Getxoko emanaldian Bernardo Atxagak ere parte hartu zuen, poema batzuk irakurrita. Juan Carlosen oso laguna da eta baliteke Azkoitiko emanaldira etortzea. Getxokoa oso ondo egon zen. Ea Arrasatera ere hurbiltzen garen... Elorrion ekainaren bukaeran joko dugu.

**Nola egiten duzu han eta hemen jotzeko? Agenda antolatzea ez duzu erraz izango...**

Izatez, Bilboko Orkestra Sinfonikoko bakarlaria naiz. Gertatzen da hainbat tokitatik gonbidatzen nautela jotzera. Sevillako eta Euskadiko Orkestrarekin lan asko egin dut eta momentuan Granadako Orkestrarekin eta Galiziako Real Filarmonia Orkestrarekin nabil. Bakarlari gisa kolaboratzen dut haiekin, eta, horrez gainera, Musikenen, Donostian, ganbara musikako eskolak ematen ditut.






autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

**Zer eduki beharko luke nire enpresaren Webguneak?**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan

Nire enpresak **Interneten egon behar** du, baina, nola? **Webgune eraginkorra eta zuzena** izateko kontuan hartu behar dudan guztia. Jarraitu beharreko oinarrizko **gomendioak**. Domeinua. Webgunearen diseinua.

**Debagoiena**
maiatzak 16
BERGARA
Miguel Altuna GLBHI
(Elementala)
Ordutegia:
**18:00-20:00**

Informatzeko eta izena emateko:
**943 747 314**
**www.miramondigital.com**
**cursos@miramondigital.com**

Antolatzailea: Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak: Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco; Gipuzkoako Foru Aldundia – Diputación Foral de Gipuzkoa; euskadi informazio gizartean – en la sociedad de la información; e-gipuzkoa; SPRI



**20 URTE** Bilboko talde karismatikoak 20 urte bete ditu taula gainean. Arrasaten izango dira gaur. OIHUKA

**MUSIKA** > JOAN DEN ASTEAN 'DETRÁS DE LOS ESPEJOS ROTOS' KALERATU ZUEN

# Doctor Deseok diskoa aurkeztuko du 3.60 aretoan

Elektronika eta esperimentazioa utzi eta taldearen ohiko soinu bereizgarrira bueltatu dira

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Bilboko Doctor Deseo taldeak, ohitura duen moduan, hamalau bat hilabete egin ditu eszenatokietara igo barik. Joan den astean hamargarren diskoa kaleratu zuten eta euren jaioterrian, Bilbon, bina emanaldi egin ostean, gaur, egubakoitza, Arrasateko 3.60 aretoan arituko dira, 23:00etan.

*Detrás de los espejos rotos* lanarekin, bilbotarrek aurreko diskoetako esperimentazio eta elektronika giroak alde batera utzi dituzte, eta harira doaz. Hortaz, taldearen ohiko rock bereizgarrira bueltatu dira; hori bai, tarteka tangoa, soula eta, oro har, doinu beltzagoak erabilita, *hammond*-aren eta tronpetaren laguntzarekin.

Diskoaren izenburua minbiziak inspiratu die, eta bizitzaren aldeko alegoria da. "Gaixotasun larriak dituzten lagun asko ditugu. Hortaz, bizitza gehiago gozatu behar dela aldarrikatu gura dugu oso ozen", azaldu zigun taldeko abeslari Francis Diezek.

**MORBOA, SEXUA ETA BESTE**

Hitzei dagokienez ere taldea ez da batere aldatu. Sexua, desioa eta morboa dira gai nagusiak. Horrez gain, euskarazko beste kantu bat egitera ausartu dira.

**GOIENA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK KOOP.**
**BATZAR OROKORRA**

**DEIALDIA**

Honen bidez, 2006ko ekainaren 1ean, osteguna, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako dei egiten dut.

Batzarra Arrasateko Saiolaneko bilera gelan (Nafarroa Etorbidea, 2) izango da, 18:00etan lehen deialdian eta 18:30ean bigarrenean.

**GAI ZERRENDA**

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2005eko maiatzaren 20ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2005eko kudeaketa txostena azaltzea.
4. 2005eko kontuen berri ematea eta emaitzen erabilera onartzea.
5. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
6. 2006ko kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea.
7. Borondatezko ekarpenei interesak ordaintzeko proposamena.
8. Errektore Kontseiluko kide berriak aukeratzea.
9. Zaintza Batzordea berritzea.
10. Errektore Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideek beren karguak onartzea.
11. Galderak eta eskaerak.

Arrasaten, 2006ko maiatzaren 12an.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

**MUSIKA**

# Ensamble Diatessaron taldea Oñatin

**I.B.** > OÑATI

Oñatiko XVIII. Musikegunak jardunaldien barruan, etzi, domeka, Ensamble Diatessaron boskoteak emanaldia egingo du Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Juan Vegak txirula eztia eta txistu barrokoa jotzen ditu; Elena Martinez de Murgia sopranoak biola baxua; Sebastien Wonnerrek klabezina; Rafael Bonavitak tiorba eta gitarra barrokoa; eta David Mayoralek perkusioa.

**ANTZINAKO MUSIKA TRESNAK**

XVI. eta XVIII. mendeen bitarteko errepertorioan espezializatuta dago boskotea, eta, hain zuzen, sasoi hartako instrumentuekin ematen dituzte kontzertuak.

*GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA*

Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
osasun-erregistroa 20C2.1.6170

*Boni Laskurain 4 BERGARA*

**943 76 35 71**

ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Bezeroen kezkei erantzunez

**Nereari erantzuna.** Aurpegia xaboi horrekin garbitzen jarraitzen baduzu, orbainak irtengo zaizkizu; erabiltzen duzun produktua oso azidoa denez, gerta liteke zure aurpegia deshidratatzea. Zuretako onena da PH-5a duen esne garbitzailea erabiltzea. Horrez gain, azido puntua duen krema hidratatzailea eta sentsibilitatea kentzeko suero bat txandakatuz erabiltzea gomendatzen dizut. Sueroa goizez eta krema azidoa gauez.

**Nekaneri erantzuna.** Zuk dauzkazun orbainak ez dira kentzen produktu horrekin (ez du ezertarako balio); orbain horiek TCA edo laser bidez bakarrik ken daitezke, beti tratamendu mediko espezializatu bidez.

**M. Iriondori erantzuna.** Betazaleko poltsak ez dira ez krema eta ez maskara bidez kentzen; horiek koipezko tirita batzuk dira (hiru, normalean) eta kendu egin nahi baditugu atera egin behar dira. Zuk diozun moduan, beheko betazaletan bakarrik badituzu, errekuperazioa azkarra izango da eta bizimodu normala egiten hasi zaitzeke berehala; dena dela, Maria Teresa Balda doktoreak galdera guztiak erantzungo dizkizu balorazioko lehenengo kontsultan.

Handituta dauden betazalak hobetu egin daitezke krema eta maskara tratamendu konkretuekin (laborategi ezagun batek produktu berri bat atera du, eta hark dioenez emaitza oso onak emango ditu). Dena dela, emaitza onak betazal nekatu eta handituetan bakarrik ematen ditu, ez koipez beteriko poltsetan.

**Loreri erantzuna.** Zuk aipatu didazun C bitaminadun krema hori oso ona da. Emaitza onak emango dizkizu. Rosa Mosqueta duten krema eta olioak onak, oso onak eta balio biologiko txikikoak izan daitezke; ez du balio etiketan Rosa mosqueta krema jartzeak, asko daude-eta; tartean kontzentrazio minimoa dutenak eta puruak ez direnak. Rosa Mosqueta duen produktu bat erabiltzen dugunean kontzentrazioak %100 purua izan behar du. Ikusiak ditut batak eta besteak ematen duten emaitza, eta ez daukate zerikusirik. Nik behar dudana %100 purua da.

**Eguzkiñeri erantzuna.** Lepoan zain gorriak eta orbain zuriak dituzula esan didazu; hori normalean zure bizitzan zehar eguzki gehiegi hartzearen ondorio da; bada, edozein arazo ekiditeko, martxotik azarora bitartean babes osoko eguzkitarako krema eman beharra daukazu krema hidratatzailearen gainetik. Krema horrek Epidermisa Hasteko Faktorea badauka, hobeto. Kontuz ibili udan, ez erabili PH baxua duen kremarik, bestela eguzkiaren izpiek lepoko azala gorrituko baitizute. Bukatzeko, esan, zain gorriak kentzeko tratamendu eroso eta eraginkor bat dagoela eta orbain zuriak asko gutxi daitezkeela, igar ez daitezen.

**Maria Teresa Balda** doktorea
Zirujau Plastiko Estetiko Konpontzailea
Elkargokide zenbakia: 3699

**Enrique Vilasau** doktorea: Medizina Estetikoa eta Desmokosmetika
Elkargokide zenbakia: 2938



**Maria Isabel Hurtado**
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
- Ibargarai 106 m². Oso ondo.
- Espoloia 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Oso ondo.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Prezio oso ona
- Zubiaurre 80 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.

Antzuola:
- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsua, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza. Aukera ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

BERGARA:
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- San Anton Abad, 75 m². Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerreka 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Iparragirre 165 m². Berritzeko.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Martoko 45 m². Ondo.
- Simon Arrieta 89 m². Berritzeko.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.

ELGETA:
- Salbador 80 m². Berritzeko.

SORALUZE:
- Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Duplex berria erdialdean.

ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANISTICOS
INMOBILIARIA
T:943 698404

BERGARA:
- 109 m² , 3 logela.
- 97 m² ,3 logela, 2002. urtekoa
- 65 m², 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa,105 m², 3 logela, garajea
- 82 m², 3 logela, berrituta. 210.995 €
- 104 m², 4 logela, egongela haundia, 366.617 euro
- Martoko. Bi urte dela berritua.
- S. Anton Abad. Bi urte dela berritua.
- Ibargarai 80 m². Bi balkoi.

ARETXABALETA
- 85 m², 3 logela, jantzita

ARASATE
- 109 m² , 4 logela, terraza,2 komun

ANTZUOLA
- 8 txalet berri
- 51 m², berrituta, 167.000 euro
- 90 m², 3 logela, terraza
- 77 m², berrituta, 217.674 euro

ANGIOZAR
Baserria

## 1. ETXEBIZITZAK
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 17 € (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.
649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

**ARETXABALETA**
Jatetxe bat egunero garbitzeko garbitzailea behar da eta zerbitzaria asteburuetarako.
647 41 93 45

**ANGIOZAR**
Ortzi erretegia alokatzen da.
943 78 22 80
665 72 24 46

**ARRASATE**
Olarte ikastolaren ondoan 85 m²-ko lokala salgai. Etxebizitza bilakatzeko baimenarekin.
652 76 21 63

**ARRASATE**
Etxetresna elektrikoak etxeetara eramateko mutil gazte bat behar da.
943 77 00 34

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Duplexa salgai. Eraikin berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria. 90 m². Hiru gela, egongela-jangela, sukaldea, bi bainugela, halla, bi balkoi. Trastelekua. Erdi jantzia. Eguzkitsua. Telefonoa: 655 70 97 14.

**Arrasate.** Otalora 2. Goiko solairua. Ikuspegi zoragarria. Hiru logela eta bi bainugela. Bizi izatera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Doneztebe Portuko kalean. 69m². Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bi soto. Arratsaldez deitu. 652 77 87 71.

**Arrasate.** San Andres auzoan dago. 57m² ditu. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Telefonoa: 943 79 98 45 edo 685 72 11 66.

**Bergara.** 75 m². Hiru logela, egongela terrazarekin, komuna eta sukaldea. Txokoa eta bi aparkaleku ere baditu. 600 46 58 02.

**Bergara.** Apartamentua salgai Espoloian. Garajea aukeran. 607 81 84 29.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden: 3 logela, 2 komun, berogailua, garajea eta trastelekua. Eguzkitsua eta ikuspegi paregabea. 943 76 27 68 edo 655 72 04 12.

**Elorrio.** 77 m². Berritua. Sukaldea, komuna, bi logela, trastelekua. 20 m²-ko egongela. Herri erdialdean, leku lasaia eta ikuspegi onak. 190.000 euro. 630 58 97 86.

**Oñati.** Eguzkitsua. Bi bainugela, hiru logela. Terraza: 23 m². Ganbara. Garaje itxia. 626 55 77 99.

### 102. EROSI

**Aramaion** etxea erosiko nuke. 639 77 49 80.

**Leintz Gatzagan** etxea erosiko nuke. 650 06 02 53.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Logela bat alokatzen da. Sukaldea erabiltzeko aukera. 300 euro. Dorleta. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Cambrils.** Etxea errentan. Hondartzako lehen ilaran. Igerilekua eta berdegunea ditu. 610 79 47 29.

**Eskoriatza.** Lau ikaslerendako etxea alokatzen dut. Unibertsitatetik oso gertu. Telefonoa: 616 64 96 28 edo 629 42 26 47.

**Haro** (Errioxa). Etxea ematen dut errentan. Ekaina eta iraila. Igerilekua. Telefonoa: 618 16 23 69.

**Oñati.** 58 m². Sukaldea, egongela, bi logela eta komuna. Herriko plazatik gertu. Telefonoa: 656 72 10 35.

**Salou.** Lau lagunendako etxebizitza itsasoari begira. Ekainetik irailera bitartean, Jaime I pasealekuan. Deitu telefono honetara: 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

**Torrevieja.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, terraza eta igerilekua. Hondartzatik gertu. 657 79 47 95.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara edo Antzuola.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Bi edo hiru logelarekin. Yolanda. Telefonoa: 647 10 58 85 edo 685 78 78 22.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Bi pertsona behar dira etxe bat osatzeko. Etxebizitza zeharo jantzita dago. 210 euro gehi gastuak. Esther. Telefonoa: 636 41 40 67.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Santa Marina 42an. Deitu 21:00etatik aurrera. 619 59 28 47.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Oñati.** Garajea ematen da errentan. 17 m² eta plazatik gertu. 656 72 10 35.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Pertsona bat behar da abuztura bitartean ume bat zaintzeko. 686 55 79 82.

**Bergara.** Pertsona euskaldun bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 616 26 18 84.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Telefonoa: 943 08 12 80.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak eta edadetuak zaintzeko. Telefonoa: 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Arratsaldez egingo luke lan. 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Bergara.** Neska gertu dendan, kafetegian, tabernan... lan egiteko. 676 92 67 89.

**Debagoiena.** Mutil batek jatetxe baten sukaldean lagunduko luke (eskarmentu handia dauka) edo garbitasun lanak egingo lituzke. 666 83 21 95.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Telefonoa: 943 79 03 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Fiat Stylo** autoa salgai. Guztiz jantzita eta egoera onean. 2004ko martxokoa. 29 mila km ditu. 17ko hagunak (llantak). Prezioa: 11 mila euro. Deitu telefono honetara: 676 08 45 45.

**Fiat Ducato** autokarabana salgai. 2.5 TDI. Sei lagunentzako lekua. Telefonoa: 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Fiat Uno** autoa salgai. SS-AP. 1.000 euro. Telefonoa: 652 76 60 36.

**Gas-Gas** motorra salgai. 1999koa. 250 cm³. Egoera onean. IAT (ITV) pasatuta. Agiri guztiekin. Telefonoa: 620 19 44 35.

**Golf GTI** autoa salgai. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

**Mercedes Vito** 110 CDI. 2000. urtekoa. 96.000 km. Kanpinerako prestatua. Bi ohe handi. 635 75 53 36.

**Renault** Express. Diesela. 943 76 19 74.

**Renault** Express. Diesela. Oso ondo dago. Beti garajean. 606 68 79 84.

**Seat Ibiza** Gt TDI 110 ZP autoa salgai. Aire girotua, CDa, eta abar. Beti garajean egondakoa. 666 78 57 83.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Yorkshire Terrier** arrazako txakurkumeak salgai. Apirilaren 19an jaioak. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

### 704. BESTELAKOAK

**Yorkshire Terrier** txakur emea nahiko nuke (beltza nahiago dut), nire arrarekin gurutzatzeko. Kume batekin geratzea da nire asmoa. Deitu telefono honetara: 656 73 57 93.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bizikleta salgai.** Tinarello Angliru markakoa. Urdina. Campagnolo Veloce osagarriekin. Zortzi hilabetez erabilia. 1,80 metroko pertsonarendako egokia. 800 euro. 626 25 27 03.

**Bizikletak.** Bi mendiko bizikleta. Ondo daude. 943 76 15 43 edo 685 72 53 17.

**Errepideko bizikleta** salgai. Egoera oso onean dago. Giant-Once markakoa, Campagnolorekin hornitua eta kilometro-kontagailuarekin. Koadro handia da. 620 48 96 18.

**Kanpinerako karro-denda** salgai. Egoera onean eta merke. 943 79 63 67.

**Karabana** salgai. Bustner. Castañaresko (Errioxa) kanpinean dago. Ondo zaindua. Gauez deitu. 695 74 61 16 edo 943 08 00 81.

**Karabanarako abantzea** salgai(4.10), egoera onean eta erdi prezioan. 943 79 27 24.

**Zapatila ortopedikoak** salgai, emakumezkoentzakoak. Marroi kolorekoak eta zinta itsasgarridunak. 41 neurrikoak dira eta estreinatu gabe daude. 60 euro, negoziatzeko aukerarekin. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

### 802. EROSI

**Altzariak** erosiko nituzke, logelakoak eta egongelakoak. 636 49 46 87.

**Debagoiena.** Basoko lursaila edo baserriko lursaila erosiko nuke. 678 72 75 72.

**Hozkailua** erosiko nuke, bigarren eskukoa. 636 49 46 87.

### 806. GALDU

**Bergara.** Urrezko belarritakoa galdu dut. Aurkitzen duenak ordainsaria jasoko du. 662 29 31 44.

**Ezkontzako** urrezko eraztuna galdu nuen duela astebete-edo Monte taberna inguruan. 635 74 17 37.

---

LKS Ingenieria

LKS INGENIARITZA, KOOP. E
**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIALDIA**

**Eguna:** 2006ko maiatzaren 19a.
**Ordua:** lehenengo deialdia 11:00etan eta bigarrena 11:30ean.
**Tokia:** Arantzazuko Bitoriano Gandiaga Topagunean, ekitaldi aretoan (Oñati).

**AZTERGAIAK**

1 - 2005eko maiatzaren 20ko Ohiko Batzar Nagusiko aktaren onespenari buruzko txostena.
2 - Aktaren onespenerako bazkideak izendatzea.
3 - 2005eko ekitaldiko memoria, emaitzen balantze eta kontuak eta Gestio Txostena aztertu eta onartzea.
4 - Soberakin garbia banatzea.
5 - Heziketa eta Sustapenerako Fondoa banatzea.
6 - Ekonomi Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
   - Ekarpenak
   - Kapitalerako ordainketa
   - Kapitalerako ekarpenen eguneratzea
7 - Ingeniaritzaren eta Enpresa eta Hezkuntza Zerbitzuen Dibisioaren Proiektu Instituzionalaren berrespena. (Kontseilu Errektoreko Akordioaren berrespena).
8 - Estatutu Sozialaren aldaketak onartzeko proposamena. Dibisiora moldatu
9 - Barne Araudiaren aldaketak onartzeko proposamena. Dibisiora moldatu
10 - AIC (Ingeniaritza eta Aholkularitza Agrupazioa) Koop. E.-ri buruzko txostena.
11 - MCCri buruzko informazioa.
12 - Galderak eta eskaerak.

OHARRA: bazkide guztiek jaso dute Estatutu Sozialak aldatzeko proposamenaren testu osoa, Justifikazio Txostena eta Ohiko Batzar Orokorrak hartu beharreko erabakien proposamena ere.

Kontseilu Errektoreko lehendakaria
Arrasaten, 2006ko apirilaren 21ean.

---

COPRECI

**COPRECI, K. ELK.**
**2006ko OHIKO BATZAR OROKORRERAKO DEIA**

Kontseilu Errektorearen erabakiz, elkartearen Ohiko Batzar Orokorrera deitzen da. Batzarra Gesalibarko Aita Menni ospitaleko areto nagusian egingo da 2006ko maiatzaren 19an, 15:30ean lehen deia eta, kasua balitz, bigarrenean, 16:00etan, egun eta toki berean, EGUNEKO GAI ZERRENDA honen arabera:

**GAI ZERRENDA**

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta akordioa.
2. Memoria irakurtzea eta onartzea.
   2.1. 2005eko gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2006ko Gestio Plana onartzea.
3. Mondragon Componentes eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4. 2005eko kontuen eta balantzeen azterketa.
5. 2005eko emaitzen banaketa.
6. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
7. Kooperatibaren Estatutu Sozialaren 5 artikulua aldatzea.
8. Kooperatibaren Barne Erregelamenduaren 37-lau artikulua aldatzea.
9. Kooperatibaren Barne Erregelamenduko 68-sei artikuluari buruzko aplikazioa.
10. Entitateen gaiak
    10.1. MCC
    10.2. Euskadiko Kutxa
    10.3. Lagun-Aro
11. Kanpoko auditoreak izendatu.
12. Fagorreko Batzar Orokorrerako eta Mondragon Componenteseko hautapena.
13. Galderak eta eskaerak.

Oharra: Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

Kontseilu Errektoreko idazkaria
Aretxabaletan, 2006ko apirilaren 20an

## hildakoak

- **Jose Antonio Bengoa Eraña.** Arrasaten, maiatzaren 3an. 79 urte.
- **Antonio Iñarra Lizarralde.** Bergaran, maiatzaren 4an. 81 urte.
- **Antonio Onis Hernandez.** Oñatin, maiatzaren 5ean. 94 urte.
- **Jaime Gomez Fernandez.** Arrasaten, maiatzaren 6an. 35 urte.
- **Carlos Aiastui Zugasti.** Oñatin, maiatzaren 8an. 79 urte.
- **Luis Conde Ruiz de Loizaga.** Bergaran, maiatzaren 8an. 81urte.
- **Maria Isabel Mondragon Elortza.** Arrasaten, maiatzaren 10ean. 63 urte.
- **Fausta Fdez. de Jauregi Peciña.** Aretxabaletan, 10ean. 98 urte.
- **Mercedes Peñalna Maortua.** Bergaran, maiatzaren 10ean. 90 urte

ESKER ONA

## Fausta Fernandez de Jauregi Peziña

Doroteo Barandiaranen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2006ko maiatzaren 10ean, 98 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKELA

## Fausta Fernandez de Jauregi Peziña

Doroteo Barandiaranen alarguna

Aretxabaletan hil zen 2006ko maiatzaren 10ean, 98 urte zituela.

GOIENAk bat egiten du
senideen saminarekin.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

Arrasaten, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKELA

## Luis Conde Ruiz de Loizaga

Bergaran hil zen 2006ko maiatzaren 8an, 81 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan*



Zure senideak.
Bergaran, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKELA/MEZA

## Luis Miguel Lopez

"Lopo"

Tenerifen hil zen 2006ko maiatzaren 1ean, 40 urte zituela.

Haren arimaren aldeko
hileta elizkizuna,
zapatuan, maiatzak 13,
19:00etan, Arrasateko
San Juan Bataillatzailearen elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

## Jaime Gomez Fernandez

Arrasaten hil zen 2006ko maiatzaren 6an.

Une latz hauetan bat egiten dugu
familiaren saminarekin

arrasate Herri Eskola

Arrasate Herri Eskola.
Arrasaten, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

## Antonio Iñarra Lizarralde

Bergaran hil zen 2006ko maiatzaren 4an, 81 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko familiaren izenean.



Bergaran, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

## Hilario Altuna Errasti

Eskoriatzan hil zen 2006ko apirilaren 27an, 66 urte zituela.

*Ez nau izutzen negu hurbilak*
*uda beteko beroan*
*dakidalako irauten duela*
*orainak ere geroan*

Eskoriatzako Aitzorrotz Kultur Elkartea
Eskoriatzan, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

## Maritxu Gartzia Etaio

Bergaran hil zen 2006ko apirilaren 29an, 78 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko maiatzaren 12an.

ESKER ONA

## Ines Etxezarreta Galdos

Alejandro Irizarren alarguna

Oñatin hil zen 2006ko maiatzaren 2an, 91 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko maiatzaren 12an.

URTEURRENA

## Bernardo Iñarra Orueta

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 14an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Roman Zabaleta Olabarria

Maria Luisa Irazabalbeitiaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 14an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Jose Luis Lete Lizarralde

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 14an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Gregoria Gomez Batalla

"Goya"

Bigarren urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 14an,
12:00etan,
Eskoriatzako parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Visitacion Ayastuy Villar

Mauricio Arregiren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzaren 14an,
11:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Txiro, behar-tsu
Farmazia
Zekenak, ziz-trinak
Muskulu-uzkurdura
Urlia, beren-dia
Errep., txori mota
Bi osagaiz osatua
Nafarroako mendia
Urtaldi
Aldaketa, trukaketa
IRUDIKO MENDIA
Usain
500
Bete
Atomo kargatu
Intsektu mota
Erdi hitz-elkarketan (aldrebes)
Latza
Nafarroako herria
Bokal errepikatuta
5. eta 3. bokalak
Bidaiak egin
Su-etena
Akuri

LUMA

## umore giroan



Kike Amonarriz

**Migeliko Lizarrako azokan**

Migeliko Lizarran egin ohi den ganadu azokarik garrantzitsuenera joan da. Abereak ikusten ari dela honako hau galdetu dio abeltzain bati:

- Aizu, begira eta begira ari naiz eta ez dut ulertzen. Esango al zenidake behi honek zergatik ez duen adarrik?

- Presidente jauna. Badira adarrik gabe jaiotzen diren behiak eta baita adarrak harkaitzen kontra puskatutakoak ere.

- Bitxia da. Eta honi zer gertatu zaio?

- Beno, hau..., ez...

- Aizu, baina esango al didazu behingoz ze kristo gertatu zaion behi honi adarrik izan ez dezan?

– Ezer ez, presidente jauna. Behi hau zaldia baita!

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | 9 | | | | 3 | 6 | |
| 7 | | 4 | 5 | | 6 | 1 | | 8 |
| | | | | 9 | | | | |
| | | 3 | 9 | 4 | 8 | 2 | | |
| | | | | | | | | |
| | | 5 | 3 | 7 | 1 | 8 | | |
| | | | | 1 | | | | |
| 9 | | 8 | 2 | | 4 | 7 | | 3 |
| | 5 | 7 | | | | 6 | 2 | |

## hieroglifoa

Zerk eramango gaitu urrutira?

DD

## hizki salda

Euskal Herriko bost arraun talderen izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | K | N | F | R | T | D | X | A |
| B | U | R | D | A | I | B | A | I |
| Z | B | I | P | L | O | I | T | T |
| E | N | D | S | T | G | U | H | A |
| A | U | U | J | U | F | R | T | M |
| H | A | T | E | R | N | A | S | A |
| K | R | L | I | U | B | T | D | R |
| E | R | T | B | D | N | M | Z | I |
| E | A | R | K | O | T | E | S | A |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | P | | Z | | S |
| | | | B | O | T | I | K | A |
| | | | | B | I | K | U | N |
| | U | | U | R | K | O | | D |
| T | R | U | K | E | | I | O | I |
| | T | R | E | | O | T | S | A |
| G | A | R | R | A | T | Z | A | |
| | B | I | D | A | I | A | T | U |
| M | E | N | I | A | | K | U | I |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 2 | 6 | 1 | 8 | 7 | 3 | 9 | 4 |
| 7 | 3 | 4 | 5 | 2 | 9 | 1 | 6 | 8 |
| 1 | 8 | 9 | 4 | 6 | 3 | 5 | 7 | 2 |
| 9 | 7 | 3 | 6 | 4 | 8 | 2 | 1 | 5 |
| 8 | 4 | 1 | 9 | 5 | 2 | 6 | 3 | 7 |
| 2 | 6 | 5 | 3 | 7 | 1 | 8 | 4 | 9 |
| 3 | 9 | 2 | 7 | 1 | 5 | 4 | 8 | 6 |
| 6 | 1 | 8 | 2 | 9 | 4 | 7 | 5 | 3 |
| 4 | 5 | 7 | 8 | 3 | 6 | 9 | 2 | 1 |

**Jerogilifikoa:** Bide luzeak.
bi d luzeak



## bono fotoa



**Duela urte batzuk Kataide baserria bota zuten eta Jabier Arregi Kataideren jabeak Egiaundi baserria eraiki zuen. Arrasateko zein auzotan dago ?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ........................................

IZEN-DEITURAK ........................................
TELEFONOA ........................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Heineken garagardoa**
6 botilako packa
**2,89 €** 481 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
**NEREA OLASKOAGA**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Labanak.**




ETOR ZAITEZ BERGARAKO **SAAB SHOWROOM** BERRIA IKUSTERA

*Giauto*

Olabarrena Auzoa, z/g
Bergara. Gipuzkoa. Tel. 943 763 344

**Edozein premiatarako:**

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG

CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

**Ander Rodriguez** > Politikaria

# "Zinegotzi aukeratu nindutela jakin nuenean, errespetu handia eman zidan"

Ander Rodriguez oso gaztea da oraindik, baina dagoeneko saltsa askotan sartuta ibili da: Espainiako gerrako biktimei laguntzen ibili zen, Iraken izan zen nazioarteko brigadista lana egiten, Arrasateko Udalean zinegotzi da eta, aspaldian, Ezker Batuko zuzendaritzan buru-belarri dabil. Gitarra jotzeko eta Historia ikasteko denbora laburra hartzen du.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

**Rodriguez betidanik erakarri du politikak. Unibertsitatean sindikatuetan ibili zen eta 18 urterekin Ezker Batuko kide egin zen. Horren ostean, Arrasateko Udalean zinegotzi kargua hartu zuen eta gaur egun EBko zuzendaritzan ere badago.**

**Ume zinela, zer izan gura zenuen nagusitan?**

Gauza asko, telebistan ikusten nuen ia guztia: mekanikari, mediku, abokatu... Inoiz ez dut guztiz argi esan.

**Formala zinen txikitan?**

Ez, oso okerra nintzen, bai ikastolan eta baita institutuan. Ganberro samarra nintzen.

**Eta zer esango dute orain zu zinegotzi ikusita?**

(Barreak). Behin baino gehiagotan pentsatu dut hori. Irakasle batzuek zer esango ote duten...

**Zer zaletasun zenituen gazteagotan?**

Txikitan kirol asko egiten nuen: karate, atletismo, futbola... Politikan eta ikasle sindikatuetan hasi nintzenean, kirola alboratu egin nuen. Horrez gain, musika ere oso gustuko izan dut betidanik, baita zinema eta irakurtzea ere.

**Sasoi baten musika talde bat egiten saiatu zinen?**

Bai, buruan amets hori izan nuen eta abeslaria behar zuen talde baten probara joan nintzen. Ahots txarra daukat, eta ez ninduten hartu. Talde baten esku hartzea polita litzateke, nahiz eta lagun artean jo. Hala ere, oso lotsatia naiz eta jendaurrean aritzea kostatu egiten zait, jendeak ez sinistu arren.

**Eta noiz hasi zinen gitarra jotzen?**

Betidanik izan dut gustuko, baina 20 bat urterekin gitarra elektriko eta akustiko bana erosi eta eskolak hartzen hasi nintzen. Zoritxarrez, orain, denbora faltarengatik, nire kontu jotzen dut. Deskonektatzeko oso apropos da.

**Noiz erabaki zenuen Historia ikastea?**

17 urterekin. Batxilergo Teknologikoa egin nuen eta Ingeniaritza egiteko bidean nengoen, baina Batxilergoko azken urtean irakasle oso on batek Historia ikasgaia eman zigun, eta hark azaldutako hainbat kontuk erakarri ninduten: pentsamendu askea, iraganetik ikasi etorkizunean aritzeko... Horrela, egunetik gauera iritzia aldatu nuen. Aita ahalegindu zen nik Zuzenbidea ikasteko konbentzitzen, baina ez zuen lortu.

**Nolatan joan zinen Irakera brigadista?**

Nazioarteko brigadista moduan joan nintzen. Sasoi hartan Jaurlaritzan lanean nenbilen 1936ko gerrako biktimei laguntzak ematen. Lankide batek Komite Internazionalistak taldearekin Irakera joan behar zuela esan zidan, eta nik ere joan gura nuela esatearekin bat apuntatu egin ninduten. Irak bonbardatu aurretik, astebete egin genuen han. Ahalegindu ginen denbora luzeagoa egiten, baina ez ziguten utzi.

**Betidanik erakarri zaitu politikak?**

Aspalditik. Gainera, historiak eta politikak lotura handia daukate. Unibertsitatean elkarte troskista baten esku hartzen hasi nintzen. Horren ostean, 18 urterekin, erabaki nuen Ezker Batura afiliatzea, talde horren programa politikoarekin bat egiten nuelako. Taldekoak harrituta gelditu ziren hain gaztea nintzelako.

**Eta zelan bilakatu zinen zinegotzi?**

Udal hauteskundeak heldu zirenean, taldekoek esan zidaten zerrendan bigarren jarriko nindutela. EBk, ordura arte, zinegotzi bakarra zuenez, ez nion garrantzirik eman. Baina emaitzak ikusita, zur eta lur gelditu nintzen eta errespetu handia eman zidan: zeregin horretarako gauza izango nintzen, maila emango ote nuen... Hasieran galduta nengoen, baina azkar moldatu nintzen eta gauza asko ikasi ditut, borondatea jarri dudalako.

**Herri bateko zinegotzi izateak kostu pertsonal handia dauka?**

Zelanbaitekoa bai. Kargu publikook intimitate txikia daukagu. Horrez gain, azkenaldian Ezker Batuko zuzendaritzan ere banabil.

**Politikari ez bazina, non ikusten duzu zure burua?**

Denetatik egin izan dut: zerbitzari lana, aldi baterako enpresetan, Fagorren... Ez daukat arazo handirik. Hala ere, aukeratzekotan, beteko ninduen lan bat hartuko nuke.









JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Historia. **Zaletasunak:** Musika, irakurtzea eta zinema. **Disko bat?** Doctor Deseoren *Fugitivos del paraiso*. **Zein filmetako protagonista izango zinateke?** Señor Lobo (Harvey Keitel) *Pulp Fiction*-en. **Gizateriaren asmakizun handiena?** Musika. Ez dio inori kalterik egin. **Prentsa, telebista, irratia ala Internet?** Internet, askoz libreagoa da. **Inoiz ahaztuko ez duzuna?** Aitaren heriotza. **Betetzeko daukazun amets bat?** Liburu bat idaztea. Oraindik ez dakit zeren gainekoa.




ERANTZUN ONA Errotuluak euskaratzearren, Bergaran dirulaguntzak eskuratzeko 13 eskaera jaso zituzten iaz. GOIENKARIA

**KOMERTZIOA** > ERROTULUAK EDO IRUDI KORPORATIBOA EUSKALDUNTZEKO LAGUNTZAK

# Euskararen presentziak nabarmen egin du gora merkataritza alorrean

Debagoieneko herri gehienetan, komertzioko errotulua eta irudi korporatiboa euskaratzearren dendariek dirulaguntzak jaso ditzakete

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Debagoieneko zenbait udalek komertzioetako errotuluak, irudi korporatiboa edo webguneak euskaratzeko dirulaguntzak ematen dituzte. Aipatutako ekimenari esker euskararen presentziak nabarmen egin du gora merkataritza alorrean.

Arrasaten, Bergaran, Oñatin, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Antzuolan dirulaguntzak eskatzeko aukera dago. Hainbat kasutan kanpoko errotulua euskara hutsez jarriz gero kostuaren %50 bere kargu hartzen du udalak. Aramaion %60ko dirulaguntzak ematen ditu Udalak errotuluak euskaratzeagatik. Gehienezko laguntza 300 euro da, kasu gehienetan. Arrasateko Udaleko Euskara Zerbitzuak emandako datuen arabera, 65 laguntza banatu dituzte 1998a ezkero errotuluak euskaratzearren; erdigunean dauden dendetatik laurden batek horrelako dirulaguntzak jaso ditu. Oñatin, 2002tik irekitako denda berrien % 87k euskara hutsez jarri du errotulu nagusia, % 6,5ek ele bitan eta % 6,5ek gazteleraz.

Irudi korporatiboaren elementuekin beste horrenbeste gertatzen da. Gutun-azalak, inprimakiak, bisita-txartelak, poltsak edo produktuak biltzeko erabiltzen den papera euskara hutsez azaltzen badira, %50eko dirulaguntza jaso dezakete dendariek.

Bestalde, webguneek gero eta presentzia nabarmenagoa daukate eta sarean euskara erabiliz gero ere badaude dirulaguntzak hainbat herritan.

**PIZGARRIA DENDARIENDAKO**

Bergaran 2002an jarri zuten abian *Zabaldu atia euskeriari* kanpaina. Eli Payros Udaleko Euskara teknikariak zera diosku: "Orokorrean erantzun ona izan dugu. Dendariendako pizgarri ona da dirulaguntzena. Joan zen urtean, adibidez, 13 eskaera izan genituen. Saltzaileendako aukera izateaz gain, erosleen artean sentsibilizazioa pitz daiteke; errotuluak edo bestelako elementuak euskaraz egoteak harremanak euskaraz izatea ekar dezake".

## teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

### Photosmart Pro B9180 delakoak inprimatutako argazkiek 200 urteko bizitza izan dezakete

Antza denez, reflex kamera digitalen erabiltzaile kopuruak %264ko hazkundea izango du aurten. Eta ikerketa baten arabera, kamera konpaktuak dituztenak baino gehiago erabiltzen dituzte inprimagailuak.

HP etxeko Photosmart Pro B9180 delakoak inprimatutako argazkiek bizitza luzea daukate, 200 urtekoa, egindako azterketekin fidatzen bagara. Mota askotako paperak erabil ditzake eta abiadura azkarrean inprimatzen ditu argazkiak.



Photosmart Pro B9180 inprimagailua. 8.840 inpresio bururi esker, ziztu bizian egiten du lan.

> ORDENAGAILUA

### Tucano marka italiarrak Apple etxeko Mac Book Pro ordenagailuarendako zorroa atera du

Apple etxeko Mac Book Pro eskuko ordenagailua erosi dutenendako, maletatxoak egiten dituen Tucano marka italiarrak ondoko argazkian ikus daitekeen zorroa atera du.

Tamainari dagokionez, primeran datorkio Mac etxeko ordenagailu txikiari. Espresuki Mac Book Pro-endako diseinatuta dago, 15,4 hazbeteko neurriarekin. Neoprenoarekin eginda dago, Second Skin Guaina izeneko gamaren barruan. *www.tucano.com*



Eskuko ordenagailua ondo babesteko zorro dotorea da Tucanorena.

> ARGAZKILARITZA

### Canon 30D kamera digitala: desiratuenetakoa profesionalen eta argazki-zaleen artean

Reflex kamera digitalak modan dira aspaldi honetan. Canon etxeko 30D modeloa da desiratuenetakoa profesionalen eta argazki-zaleen artean. Segundo bakoitzeko bost argazki atera ditzake, 30 irudi gehienez. Era berean, martxan jartzeko orduan azkarra da, 0,15 segundo besterik ez duelako behar argazkia ateratzeko gertu egoteko. Argazkiak RAW eta JPEG formatuetan kodifika ditzake aldi berean, 3.200 ISOko sentsibilitatearekin. Horrenbeste prestakuntza izanda, ez da merkea: 1.500 euro inguru.




Horrenbeste prestakuntza izanda, Canon 30D kamera ez da batere merkea: 1.500 euro inguru.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak

/4quattro4 /argi-plastik /arregi /atai /azkarate /joseba
/BZ-sistemas /dragon-oriental /dukiena /ego /elejalde
/ezkutuorly /gallastegi /ganesha /garaia /gorkagarai /gorkataxi
/guztizeder /irudisport /korozabaleta /maulanda /mayte /merkeopari
/multiopticas /ohiak /okipark /vitoria /pando /richimaier
/udalatx /udalaitz /urdeki

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



berriak

> PUBLIZITATEA

### Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren iragarkia ikusgai

Datorren astetik aurrera Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren iragarkia ikusteko aukera izango da Goiena Telebistan. Martitzenean egingo dituzte grabaketak eta matrikulazio kanpainan eskainiko da ibarreko telebistan. 2006-2007 ikasturteko heziketa zikloak zeintzuk diren azalduko du iragarkiak.

Era berean, maiatzaren 24an ate irekien jardunaldia egingo dute Goi Eskolan.

> PROGRAMAZIOA

### Aramaioko alkatea, Mertxe Mondragon, 'Debarri' saioan

Alberto Gorritibereak zuzentzen duen saioan Aramaioko alkatea, Mertxe Mondragon, izango da datorren asteko gonbidatua.

Aramaioko kontuak aztertuko dituzte eta herriaren etorkizunaz jardungo dute. Era berean, aramaioarrek aukera izango dute alkateari galderak egiteko. Horretarako *goiena.net* erabili beharko dute; dagoeneko aukera dute galderak egiteko.

> ARRASATE IRRATIA

### Eguneko albisteak goiz eta eguerdiro 107.7an

Nerea Zubietek ematen digu egunero herriko albisteen berri; goizero, 10:05ean, eta eguerdietan, berriz, 12:05ean. Debagoieneko herrietakoak ere batzen ditu, egunero herri batera hurbilduta. Horretaz gain, hitzordu sorta eta Joxe Landaren eguraldi iragarpena ere eskaintzen digu.

Goizetan albistegia entzuteko aukerarik izan ezean, arratsalde eta gauetan ere hainbat hitzordu dituzue.

> ZORION AGURRAK

### Arrasate Irratiko autobusaren eguneroko geltokia

Arrasate Irratiko autobusak egunero ematen dizu aukera nahi duzuna zoriontzeko. Edozein dela aitzakia, irratian duzu lagun, senitarteko edo maite duzunari abesti bat eskaintzeko aukera.

Goizero, 11:50ean duzu, bada, zorion agurren geltokian hitzordua eta arratsaldeetan, berriz, 17:15ean.Gurekin bat egiteko, ordea,bi modu dituzu: 943 71 17 31 telefonoa edo *irratia@goiena.com* helbidea.

**HERRI URRATS** > ZAPATUA ETA DOMEKA

# Iparraldeko ikastolen aldeko festa handia ikusgai GOITBn

Ttipi-Ttapa Telebistak iaz egindako saio berezia ikusteko aukera izango da Goiena Telebistan

**GOIENKARIA** > BERGARA

Herri Urrats festa handiaren irudiak ikusteko aukera izango da oraingo asteburuan Goiena Telebistan. Iparraldeko ikastolen aldeko festa handia Senpereko lakuan ospatuko da oraingo domekan, hilaren 14an. Debagoiendar asko gerturatuko da bertara; izan ere, autobusak antolatu dituzte gure ibarrean.

Hala, Goiena Telebistan iazko irudiak eta adierazpenak berreskuratuko ditugu. Ttipi-Ttapa Telebistak eginiko saio berezia ikusteko aukera izango da gurean. Euskararen aldeko festarekin gozatzeko aukera.



**HERRI URRATS** Iparraldeko ikastolen festa handia Senperen. GOIENKARIA

**'DIDJERIDU' SAIOA** > EGUENA, 22:15

# Aintzane Agirren eskalatzaila ezagutuko dugu 'Didjeridu' saioan

**GOIENKARIA** > BERGARA

Orain dela 25 urte jaio zen Aintzane Agirre oñatiarra. Irakasle ikasketak egin zituen eta irakaskuntzan dihardu gaur egun. Esan digunez, oso gustuko ditu haurrak eta ondo moldatzen da haiekin.

Oñatiko Ongi Etorri tabernan ere tabernari lanetan ari da gaur egun, baina bere zaletasunak beste batzuk dira. Eskalatzea du gogoko eta ahal duen guztietan Araozko haitzetara gerturatzen da; hain justu ere, Oñatiko txoko hori asko gustatzen zaio.

Bada, *Didjeridu* saioan izango dugu aukera ezagutzeko Aintzane Agirre. Araozko paretak eskalatzea gustatzen zaio eta boulder txapelketa ere jokatu izan du. Zenbait proba jokatu ditu, eta azkeneko proban hirugarren sailkatu zen.

Elkarrizketa Araotzen egin diote *Didjeridu* saioko kideek eta irudi ikusgarriak ere grabatu dizkiote paretan gora. Hori guztia ikusteko aukera izango dute datorren astean Goiena Telebistako ikus-entzuleek.

telebegi

**Unai Loidi**

## SL sindromea

Telebista programa baten gainean idazteko, ikusi egin behar, eta ni ez nintzen gai izan *Kalaka*-ren lehen emisioa osorik jarraitzeko. Sufrimendua sortzen zidan. Eztabaida saioa ei da. *Info-show* ere entzun dut. *Sorginen Laratza* zena gogorarazten zidan.

Euzkitzegatik zati baten; bideoen ostean platoan musika kolpetsua eta behartutako txaloak lehenesteko ohituragatik, beste apur baten; erreportajean presoen senideen hitzen gainetik (ez azpitik) musika entzutea ama baten hitzak baino inportanteagotzat zutelako ere bai; edo erreportaje hori egin zuen kazetaria platoan *Sorginen Laratza*-ko neskato kaxkarinaren itxurarekin aurkeztu zutelako (ile-apaindegian pasatutako ordu guztiak buruan zituela), erreportari itxuran beharrean. *Vaya Semanita*-n ibili den Iñigo Agirre ikusteak ere ez du laguntzen gaia serio edo parodia kutsuarekin lantzen ari ote diren bereizteko.

Ezin dut gehiago idatzi, ez nuen-eta dena ikusi. Egunen batean osorik ikustea lortzen badut, jarraituko dut idazten, gauza onak ere izango ditu-eta.

arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**

**10:00** Asteko gainbegiratua.
Ibili Munduan geltokian Ekuatore Ginearen gainean, Jose Maria Sarasuarekin; Mankomunitatearen egoitza berriaren gainean Iñazio Lakuntzarekin; udaberria berbagai, Pello Zabalarekin; musikaren geltokian, Fermin Mugurutza eta Sexty Sexers taldeen disko berrien gainean...

**Domeka**

**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Lorategiaren geltokia.
Meteorologiaren geltokia (Pello Zabala).
Sariak.
Zorion agurrak.
(parte hartzeko: 943 71 17 31).
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errepikapena)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errepikapena) .

GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 12**

**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean **22:45** Albisteak **23:15** Debarri **00:15** Berriak **00:45** Amaiera.

**Zapatua, 13**

**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo: Testu liburuen mailegua **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa **12:15** Debarri: Arrasateko alkatea, Ignacio Lakunza **13:15** Didjeridu **13:45** Elkartasun bideak. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Astekoak **15:00** Jazz mintegia **15:30** MKT. **15:45** Herri Urrats 2005 **16:15** Sustraia **16:45** Erreportajea **17:15** Didjeridu **17:15** Marrazki bizidunen bilduma **19:15** Eltze beroa. **19:30** Debarri: Ignacio Lakunza. **20:30** Astekoak **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Didjeridu **22:15** Herri Urrats:2005. **22:45** Behazulo **23:15** Erreportajea **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 14**

**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** Herri Urrats 2005. **13:15** Elkartasun bideak. **13:45** Klip@. **14:00** Marrazki bizidunak: Snorkel **15:00** Munduari bueltaka. **15:30** Ilunpean **16:00** Astekoak **16:15** Behazulo. **16:45** Debarri: Arrasateko alkatea. **17:45** Marrazki bizidunak: Popeye **18:45** Kilp@ **19:15** Iparrorratza **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** Herri Urrats 2005. **21:30** Debarri. **22:30** Didjeridu. **23:00** Teknopolis: erreportaje saioa. **23:30** Astekoak. **23:45** Emisio amaiera.

**Astelehena, 15**

**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo **14:15** Eltze beroa: Pasta freskoa **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** Munduari bueltaka: India. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Ilunpean **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Didjeridu: Olatz Lazkano. **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea **18:15** Sustraia **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Ilupean **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Harmailatik. **21:45** Albisteak. **22:15** Harmailatik **22:45** Berriak **23:15** Jazz zikloa **23:45** Albisteak. **00:15** Amaiera.

**Martitzena, 16**

**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz zikloa **14:15** Zera dio **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Harmailatik **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Jazz zikloa. **17:30** Danbaka saioa. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Bertiz parkea **18:15** Munduari bueltaka **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Harmailatik **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Ilunpean. **21:45** Albisteak. **22:15** Berbaire. **22:45** Berriak **23:15** Behazulo **23:45** Albisteak. **00:15** Amaiera.

**Eguaztena, 17**

**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Danbaka **14:30** M1 **14:45** Albiste aurrerapena **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Berriak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak **21:47** Debarri: Aramaioko alkatea, Mertxe Mondragon izango da protagonista. **22:45** Berriak **23:15** Erreportajea **23:45** Albisteak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 18**

**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Sustraia. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Debarri **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jazz mintegia. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza:. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Albisteak. **20:15** Marrazki bizidunak: Card Sakura **20:45** Berriak. **21:15** Sustraia. **21:45** Albisteak. **22:15** Didjeridu: Larraitz Agirre eskalatzaileari elkarrizketa. **22:45** Berriak. **23:15** Berbaire **23:45** Albisteak **00:15** Amaiera.

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

**BIDABURU AROZTEGIA**
Oñati
• Era guztietako berrikuntza lanak, leihoak, neurri guztietako atariak, zoruak, eta abar.
Zubillaga 20
T: 943 78 35 00 / 627 48 58 13
bidaburu.h@euskalnet.net

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Aranburuzabala 56
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

**ZUTARRI SL**
Arrasate
Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78 / Faxa.: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

## ESKAIOLISTAK

**EMILIO ESKAIOLAK**
Aretxabaleta
• Eskaiolazko eta pladurrezko sabaien dekorazioa, sabai desmuntagarriak
Bedarretako San Migel auzunea 14, behea D
T: 943 79 60 65 / 675 70 25 12

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

**G. IZCUE IRURZUN**
Arrasate
• Igeltserotza orokorra
• Etxeen berrikuntza
• Sukaldeak, komunak…
Munar 6
T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
T: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
T: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**JOVI**
Arrasate
• 10.000 koloreko menua
Ferrerias 36, behea
T: 943 79 12 87

**L. GONZALEZ PINTURAK**
Aretxabaleta
• Pintura orokorra, pintura papereztatua
Basabe poligonoa F-6
T: 686 113 581

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

# Maiatzak 12-19

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

## 'Lapurtar koblariak' gurean



ELGETA
**> Pantxoa eta Peiok Euskal Eskola Publikoaren alde joko dute**
Pantxoa Carrere eta Peio Ospital musikari lapurtarrek Euskal Eskola Publikoaren aldeko kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean. Abesti berriak zein aski ezagunak direnak eskainiko dituzte.

## Edorta Jimenez Oñatin



OÑATI
**> Edorta Jimenez idazlearekin berriketan egiteko aukera izango da**
Edorta Jimenez idazlea (Mundaka, 1953) liburutegira etorriko da eguenean, hilak 18, 19:30ean, eta hura hobeto ezagutzeko aukera izango dute irakurleek. Genero gehienak landu ditu, eta hizkuntza askotara itzuli izan dute.

## Euskal musika eta dantzak



BERGARA
**> Euskal erromeria izango da gaur, egubakoitza, Munibe plazan**
*Munibe plazara dantzara!* programaren barnean, erromeria egongo da gaur, egubakoitza, Bergarako Aritz, Xabi eta Enaitz trikitilariekin eta Izer eta Alabierekin. Eguraldi txarra badago, frontoian egingo dute, joan den astean bezala.

# Musika

BERGARA
**> 50eko hamarkadako musika The Hound Dogs taldearekin**
Coruñako The Hound Dogs laukoteak kontzertua egingo du. 50eko hamarkadako rockabilly estiloa lantzen du. Sonny Burgess, Johnny Burnette, Ronnie Self, Johnny Horton eta beste batzuen moldaketak egiten dituzte.
Gaur, egubakoitza, Tartufo jatetxean, 23:30ean.

OÑATI
**> Musikegunak programaren barnean, kontzertua**
Ensemble Diatessaron taldeak musika emanaldia egingo du Oñatiko 28. Musikegunak programaren barnean.
Etzi, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrera, 6 euro.

ARRASATE
**> Los Cretinos taldeak musika emanaldia egingo du**
Los Cretinos taldeak kontzertua egingo du. Arrasatearrak dira partaideak.
Gaur, egubakoitza, Gure-Leku tabernan, 23:00etan.

ARRASATE
**> Doctor Deseo taldeak kontzertua egingo du**
Doctor Deseo taldeak *Detrás de los espejos rotos* diskoa kaleratu berri du, eta berau aurkeztuko du zuzenean. Eta bihar, zapatua, Mansilla rock disko-jartzaileak emanaldia egingo du 03:00etan.
Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

ESKORIATZA
**> Herriko taldeek grabatutako CDa aurkeztuko dute**
Klineks, Arianrod eta Lukas Prest talde eskoriatzarrek *Lokaletako hotsak* diskoa grabatu dute, eta berau aurkeztuko dute zuzenean.
Bihar, zapatua, 22:00etan.

BERGARA
**> Disko-jartzaileen emanaldiak egongo dira Ziripot tabernan**
Gaur, egubakoitza, Balza (kpk) disko jartzaileak egingo du emanaldia, eta bihar, zapatua, D_2 (kpk)-k.
Bi emanaldiak 22:30ean hasiko dira.

BERGARA
**> The Nitwitz eta Señor No talde beteranoak, zuzenean**
Punk-rock eta high energy rock estiloetako antzinako bi taldek joko dute: The Nitwitzek (Herbehereak) eta Señor Nok. Azken horiek indarberrituta daude taldean aldaketa batzuk egin ondoren. Kontzertua zuzenean emango dute Txapa Irratian (FM 97.25).
Etzi, domeka, gaztetxean, 20:00etan.

# Erakusketak

BERGARA
**> Hegazti sarraskijaleen gaineko erakusketa ipiniko dute**
*Hegazti sarraskijaleak* delako erakusketa ipiniko dago kultura etxean. Oñatiko Natur Eskolak antolatzen du.
Maiatzaren 20ra arte dago zabalik. Ordutegia: astegunetan, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

ARETXABALETA
**> 'Nairobitarra'-ren gaineko erakusketa dago**
*Nairobitarra, milioi bat kilometro lur azaletik* izeneko erakusketa ikusteko modua dago. Josu Iztueta bidaiariak antolatu du, eta *Nairobitarra* autobusean 23 urtez bizi izandako esperientziak helarazten ditu.
Udaletxe zaharreko ganbaran dago etzira, domeka, bitartean, 18:00-20:00.

ELGETA, OÑATI
**> Sahararen aldarrikapenen gaineko argazki erakusketa**
*Saharak 30 urte baino gehiago justizia aldarrikatzen* delako argazki erakusketa ipini du Mundumirak. Iñaki Bergarak egin ditu argazkiak, eta Mikel Razkinek idatzi ditu testuak.
Domekara bitartean dago zabalik Espaloia antzokian; astelehenetik eguenera, Oñatiko kultura etxean.

BERGARA
**> Iñaki Ibartzabal bergararraren lehenengo erakusketa**
Iñaki Ibartzabal margolari bergararrak bere lehen erakusketa dauka Masterreka kaleko Nahikari tabernan. 16 margolan dira, denetariko eskolakoak; batez ere, inpresionistak, espresionistak eta espresionista abstraktu estilokoak.
Hil osoan dago zabalik.

PROPOSAMENA

ARETXABALETA
### > Otala Zelaiko erromeria ospatuko dute etzi, domeka

Otala Zelain hainbat ekintza egingo dituzte etzi, domeka: 28. herri krosa, abereekin jolasak, bertsolariak, herri bazkaria (norberak eraman beharko du), umeendako herri kirolak, musika…
Paella txapelketa jokatuko da 13:00etan. Izenematea 5 euro da. Antolatzaileek arroza, olioa, tipula, koloratzailea eta berakatza jarriko dituzte, eta taldeek beste osagai guztiak ipiniko dituzte.
Eguraldi txarra eginez gero, Iturrigorri frontoian egingo dute.



ELGETA
**> Mari Fran Eraña eibartarrak erakusketa ipiniko du**
M. Fran Eraña margolari eibartarrak erakusketa ipiniko du Espaloia antzokian. Eibarko Arrate Kultur Elkartean hasi zen margotzen, Elisabet Egurenen ikasle moduan. Olioak egiten ditu batik bat, eta akuarelaren bat ere. Besteak beste, Bergarako aire zabaleko margo lehiaketan parte hartutakoa da.
Etzi, domeka, zabalduko dute erakusketa.

# Jaiak

ESKORIATZA
**> Gazteen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua**
Goizean, triki-poteoa, txalapartarien emanaldia, grafitiak… egingo dituzte. 14:30ean, bazkaria egingo dute, eta bazkalostean, animazioa izango dute: bertsolariak, batukada, capoeira…
Eguna amaitzeko, herriko taldeek grabatutako CDa aurkezteko kontzertua izango da, 22:00etan.

ARRASATE
**> 17. Kultura Astea ospatuko du Al-Andalus elkarteak**
Bihar, zapatua, hasiko dira ekitaldiak. Datozen egunotan, Aita Mennira bisitaldia, mahai-jolasak, janari-dastatzeak, umeendako jolasak, folklore emanaldiak… egongo dira.
Hilaren 13tik 21era arte ospatuko dute.

# Antzerkia

BERGARA
**> Paula Carballeira galiziarraren helduendako ipuin kontaketa**
Oihulari Klown taldearen Ipuin Zirkuitoaren barnean, Paula Carballeira galiziarraren emanaldia izango da. *La pescadora de almas* ipuina kontatuko du.
Eguenean, hilak 18, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

# Bestelakoak

DEBAGOIENA
**> 'On-line' partxis txapelketa jokatuko da KZguneetan**
Euskadiko KZgune guztietan Internet bidezko partxis txapelketa jokatuko dute. Izena eman behar da aurretik.
Hilaren 17an jokatuko da, 10:00-13:00, baina izena eman beharra dago gaur, egubakoitza. Doan da.

ESKORIATZA
**> II. Lore Eguna antolatu dute biharko, zapatua**
Egun osoan, loreak banatuko dituzte Herriko plazan.
Herriko dendariek antolatu dute.

## nire aukera



Iñaki Riviere
Margolaria
Arrasate

## "Kantabriako landetxe batera joango naiz"

Kantabriako landetxe batera joateko gogo handia dut, eta asteburu baten horixe egiteko asmoa dut. Hori plan ideala izango litzateke niretako. Hori bai, kostaldean egon behar du, eta museo edo erakusketa onen batetik gertu; oporretan noanean, ez zait gustatzen tripaz gora egotea, kulturaz gozatzea gustatzen zait.

Azkenaldian ez dut askorako astirik izan; asko jota, Landara, Urkulura... joaten naiz pasioan. Denbora luzeez margotzen ematen dut.

**Eraikuntzak margotzen dituzu askotan. Zein eraikin gustatzen zaizu?**
Euskalduna jauregia eta Guggenheim museoa. Irandar arkitekto batek Durangon eta Bilbon egin behar dituen proiektuen zain nago ere.

**Gomenda egiguzu erakusketaren bat.**
Bilboko Arte Ederretan dagoen Velazquezen erakusketa primerakoa da.

**Irakurtzeko zer edo zer?**
Margolaritzaren gaineko liburuak irakurtzen ditut bakarrik...

**Parrandarik egiten duzu?**
Gero eta gutxiago... bakarrik ezkontzetan! (barre) Nahiko goiz etxeratzen gara.

**Nora bidaiatuko zenuke?**
AEBetara, New York ikusteko. Eta Italiako edozein lekutara.

**Goizeko, arratsaldeko edo gaueko pertsona zara?**
Arratsaldekoa eta gauekoa. Inoiz geratu izan naiz goizeko bostak arte margotzen.

# Zinema

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Aupa Etxebeste!**
Egubakoitza: 22:00.

**Spider-man 2**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Volver**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**El castillo ambulante**
Domeka: 17:00.

**Tsotsi**
Eguena: 20:30.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**El método**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**V de vendetta**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR
**UNZAGA**

**Crash**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

**Misión imposible 3**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Déjate llevar**
Egubakoitza: 20:00.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

**Misión imposible 3**
17:00, 19:45, 22:30.

**La huella del silencio**
17:00, 19:45, 22:30.

**Hard candy**
17:00, 19:45, 22:30.

**Ice age 2**
17:30.

**Burt Munro: un sueño, una leyenda**
17:30, 20:00, 22:30.

**Plan oculto**
17:00, 19:45, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**

**Brasileirinho**
Zapatua eta domeka: 19:45.

**El cielito**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**Volver**
17:30, 20:00, 22:30.

**Estrellas de la línea**
17:00, 19:45, 22:30.

**Eres muy guapo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Un franco, 14 pesetas**
17:00, 19:45, 22:30.

**Himalaya**
22:30.

**De latir, mi corazón se ha parado**
17:30, 20:00, 22:30.

**ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

**La niñera mágica**
16:30.

**La huella del silencio**
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

**El caso Slevin**
22:00, 00:30.

**Ice age 2**
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

**Misión imposible 3**
16:00, 19:00, 22:00, 00:30.

**In the mix**
19:00, 22:00, 00:40.

**La pantera rosa**
16:00, 18:00.

**En busca de un beso salvaje**
20:00, 22:00, 00:30.

**Bienvenido a casa**
22:00, 00:40.

**Salvaje**
16:00, 18:00, 20:10.

**Míos, tuyos y nuestros**
16:00, 18:00, 20:00.

**16 calles**
16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:40.

**El mundo alrededor**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**La huella del silencio**
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

**Bajo cero**
12:15, 16:00, 18:30, 21:00, 00:00.

**Misión imposible 3**
12:15, 17:30, 20:00, 22:30, 01:00.

**La pantera rosa**
12:15, 16:05.

**Ice age 2**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Déjate llevar**
22:10, 00:20.

**Caos**
12:15, 15:50, 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**Novia por contrato**
20:45, 22:45, 00:45.

**Un franco, 14 pesetas**
12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

**Salvaje**
12:15, 16:10, 18:10.

**Plan oculto**
12:15, 17:10, 19:40, 22:10, 00:40.

**Zathura**
12:15, 16:45, 18:45.

**V de vendetta**
17:10, 16:50, 19:30.

**Slither: la plaga**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**El caso Slevin**
20:05, 22:15, 00:25.

**Burt Munro, un sueño, una leyenda**
12:15, 17:20, 19:50, 22:20, 00:50.

**La niñera mágica**
12:15, 15:45, 17:45.

**Crash**
18:05, 20:20, 22:40, 01:00.

**Volver**
19:45, 22:05, 00:25.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**V de vendetta**
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

**16 calles**
12:10, 16:00, 18:05, 20:10.

**Misión imposible 3**
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

**Bajo cero**
12:10, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**Volver**
17:00, 22:10, 00:45.

**Déjate llevar**
12:00, 17:00, 19:45, 22:05, 00:30.

**Ice age 2**
12:15, 16:15, 18:10, 20:05, 22:15, 00:30.

**Declaradme culpable**
12:15, 19:45.

**Instinto básico 2**
22:15, 00:45.

**Caos**
12:00, 17:00, 20:00, 22:15, 00:45.

**Novia por contrato**
12:00, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Salvaje**
12:00, 16:25, 18:15.

**Plan oculto**
12:00, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

**Rosas rojas**
20:25, 22:30, 00:45.

**Firewall**
12:15, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Tsotsi**
Erresuma Batua-Hego Afrika, 2005. Zuzendaria: Gavin Hood. Aktoreak: Presley Chweneyagae, Terry Pheto.
94 min. Drama.
*Tsotsi* (Chweneyagae) Johannesburgoko kaleetan bizi den gaizkile gaztea da. Egun baten, emakume baten autoa lapurtzen du, eta gero konturatzen da ume jaioberri bat dagoela barruan...

**Volver** ****
Espainia, 2006. Zuzendaria: Pedro Almodovar. Aktoreak: Penelope Cruz, Carmen Maura, Lola Dueñas.
110 min. Komedia dramatikoa.
*Raimunda* (Cruz) Madrilen bizi da, eta jaioterrira bueltatu beharko du izeba hil zaiola jakitean. Han, ezuste bat du zain: konturatuko da amaren (Maura) mamua berarekin bueltan joango dela Madrilera.

**Burt Munro: un sueño, una leyenda**
Zeelanda Berria-AEB, 2005. Zuzendaria: Roger Donaldson. Aktoreak: Anthony Hopkins, Diane Ladd, Jessica Cauffiel.
126 min. Biografia, drama.
*Burt Munro*-ren (Hopkins) benetako historian oinarrituta dago. Zeelanda Berriko motozale hori Utah-era (AEBak) joan zen eta oraindik gainditzeke dagoen abiadurako mundu marka ezarri zuen 1967. urtean.

**Slither: la plaga**
AEB, 2006. Zuzendaria: James Gunn. Aktoreak: Nathan Fill, Elizabeth Banks, Michael Rooker.
95 min. Beldurrezkoa.
*Grant Grant* (Rooker) lasai bizi da. Gau baten, parranda egiten du beste neska batekin, eta basoan masa arraro bat aurkituko dute. Masa parasito estralurtarra da, eta *Grant*-en gorputza hartuko du...

**Spider-man 2**
AEB, 2004. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguirre, Kirsten Dunst, Alfred Molina.
127 min. Akzioa, zientzia-fikzioa
*Peter Parker* (Maguire) Spider-man bihurtu zela bi urte joan dira. Horrek dakartzan ardurak onartu egin ditu, baina bizitzako momentu txarrean dago.

**Aupa Etxebeste!**
Espainia, 2005. Zuzendariak: Asier Altuna eta Telmo Esnal. Aktoreak: Ramon Agirre, Elena Irureta.
97 min. Komedia.
*Etxebeste familia* oporretan Marbellara joatekoa den egun berean, jakiten dute aurrezki-kontu guztiak bahitu egin dizkietela. Familiak erabakitzen du plantak egitea eta oporretara joan direla sinistaraztea denei.

**Rosas rojas**
AEB-Erresuma Batua-Alemania, 2006. Zuzendaria: Ol Parker. Aktoreak: Piper Perabo, Lena Headey, Matthew Goode.
94 min. Komedia.
*Rachel* (Perabo) eta *Heck* (Goode) gaur ezkontzera doaz. Dagoeneko elizan daudela, *Rachel*-ek *Luce* ikusten du, loreak apaindu dituen neska, eta maitemindu egiten da.

**V de vendetta**
AEB, 2006. Zuzendaria: James McTeigue. Aktoreak: Natalie Portman, Hugo Weaving, Stephen Rea, John Hurt.
98 min. Thrillerra.
Etorkizuneko gizarte beldurgarri baten girotutako istorioa kontatzen du filmak. *Evey* gaztea (Portman) hil ala biziko egoera batetik erreskatatzen du maskaradun gizon misteriotsu batek, *V*-k. Iraultzaren alde borrokatuko dute biek.

**Un franco, 14 pesetas**
Espainia, 2005. Zuzendaria: Carlos Iglesias. Aktoreak: Carlos Iglesias, Javier Gutiérrez, Nieve de Medina.
105 min. Komedia.
Espainia, 1960. Bi lagun, *Martín* eta *Marcos*, Suitzara joaten dira lan bila. Espainian familiak utzita, Europa garatura bidaia hasten dute.

**Misión imposible 3**
AEB, 2006, Zuzendaria: J.J. Abrams. Aktoreak: Tom Cruise, Ving Rhames, Philip Seymour Hoffman, Michelle Monaghan.
128 min. Akziozkoa.
*Ethan Hunt* agenteak (Cruise) inoiz izan duen aurkari gogorrenarekin neurtu beharko ditu indarrak: *Owen Davian*-ekin, arma eta informazio-trafikatzailea mundu osoan.



## De latir, mi corazón se ha parado ***

**Zuzendaria:** Jacques Audiard.
**Aktoreak:** Romani Duris, Niels Arestrup
AEB, 2005.
129 min. Drama, thrillerra.

*De latir, mi corazón se ha parado*-k kutsu existentzialista du. Istorioaren protagonista nagusia hogeita piku urteko mutil bat da, eta filmean zehar hark zer-nolako bizimodua daraman eta haren izaera ezagutzeko aukera izango dugu. Mutilak, bere aitak egiten duen bezala, higiezinen sektorean lan egiten du. Negozioan dirua lortzeko edozer gauza egiteko kapaz diren bi bazkiderekin lan egiten du. Hilda dagoen amak, berriz, pianoa jotzea gustuko zuen, eta semeak, nahiz eguneroko gauzetatik baztertua egon, amaren zaletasun hori jaso du. Filmean, gure protagonistak aitaren eta amaren munduen eragina nabaritzen du; eta biekin duen norgehiagoka horretan datza istorioaren mamia. Musika munduari dagokionez, oso politak dira mutilak irakasle txinatarrarekin dituen eszenak.

Jacques Audiard-ek mutilaren nahiko erretratu zehatza egiten du: kamera nabarmenki mugitzen du, zabu asko emanez, pertsonaiaren urduritasuna eta egonezin existentziala adierazteko. Pertsonaiaren aurpegira asko hurbiltzen da; horrela, gertakizunek pertsonaiarengan duten eragina ondo sumatzen dugu, eta jasaten ari den gatazka barnerakoiaren lekuko bihurtzen gara.

*De latir, mi corazón se ha parado*-n gauzak ez dira guztiz argitzen, mutilaren iraganari buruz datu solte batzuk dauzkagu, ez dira oso zehatzak, eta horiei ikusleok gure interpretazioa eman beharko diegu eta dauden hutsuneak bete. Hori dela eta, filmak kutsu sekretu bat ere uzten du.

**Antonio Zabala**

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
Promozio baliagarria 2006/05/31, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
ÁBACO
ZINEMA MAILA GORENEAN

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
132 posta-kutxa, Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2006-05-12

# Agorrosingo zaintzailea

**URTE PILOA** Jose Ignacio Garaikoetxeak 30 urtetik gora darama Bergarako futbol zelaia zaintzen

**FUTBOL ZELAIAK** Belar naturaleko futbol zelaien modukorik ez dagoela argi dauka Jose Inaziok

**GUSTURA** Hainbat osasun arazo gainditutа, momentuz ez dauka erretiratzeko asmorik; gustuko lana du

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Auskalo zenbat buelta emango zion Jose Inazio Garaikoetxeak Agorrosingo zelaiari sega-makinarekin. 30 urtetik gora darama Bergara kirol elkartearen futbol zelaia zaintzen. "Etxean baino ordu gehiago ematen ditut hemen", diosku. Hainbat osasun arazo gaindituta, momentuz ez du erretiratzeko asmorik, gustuko lana duela dio. Belar naturaleko futbol zelaien modukorik ez dagoela argi dauka: "Belar artifizialekoak gero eta hobeak dira, baina jokalari guztiek nahiago dute belar naturala". Agorrosingo belarra *reingres* motakoa da. Realak ekartzen du, hitzartuta dituen kluben zelaiekin gertatzen den moduan. "Zelaia zulatu, oxigenatu, eta ondoren harea eta hazia botatzen da futbol denboraldia bukatutakoan. Nitratoa ere beharrezkoa da, belarrak indarra har dezan. Ekainean eta uztailean ia egunero moztu behar izaten dut belarra; orduan lan handien...".

Olano markako sega-makina erabiltzen du azken 15 urteotan. "Agorrosinera egunero etortzen naiz, baina batzuetan ezin makina erabili... Ureztatzea, berriz, automatikoki egiten da, ihinztagailuak programatuta". Agorrosingo bazterrak ondo baino hobeto ezagutzen ditu: "100x63 m-ko neurriak ditu zelaiak, nahikoa futbolean dakienak egiteko...".

**IGOERA ZAILA AURTEN**

Agorrosingo zelaiak badauka berezitasun bat: igeltsu-meatzeak dauzka azpian: "Zuloak sortu izan direlako hiru aldiz-edo itxita izan da Agorrosin, azkena orain dela zazpi bat urte". Futbol zelaiko zaintzailea izateaz gain, Bergara KEko zuzendaritza taldean dabil Jose Inazio: "Zaila daukagu preferentera igotzea...". Bestalde, Agorrosingo kirolgune berria dela eta, zalantzan dago zer gertatuko den futbol zelaiarekin: "Agorrosin dagoen tokian belar artifizialeko bi zelai egingo zituztela esan zuten hasieran, baina baliteke bakarra egitea... Ez dakigu ezer, baina pena emango lidake belarrezkoa kentzeak".



**SEGA-MAKINAREKIN** Jose Inazio egunero joaten da Agorrosinera. Astelehenean ere belarra mozten zebilen. EDU MENDIBIL

## ahobero

**"2050. urterako ipar poloak urtu egingo dira eta mendea amaitu baino lehen Londres ur azpian izango da. Urrunegi joan gara eta ja ez dago atzera bueltarik"**

**James Lovelock** > Zientzilaria

Hala bada, a ze etorkizuna lagako dioguna gure seme-alabei, itxaropen-izpi barik...

## iturri onetik

**Errekor saiakera izango da Urkulun maiatzaren 25ean, Arizmendiren eskutik**

Arizmendiko LHko ikasleek eta langileek deituta, maiatzaren 25ean errekor saiakera izango da Urkulun: patinekin ahalik eta jende gehien elkartu nahi dute. Eskutik helduta jendea urtegiaren bueltan kokatuko dute. Egunotarako hainbat ekitaldi iragarri dituzte. Bihar, zapatua, esaterako, Arrasateko Hiper-Eroskin izango dira, tentsioaren neurketa eta bestelako analisiak eginez.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Epaitegira

Bat. Argi dago: Espainiako eskuinak ez du oraindik irentsi gobernua galdu izana, eta jarraitzen du M-11ko atentatua erabiltzen, bazterrak nahasteko.

Bi. Bistakoa da Espainian oraindik errenta duela gu kakazteak. Dena da baleko: presoen edo *ingurukoen* kontra jotzea bezala, boikota egitea interes ekonomiko euskaldunei, hala nola, kooperatibei.

Hiru. Duela gutxi, *El Mundo* egunkariak neurri deontologiko guztiak galdu ditu eta erabat lerratu da joko zikinera: Grupo Mondragon izena erabiliz, kooperatiba taldea nahastu du M-11ko atentatuekin.

Lau. Oraingo hau ez da izan kirtenkeria bat *blog* erdi ezkutuan; hau izan da gezur salagarria zabalkunde handiko egunkarian. Oraingoan ezingo nuke ulertu MCCk ez eramatea *Pedrojota* epaitegira.

## ai, ene!



**Oraindik ere formula magikoaren atzetik**

Coca-Colak 120 urte bete ditu egunotan. Eta oraindik *txinpartadun* edariaren formula magikoa jakin barik jarraitzen dugu...

http://tinyurl.com/jaesj



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.
Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51